

zeri kantatzen diogu euskaldunok?

Hitzen ahairea

GOTZON BARANDIARAN



GOTZON BARANDIARAN

Hitzen ahairea

zeri kantatzen diogu euskaldunok?



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2018 Gotzon Barandiaran

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2018ko urria

Edizio hau: 2018ko urria

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefona: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.eus

Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

Bertako idazle baten letrak

ANDONI TOLOSA *MORAU*

Ez dek ondo idazten, motel / den-dena ulertzen zaik, /
hori edozeinek egingo likek, / edozer idatzi, eta edo-
zer modutan, / bi peztako hitz jokoak edo anekdotak,
/ grazirik ez duen surrealismoa, / ez die serio hartuko,
horrela ez hoa inora, / hik behar dekena, hau dek
behar dekena, / bertako idazle baten letrak, / hi goo-
gle-era joan, ta jarri euskal poetak, / asko zerek eta
oso finak, / hik bilatu hitzek ez direnak arinak, / ana-
basa, deserria eta horrelako hitzak, / sekula ez telebis-
ta edo pizza, / enkarguz ere egiten omen dizkie hire
doinuaren gainean, / gaur bialduta bihar bertan
gauean, / edukiko dek zerbait hermetikoa, / sakona,
iluna eta poetikoa, / aho zabalik utziko dituk entzule
eta kritikoak / izkiriatu, karrika eta holako hitzak, / se-
kula ez alkandora edo fitxa, / ez daukak ezer galtzeko,
hurrengo diskan egintzak proba, / bertako idazle
baten letrak, / bertako idazle baten letrak.

Kau Kori Kura,
“Gaur ni, bihar
zu”, 2018

Ez da beti dirudien bezain dirdiratsua kantugileen eta idazleen arteko harremana, askotan deseroso, gehienetan korapilatsu... Elkar konpontzera behartu-tako anai-arrebak bezala jarduten dugu musikariok eta idazleok, gehienetan. Eta ez da ofizioen arteko ezi-nikusiak eragindakoa, ezta gutxiagorik ere, badira arrazoi funtsezkoagoak harreman hori baldintzatzen dutenak.

Kantuaren eta poemaren arteko tentsioa da lehe-nengoa. Genero bezala oso ezberdinak dira bata zein bestea, sorkuntzatik beretik. Zer pentsa lezake, adibi-dez, kantua ezagutu ez eta, bestelako klabe kulturalik gabe, Artzeren *Txoria txori* lehen aldiz paperean ira-kurtzen duen euskara-ikasle literaturazaleak? Ez al zaio irudituko, euskaldunon ereserki ez-ofizial hori, balio literario gutxiko testutxo erraz eta gatzik gabea? Baina, era berean, zer pentsatuko du ikasle musikaza-leak, kantu baten bila abiatu eta, haren bestelako erreferentziarik gabe, Gabriel Arestiren *Josepa Mendi-zabal Zaldibian* poema, letania errebesatu eta “free” samarra bihurtuta topatzen duenean Imanol Larzaba-len ahotsean? Une batzuetan entzutea ere zaila gerta-

tzen den kantu luzeegi, nahasi eta eroegia gertatuko zaio, eta ziurrenik lanak edukiko ditu baita kantua oso-rik entzuteko ere.

Biak dira kantu, bietan gertatzen baita alkimia arraro hori, non hizkuntza musikalak eta literarioak bat egiten duten, espresioan, intentzioan, intentsitatean. Jakina, lehenean erakargarri, on eta eder den guztia (entzunerraz), da krudel, zakar, mingotsa, bigarreanean (entzungaitz). Hala eskatzen zuen kantu ba-koitzak, hala eskatzen zuen kantuaren testuinguru kultural eta sozialak, idazlearen asmoak, musikariaren gogoak... Garai oso ezberdinetako alabak dira biak, eta ederki erantzuten diote “betebehar” horri. Bata amesteko dago, bestea zirikatzeke, bata bakeaz ari da, bestea gerraz. Baina batek lagunartean kantatze-ko balio du; besteak, berriz, ez. Beraz, ez da harritze-koa, lehenak sekulako arrakasta “publikoa” edukitzea; bigarrena, berriz, adituen bazka bilakatu da. Baina ezin da ukatu, artistikoki, biak ala biak direla literatu-
ra eta musika modu bikainean ezkondu daitezkeena-
ren adibide. Alde horretatik, Gotzon Barandiaranek li-
buru honetan aipatzen duen tesietako baten adieraz-
le dira. Alegia, idazleen eta musikarien arteko harre-
manak ekarpen ederrak egin dizkiela bi generoei,

baina batez ere musikari. Horretarako, baldintza, abiapuntu eta helburu ezberdinekin egindako saiakerak biltzen dira ondoko orrialdeotan. Egileak bi munduak ederki ezagutzen dituen arren, azterketa batez ere idazleen lubakitik abiatzen badu ere. Normalean musikariak jotzen du-eta idazlearengana, gutxitan gertatzen da alderantziz.

Kantuak kantatzeko balio behar du, hori da giltzarria, belarritik ahora dator, sentitu egiten dugu, zerbait eragiten digu eta gero iltzatzen da memorian, behin kantatu eta gero. Poesiak begietatik egiten du bide bera, eta, irakurtzen dugunean, haren arima “poliedrikoa” antzeman dezakegu, gelditu gaitezke, hitzak errepikatu, esaldiak berriro hasi, hausnartu, begiak itxi eta pentsatu... Utzi eta berrartu. Kantuak ez, kantuak ez digu halako aukerarik emango, diskoa zabaldu eta hitzak irakurtzen ez baditugu bederen. Zenbat idazle ez ote ditu ezagutu musikazaleak ariketa sinple horrekin? Eseri, jarri diskoa eta entzun ahala, irakurri kantua hitzak, poliki-poliki, entzundakoan ihes egin dion zentzuaren bila, kantua hobeto ezagutzeko asmotan. Lan estra bat da literatura, askotan, kantuzalearentzat.

Egia da, euskaldunoi dagokigunez, bertsolariek asko erraztu digutela bidea. Haiek ofizio eta arte bilakatu dute hitza eta musika uztartzearena, baina, guk ez bezala, artea baino komunikazioa denez erdietsi beharreko helburua, haren menpe kokatzen dituzte biak, bai hizkuntza literarioa eta baita musikala ere. Beren komenentziara moldatzen, bihurritzen dituzte biak, eta badakite inguruarekin estu lotzea dela arrakastaren gakoa, molde pertsonal, original eta propioa eraikiz. Hala eta guztiz ere, estua izan da beti bertsolaritzaren, literaturaren eta kantugintzaren arteko harremana. Bertsolaritzatik edaten zuten Etxahunek, Iparragirrek... Bertsolaritzari begira jarri ziren kantari berriak 1970eko hamarkadatik aurrera (Xabier Lete, Oskorri...), eta bertsolariek idatzi dituzte azken 30 urteetako soinu-bandan iltzatuta geratu zaizkigun kantuetako batzuen hitzak (Xabier Amuriza, Jon Sarasua, Jon Maia...). Edonola ere, gai horrek aparteko azterketa mereziko luke. Alde horretatik, aipagarria da Alberto Irazuk, rockaren eta bertsolaritzaren arteko harremana aztertuz, osatutako lan bikaina: *Rocka puntua* (Pamiela 2017).

Bertsolariengatik ez balitz, gatazkatsuago litzatekeela uste dut musikarien eta idazleen arteko harre-

mana gurean. Hein handi batean, 1960ko hamarkadan garatutako kantagintza berria da lehena (kantari eta entzuleei dagokienez), kantuen balore literarioa estimatzen, jorratzen, ereiten. Ordura arte, herri musikatik urrun kokatzen ziren estilo musikaletan bakarrik (operan, adibidez) gertatzen zen “balorazio literarioa”, hitzen kalitate literarioa neurtzea alegia. Kantagintza berriak, ordea, zubia eraiki zuen, literatura-batez ere poesia- musika herrikoia ren forma nagusia den kantura ekartzeko. Esan daiteke, azkar eta traket, bi uztarri zituela mugimenduak; alde batetik, herri musika berreskuratzea, eta bestetik, inguruan eragiteko gaitasuna edukiko zuten kantu berriak sortzea. Agi denez, bigarren horretan bat egiten dute bai musikarien eta baita idazleen interesek ere. Honek ilustratuko luke, liburu honetan aipatzen den beste ideietako bat: urte haietan erraz egin zutela bat musikariek eta idazleek, elkar ezagutzen zutelako, eta batez ere, helburu politiko/sozial/kultural berak (edo gutxienez antzekoak) konpartitzen zituztelako. Horren ondorioz harreman hori, hasieran behintzat, oso natural bilakatu zen.

Aspalditik existitzen zen kantuetako hitzen idazlearen lanbidea, batik bat -masa komunikabideekin

(irratiarekin) eta musika erreproduzigailuekin- musikaren kontsumoa handitu zenetik, eta kantua bilakatu zenetik hura zabaltzeko formatu nagusia. Jazz, pop, soul, r&b... Idazle horiek ez zuten ordea literaturarik aldarrikatzen, haien hitz gutxi ikusiko dituzu sekula antologiaren batean. Lelo errazen bila, ideia argien erresuman, poeta gutxiren hitzak bilakatu ziren kantu 1950eko hamarkada ongi aurreratu arte. Hori irauli egin zuen kantagintza berriak, eta ordura arte sekula izan gabeko protagonismoa aitortu zion idazleari.

Gaur egun arte, nabarmenak diren ondorioak utzi ditu kantuari eta poesiaren arteko uztarketa honek. Kantariaren (musikariaren) transzenditzeko gogoak, adibidez. Kantu arin, dantzagarri, kontsumo azkarrekoaren ideia “demoniatu” egiten da eta gauza serio, sakon eta esanguratsuaz ari den kantua goraipatu. Gainera, bada transzendentalismo formal bat, musika hitzetara egokitu beharrak (errima eta metrika aldakorrak...) edota hitzak melodia gero eta abstraktuagotara ekarri beharrak eragindakoa. Baina, horretaz gain, batez ere, bada edukiei lotutako transzendentalismo bat, hitzetan bakarrik islatzen ez dena: bakarka aritzea, biluztasun musikala bultzatzea, melodia zuzen eta “epikoen” erabilera... Badirudi, kantugile

berriak tresna guztiak jartzen dituela haizatu nahi duen ideiaren mesede, edo hari, bederen, itzala ez egiteko moduan. Eta ideia hori hitzen bidez azaldu beharra dago.

Transzendentalismoa, esango nuke, orduz geroztik, generoz genero, transmititu den joera dela gurean. Bakarlariak, rock taldeak, folk taldeak, hip-hop kantariak, trikitilariak... berdin dio, gai serioei heltzeko edo ereserkiak egiteko behar moduko bat gertatzen zaigu musikarioi eta horretarako jotzen dugu etengabe idazleengana. Eta beti ez dago asmatzerik. Era berean, gutxietsi egiten da umorea, zirikatze, kritikatze, munduaz aritzeko arma eraginkor gisara; gerra serioa da gurea! Zer ongi egingo ligukeen bertsolarien ofizioarekin hain lotuta dagoen izpiritu “kritiko/jostalari” hori berreskuratzeak. Ez diet, jakina, haiei erru guztia leporatuko, baina, liburuan jasotako testuak errepasatuta sortutako galdera da: poetei arrotza al zaie umorea? Musikaiei ere bai?

Batzuetan, ordea, pertsona bera da musikaren eta hitzen egilea, idazlea eta musikaria. Alde horretatik badira, ez asko baina, Xabier Lete edo Xabier Montoia bezalakoak, bi hizkuntzak ongi ezagutu eta kantuaren berezitasunei erreparatuta, uztarketari atarramentu

egokiagoa ateratzen diotenak. Gainera, badira hanka bana mundu bakoitzean (literaturan eta musikan) duten sortzaile asko. Uste dut ingurumaria egokiena dela hau kantu onak eta, era berean, esanguratsuak sortzeko.

Bukatzeko, aitor dezadan, hiru arrazoiengatik jotzen dugula musikariok idazleengana testu eske. Lehen, alferkeriagatik. Bigarrena, zerbait benetan serioa esan nahi dugulako. Eta hirugarrena, musikariak literaturazaleak garelako. Batez ere, azken bi arrazoiak bueltan dabiltzan adibide asko topatuko ditu irakurleak liburu honetan, eta utzidazue esaten azkene-koarekin lotutakoak direla emaitza hoberena eman dutenak, inondik inora (Laboa/Artze, Oskorri/Aresti, Ordorika/Atxaga, Bide Ertzean/Otamendi, Tapia/Izagirre). Ez dakit asko edo gutxi diren, baina badira azken 60 urteetan gurean idazle eta musikarien artean eman den elkarlan jarraituaren adibide bikainak. Liburu honek egoera ulertzen lagunduko digu eta, batik bat, oso galdera interesgarri bat plazaratuko digu: zeri kantatzen diogu musikariok idazleei laguntza eskatzen diegunean?

Horregatik guztiagatik, uste dut errepaso beharrezkoa dela Gotzon Barandiaranek proposatzen digu-

na, hari argiz harilkatua dagoela, eta euskal kantagin-tza zertan den une honetan ulertzen laguntzeko tres-na egokia izan daitekeela.

(Azken oharra: hemendik aurrera kantu serioak idazteko gogoak piztu dizkit liburuak, benetan diot).

Euskaraz idatzi eta kantatzeko
hautua egin duzuenoi

Irakurleari

Liburu honetan, idazleen eta musikarien arteko el-karreraginetik sortutako kantagintzari buruzko gogoe-tak irakurriko dituzu. Halandaze, aipatuko diren kantu-ia guztietako testuak idazleek sortuak izanen dira. Gure kantagintza hori baino askoz zabalagoa da baina ni literatura eta musika uztartzen dituen era mugatu-naiz. Azalduko dut zergatik.

Literaturaz gehiago jakin behar genukeela ohartu-rik, geure burua geuk elikatu behar genuela ebatzita, behinola Literatura Eskola sortu genuen Bihotz Bakar-tien Klubaren eta Susa argitaletxearen abaroan elkar-tzen ginen batzuek, 2004an. Geuk erabaki genuen zer ikasi, geuk erabaki genuen nori eskatu zekiena gure-kin trukatzeko, geuk erabaki genuen noiz-non-zelan. Hilean behin, larunbat goizez, lau orduko saioak, baz-

karia eta bazkalostekoa. Maila akademikoko saioak edozein literaturazalerentzat ulergarri. Literaturaren unibertsitate popularra. Jakintzaren, esperientzien, iritzien etengabeko trukea. Bakoitzak zekiena gainontzekoekin konpartitzea nahi genuen, ordura arte hezkuntza arautuan literaturaz irakatsi zigutena murrizta edota arrotza zitzaigulako. Gure herrian, literaturaz asko dakien lagun asko dagoela uste genuelako. Lehen hiru truke-urteak (irailetik ekainera) Larrabetzun burutu genituen baina parte hartzaileak nondik zetozen oharturik, sarea ahalik eta gehien hedatzea helburu, laugarren ekinalditik aurrera Euskal Herriko hainbat bilgunetan antolatu genuen. Literaturarekin bizi genezakeenak liluratzen gaituen uste baino herrikide gehiago gaudela ohartu ginen, eta biribilketa horretan ikuspuntu, gogoeta, proposamen eta egitasmoen erauntsi batek astindu gintuen etengabe. 2007ko truke-urteko lehen eskolan Iñigo Aranbarri eta Anari bildu genituen honako gaia hausnartzeko: *Gure imajinarioa kantagintzaren bitartez*. Eskola horretan dago *Hitzen ahairea* honen sorburua. Eskerrik asko Anariri eta Iñigori, ez soilik eskola hartan erein zidatenagatik, ezpada ordutik literaturaz eta kantagintzaz plazaratu

dituzten iritzi ugari hausnarrean eta ikasten jarraitze-ko bazka eman didatelako.

Zein harreman du kantatzen dugunak gure izaera-ekin? Zenbateko eragina du entzuten dugunak gure diskurtsoan? Zeintzuk dira gure erreferenteak? Nork sortzen ditu? Zertarako? Zeri kantatzen genion euskaldunok XIX. mendean? Eta XX. mendean? Zergatik irauten dute kantu batzuek gure gogoan betiko iltzatuturik? Gure euskaltasunean zenbat zor diogu literaturaren eta musikaren lankidetzatik sortutako kantagintzari? Zergatik ez dugu kantatu emakumeek idatzitakorik? Zergatik konta litezke esku bateko atzamarrekin oholtzara igo ziren emakumeak? Eta lurraldetasunari dagokionez? Eta aberriaz? Zer da aberria kantuetatik at? Eta euskarari buruz? Inork kantatu ote dio bere hizkuntzari euskaldunok baino gehiago? Eta bihar, zeri kantatuko diogu bihar? Eta nola?

XXI. mendearen hasieran kulturgintzan aritzen ginen asko jada geure buruari galdetzen hasiak ginen kultura ez ote zen balioa galtzen ari. Alegia, 2008an irentsarazi ziguten krisi ekonomikoa ez ote zitzaien turbo-kapitalistei aitzakia paregabea suertatu kultura kanporatzeko ongizatearen jendartetik. Krisi ekonomikoak batzuk horren gogor kolpatzen dituelarik, kultu-

rak pertsonaren garapen integralerako ezinbestekoa izateari uztea ulergarria dela sinetsaraztea lortu zuten. Nork ez du ulertuko pertsonaren oinarritzko beharrianak ase behar direnean, kulturak ilararen azken-aurreko itxaron behar duela?

Ederto batean irentsarazi digute kultura ez dela inondik inora oinarritzko beharrian, kultura denbora-pasarako izan behar dela; ondo pasatzea helburu, fri-boloa, arina, mamibakoa izan behar dela, eguneroko arazo guztiak ahanzteko, bihotzean eta garunean azkurarik ez eragiteko. Hutsala izan behar baitu kulturak turbo-kapitalismoa bultzatzen duenarentzat, ongizatek errazago baztertu daitekeelako ezertarako balio ez ei duen kultura. Zertarako behar dugu ezertarako balio ez duena?

Idazle, musikari, aktore, dantzari, pintore eta beste hainbat sortzaile zein kulturgintzako eragileren arteko solasaldietan gero eta nabarmenagoa zen kezka: gero eta zale gutxiago ditugu, sortzeko zein erakusteko baldintzak gero eta kaskarragoak dira, egiten duguna ez dugu lortzen euskaldunengana ere helaraztea. Hezkuntza arautuan, ez-arautuan edota etxe giroko transmisioan, kulturarena ez dago bermatuta,

eten bat gertatu da, ez dugu euskaraz sortzeko grina-rik transmititzen. Zerbait asmatu beharko dugu.

Rafa Rueda musikariari eta bioi gaiaz berba egiten ari ginela atoan piztu zitzaigun garra; ahaleginduko gara menosten ari diren kultura guretzat zein garrantzitsua den konpartitzen? Zu idazlea eta musikazalea zara, ni musikaria eta literaturazalea, biak uztar ditza-kegu, Iñigo Aranbarrik eta Anarik Literatura Eskolan proposatu zigutenaren ildotik. Kantuen letren egileak aurkeztuko ditugu, testu horiek euren obran kokatu, garai historikoa aurkeztu, gertakari historikoek testua- rekin izan lezaketen harremana iradoki, musikariak testu hori zelan hautatu zuen azaldu eta bere disko- grafian kokatu. Eta kantatu egingo ditugu.

Eta nola egituratuko dugu? Zein izango da haria? Kronologikoa? Gaikakoa? Musika estiloari loturikoa? Eta galdera nagusia: zer adierazi asmo diegu ikus-en- tzungo digutenei? Idazleen eta musikarien artean sor- tutako kantagintzak sekulako garrantzia izan zuela batez ere 1960ko hamarkadatik mende amaiera arte euskaldunon sentitzeko, pentsatzeko eta izateko ma- neran; kantagintza horrek bilakaera izan duela, gaur egun ez diegula orduko gaiei kantatzen -edo kanta- tzen diegunean oso modu ezberdinean-, musika beste

era batera bizi dugula; kulturaren balio eta baloreak aldatu egin direla.

Literaturarekiko eta musikarekiko Rafa Ruedak eta biok dugun pasioa kutsatu gura genuen. Kantagintza atsegin hutsaetik beharrezkora itzularazten lagundu. Halaxe hasi ginen idazleen hitzak baliatutako kanta-gintza aztertu gura zuten saioak eskaintzen. Lau urte-tan Rafarekin burututako saioen prestaketek eta saio-etan parte hartutakoengandik ikasitakoek eragin diz-kiguten gogoetak dira liburura ekarri ditudanak.

Berriz azpimarratu gura nuke euskaldunon kanta-gintza liburu honetan erakutsiko duguna baino askoz oparo eta anitzagoa dela, hemen idazleen eta musika-rien elkarreraginetik sortutakoa baino ez dugula azter-gai. Horretarako itzelezko laguntza izan da Koldo Iza-girrek *XX. mendeko poesia kaierak* bildumako ale ba-koitzerako apailatu zuen *Diskografia* atala. Bertan, joan den mendean poeta bakoitzaren zein testu musi-katu ziren zerrendatu zuen Izagirrek, eta kantu horiek osatzen dute liburu honetako corpus nagusia. Corpus horretako kantu gehienen gai nagusiak erabat loturik ageri dira testuinguru politikora. Izan ere, liburua ira-kurrita balirudike euskaldunok aberriari, euskarari, lu-rraldeari, askatasunari, identitateari, borrokari eta en-

parauei baino ez diegula kantatu. Balirudike, Kau Kori Kura-koek salatzen duten eran (ikus liburu honetako atarikoa, Andoni Tolosa *Morau*-k idatzia), ez diegula maitasunari, pertsonen arteko era guztietako harremanei, naturari, denboraren joanari, gaztetasunari, telebistari edo eguneroko gauza txikiei kantatu. Kantatu diegu, bai, baina gure helburua ez da izan kantu guztiak banan-banan aztertzea. Gure helburua euskaldunon imajinarioan iltzaturik dauden kantuen eragitzeko gogoeta proposatzea izan da, eta kantuak hautatzerako orduan kanturako liburuxka gehienetan, kantu-lagunetan, kantu-jiretan, kantu-afarietan, bazkalosteetan... errepikatzen direnak edota gai honi buruz idatzi duten gainontzekoen liburuetan nabarmentzen direnak galbahetu ditugu. Beti ere, idazleen eta musikarien artean sortutakoak.

GENERO IKUSPEGITIK

XIX. mendeko azken laurdenetik XXI. mendera arte emakumeek idatzitako sano testu gutxi musikatu ditugu. Itxaro Borda da salbuespena. Mende berrian ere ez ditugu askoz gehiago. Liburu honetarako azter-

tu den kantagintza, ia-ia bere osoan, gizonek gizonen ikuspegitik gizonen idatzi eta kantatutakoa da. Emakumea, agertzen denean, subjektu pasiboa da, geldi dago, esperoan, negarrez, etxeko atarian, portuan zain, gizona gerratik noiz itzuliko, semea erbestetik noiz sorterriratu. Gizona da pertsona, generikoa, unibertsala. Idazleen eta musikarien arteko kantagintzan emakumea ikusezina da ia, mutua, gorra.

HERRI BATEN HISTORIA EZAGUTU DAITEKE BERE KANTAGINTZAREN BITARTEZ

Hastapenean, literaturaren eta musikaren transmisioan lagundu gura izan genien hezkuntza arautuan ari direnei. Zer aproposagorik idazleen eta musikarien arteko elkarreraginetik sortutako kantuak erabiltzea baino. Kantugile literaturazalea, idazle musikazalea, bata kantari, bestea kontari. Literatura eta musika landuko genituen, euskal sortzaileen lanen berri transmitituko genien. Haririk luze eta malguena kronologikoa izan zitekeela otu zitzaigun. Itxaro Bordari Baionan grabatu genion eran: herri baten historia bere kantagintzatik ere ikas daiteke.

Iraganetik gaur egunera, iraganetik etorkizunera begiratzea ebatzi genuen, garapen bat iradokitzeko, aldaketen gakoei buruzko galderak mahaigaineratzeko.

EZINBESTEKO ORALEKUAK

Lan hau ez nukeen burutuko honako oralekuei esker izan ez balitz:

- *armiarma.eus* euskal literaturaren ataria.
- *badok.eus* euskal musikaren ataria.

(Liburu honetako idazle eta musikari guztiak bi atariotan aurkituko dituzue, eta baita poema, letra eta doinu gehienak ere. Erreferentziazko bi webgune horiek barik, liburu honen emaitza zati-tiaz eskasagoa izango zatekeen).

- Koldo Izagirrek apailatutako *XX. mendeko poesia kaierak* bilduma. Eta bereziki, kaier bakoitzeko *Diskografia* atala. Orobat, bilduma aurkezteko idatzi zituen lau hitzaldiak.
- *Haiek zergatik deitzen diote Euskal Herria eta guk Ithaka? Euskaldunak eta katalanak*

zein bere nazioari kantari. Marc Biosca. Al-berdania, 2009.

- *Gure mendea.* Iñigo Aranbarri, Garbiñe Ubeda. Argia, 1999.
- *Euskal kantagintza berria.* Pako Aristi. Erein, 1985.

Ez da bibliografia, hori baizen gehiago da. Bibliografia aparte zerrendatuko dugu.

Liburu honetako material gehigarria (kantuen erreprodukzio zerrenda barne, hamabost ordutik gorako soinu-banda), honako web helbidean topatuko duzu: <http://susa-literatura.eus/liburuak/best24>

Galtzaile izatearen kontzientzia kolektiboa

Badirudi poetek barneratua dutela derrota kolektibo bat, alegoria ezberdinetan kantatzen dutena. Derrotaren kontzientzia honek ez garamatza, ordea, malkokeriara: poetak askatasun egarri handi batean kantatzen du, derrotatua baina biktimismorik gabe, eta gorazarre egiten dio eroriari, hari zuzentzen zaio, memorian jasotzen du, bere poesia ez baita lanturako, malkoa isuriko duen arren.

Koldo Izagirre, *Gure poeten malkoa* hitzaldia, 2000

Koldo Izagirrek *XX. mendeko poesia kaierak* aurkezteko prestatu zituen hitzaldietatik galbahetutako berbak dira aurreko horiek. Galtzaile izatearen kontzientzia kolektiboa. Zer esan nahi du horrek? Zer galdu dugu euskaldunok? Noiz galdu genuen? Senti-

mendu horrek, horrenbeste bideratu ditu gure idatzia-ziak? Horrenbeste baldintzatu ditu gure melodiak?

Galdera horien guztien atezuan irakurri eta kantatu ditugu hona ekarri ditugun abesti asko eta asko.

Irabazleak historialari egin ziren, galtzaileak poeta, irabazleak kazetari jardun ziren, galtzaileak kantari. Abiapuntua horren ezberdina delarik, helburuan zein ezberdintasun dago zapaltzailearen eta menostuaren kantaeraren artean?

BEHIN IRABAZI GENUEN

Gogoeta dezagun, bada, zelan kantatu dioten gure idazle eta musikariek Euskal Herriari. Hasteko, argigarria litekeen oharra: sortzaileak ez du historialariaren zein kazetariaren araurik, ez du artxibategiko dokumenturik behar, lekukoen testigantzak lagungarri zaizkio, ez derrigorrezko. Gertakari batek sentiarazten edo pentsarazten diona nahikoa du sormenerako. Ez du ezer frogatu beharrik.

Askatasun horretatik sortu ditugu gure herriaren historia ulertzeko ezin baliagarriagoak diren kantuak.

778. urtean, euskaldunok irabazi dugun bataila apurrenetakoetan gogoratuena gertatu zen Orreagan, Ibañetako haitzartean. Europako jaunik boteretsuena zen Karlomagnoaren atzeguardia txikitu eta haren iloba Errolan hil zuten. Gutxitan legez, irabazleena baino galtzaileen kantua da mendeetan iraun duena (*La chanson de Roland*); besteak beste, frankoek idatziz ere transmititu zutelako.

1835ean argitaratu zuten euskaraz *Altabizkarko kantua*, Garay de Monglavek frantsesez sortu eta Louis Duhaldek euskarari ekarria, Agosti Chahok *Chants navarrais* izenburutua. Orreagako garaipenak, inprimatu ez arren, ahoz aho iraun zuen, bistan denez. Biziraun, gaurdaino. Horra hor, besteak beste, Orreaga deritzon iritziz taldea, euskal politikagintzan eragiteko asmoz sortu zena. Euren blogean sartzen den edo-nork honako aldarriok irakurriko ditu: “Aurreko urteetan bezala, gure arbasoen balentria omendu nahi dugu oroipenaren bitartez, garaipen haren aparteko balio politikoa azpimarratuz”. Ildo bereko honako iritzia ere ororen begieran dago: “778ko abuztuaren 15ean Orreagako Batailan euskaldunok Karlomagnoaren gudaroste frankoa garaitu genuen, eta haren ondorengoak jipoitu genituen 824. urtean, berriro Orrea-

gako malkarretan. Gure herriak gure estatua sortu zuen hortik aurrera, eta antolamendu propio bati eman zion forma estatu horren estalpean, gure lege edo foruen bitartez” [kontsulta: 2017ko abuztua].

Xabier Diharce *Iratzeder*-ek gertakari historiko hura erabili zuen *Orreaga* poema idazteko. Iratzederren asmoa ez zen borrokaldiaren kronika hutsa egitea, ez zen historialaria, ez zuen ez daturik ez frogarik behar. Poetak, euskaldunon imajinarioan dirauen 778. urteko gertakaria ekarri zuen 1977ra euskaldunoi proposatzeko behinola European agintzen zuen enperadorearen atzeguardiari irabazteko gai izan baginen zergatik ez ote genuen mila eta berrehun urte geroago irabaziko frantsesekin eta espainolekin genuen gerra. “Orduan irabazi bagenuen, zergatik ez dugu gaur irabaziko?”, entzun genezake Iratzederren sakoneko asmoetan.

Eta zein zen bada, hiltzen gintuen gerra? Euskararen, kulturaren, lurraldearen, jainkoaren eta, ondorioz, identitatearen galeraren aurkakoa. 1960ko hamarkadara arte euskal identitatea hiru zutabetan sostengatzen baitzen: lurraldetasuna, hizkuntza eta fedea. Be-lokeko fraidea ere bazen poeta, eta hizkuntzarekiko

bereizezina zuen nazioaren alde hil edo bizi borrokatzearren egindako deia da *Orreaga* kantua:

Gizon libroak noiz ote dire Orreagatik jaliko?
Euskal gogoa noiz da jauziren arranoaren pareko?
Altxa burua, denek bat kanta: Euskal Gudua gaur aipa:
Entzunik zuen irrintzina, xutik jar dadin Europa!

Orreaga. Xabier Iratzeder, 1977 /
Benito Lertxundi, 1981

Nazien aurkako gerran hil zioten anaiaren heriotza eta Euskal Herriarena berarena samin handiegia ziren bihotz bakarrerako. Galtzen ari gara, baina irabaz genezake, diosku Iratzederrek. Galtzaileak gara baina negar egin baino borrokatu beste biderik ez dugu, bidean hilko bagaituzte ere. Martiritza aspaldikoa baita euskal poeten artean, zer esanik ez sotanapekoetan.

Iratzederren helburua argia da: irakurleari, entzuleari, jarrera aktiboa galdegiten dio: ezin duzu gora adi egon, zerbait egin behar duzu, jalgi eta borrokatu zaitez zure herriaren askatasunaren alde. Helburu horrek bideratzen du testua, helburu horrek zamatzen du tonua. Hau berau da idazleen eta musikarien arteko kantagintza honen beste ezaugarri nabarmenetako

bat XIX. mende amaieratik hasi eta XX. mendea bururatu arte. Aldarrirako da kantua, entzuleak lehen kolpean ulertu behar du, behin entzunda barneratu, bigarren edo hirugarren irakurketarik gabe. Buruz ikasteko, ahoz aho transmititzeko, belarriz belarri entzuteko, mezu zuzena behar du, ñabardura urrikoa, sujerentziatik baino ebidentziatik hurrago egongo dena. Helburua agerikoa da, letra zuzena. Iradokizunaren eta aginduaren muga lausoa da, baina kantuaren funtzioa, argia.

Benito Lertxundik euskaldunon imajinario kolektiborako epika berri bat proposatu aldera sortu zuen "Altabizkar / Itzaltzuko bardoari" diskoa 1981ean. Bertan, Euskal Herriaren historian nabarmendu diren hainbat gertakari ekarri zituen kantura, denak gudekin, borrokekin, heriotzekin, martiritzarekin, sakrifizioarekin lotuak, hala nola -arestian aipatutako *Altabizkarko kantuaz gain- Beotibar, Matalaz, Itzaltzuko bardo, Muñagorriren bertsoak* edota *Orreagako gatazka* zein *Orreaga* bera. Hemen dira bai aurretik bai gerora ere sarritan errepikatuko diren kontsignak:

- Herriaren alde bizia emateko prest egon behar dugu.

- Anaien artean ez dugu borrokatu behar.

Eta hor entzuten dira zaldunen garaietara garamatzaten espineta, gaita, flauta, xanbela, zarrabetea, danborra, dulzimerra, kromornoa, viola da gamba edota pianoa bera. Mendeetako borroketan isuritako odolaren soinu-banda dirudi, mitologia arturtarrarekin lotzen genuen fantasiazko sasoi oso aspaldiko bateko melodia. Herri baten historia ahantzarazia berreskuratzea da helburua, inoren aurrean makurtu ez den Euskal Herria kantatzea. Horixe da 1960tik mende berrira bitarteko gure epika berriaren zuztarra. Orreaga ezkerro galtzaileak gara baina ez dugu egundo etsi, eta ez dugu etsiko. Hor datza gure indarra. Beti gudan, elkarren aurka, kanpokoan aurka, baina beti gudan, zutik, makurtu gabe, gizonkeriatasunez.

Historia errepikatu egiten dela diotenei beti erantzuten diegu ez ote den zehatzagoa esatea arazo batzuk ez ditugula mendeetan konpontzen. Berbarako hizkuntzarena, berbarako lurraldearena, berbarako identitatearena.

MENDEETAKO ESKARIA

Gabriel Arestik bostehun urte lehenagoko gertakari historikoa erabili zuen bere sasoiko egoera bat salatzeko. Bere asmoa ez da kazetari kronika idaztea. Bost mendetan konpondu ez den gaitz bati sendabidea xerkatu behar zaiola aldarrikatzeko baliatuko du oinaztaren eta ganboarren artean bi mende eta erdiz luzatu zen gatazka: “Bostehun urtean egon / gara justizieske”.

Hizkuntzaren, lurraldearen eta fedearen garaipenean biziraun asmo zuen nazioari beste zutabe bat erantsi gura dio Arestik: klase borroka. Aberatsenen arteko borrokek ez dute etenik izan gure herrian; nagusien eta menpekoen artekoek, hain gutxi. Historialariak ahaltsuenen aldera izkiriatu dute beti, gezurra esan digute eta herriak badaki:

Burruka armatu batetan hiltzera doanak
bizitzea emateko, arrazoi gogorrak
atera behar ditu bere erraietatik,
bere hesteetatik. Kolore bategatik,
arrosa bategatik, hodei bategatik,
absurdu da hiltzea.

Gure historia kontatu digutenek

beti esan digute euskaldunok,
burruka armatuetan,
kolore bategatik, arrosa bategatik,
hodei bategatik, hil garela;
eta hori ez da egia, gerra guztietan
arrazoi sakonagoak egoten direlako
esate baterako gutxiren asean
eta askoren gosea.
Euskal Herrian ere
hala gertatu delako beti,
batzuek dirua dute eta gehienok izerdia.
Zergatik burrukatu zuten orain bostehun urte
Oinazek eta Ganboak?

Oinaz eta Ganboa. Gabriel Aresti, 1972

/ Oskorri, 1976

Idazlea lerratu egiten da eta harekin, baita musikaria ere. Zergatik kantatzen dituzte testuok bestela? Musikariak ez baititu normalean testuak ausaz hautatzen edota fonetikoki laketa zaizkiolako belarrira. Ez dago indiferentziarik, ez dago urruneko begiradarik. Kantua ausarki abesten duen herritarrak jakin behar-luke horrenbeste. Arestik eta Oskorrikoek horrexetarako sortu baitituzte hitza eta ahairea bertso mol-

dean, errimatua: entzuleak buruz errazago ikas ditzan. Melodiak, hasi eta buka, ez du aldaerarik, errepikatzen egiten da, behin eta berriz, barneratu arte.

GALTZEN JAKIN BEHAR DA

Estepan Urkiaga *Lauaxeta*-k, Iratzederren eta Arestiren antzera jokatu zuen. 1522an Nafarroako erresumaren deuseztatzea ekarri zuen bataila oroitarazi zuen 1930eko hamarkadan. Laurehun urteren ondoren Nafarroak, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak bat egiteko zuten ezintasunak eragiten zion saminarekin erkatu zuen gertaera historikoa:

Berreun gudari oso sumin
gaztelu-pian dagoz illik.
Ordutik ona -zenbat laño-,
Naparruan ezta aberirik.

Amayur gaztelu baltza. Lauaxeta, 1935 /
Antton Valverde, 1978 / Imanol, 1979 /
Hibai Rekondo, 1986 / Petti, 2005

Berrehun gudarik milaka batzuei aurre zelan egin zieten kantatzen du, sekuentziak, filma bailitzan fotogramak, adjektibazio bidez indartutako deskribapenari berebiziko garrantzia emanez. Mendeetan Europan zein Asian ausardiaren eta abertzaletasunaren eredu izan zen Termopiletako guduan espartarrek izandako jokabidea gogorarazten digu Lauaxetak Amaiurko setioari buruz kontatutakoak. Galdu bai, baina ez edozelan.

Antton Valverde 1978an disko oso baterako hautatu zituen Lauaxetaren *Azken oyua*, *Mendigoxaliarena*, *Itauna*, *Langille eraildu bati*, *Zelayan*, *Amayur gaztelu baltza* eta *Agur*, *Euzkadi* poemak. Ahotsa, pianoa eta biolinarekin ondu zuen dramatismo itzelezko disko indartsua, zaurgarria, epikoa, testuen hasierako barea eta berehalako ekaitza, *in crescendo*-a maisuki erdie-tsiz.

Goiz eder onetan erail bear nabe
txindor baten txintak gozotan naukela?
El naiten leyora begiok intz gabe.

Gorbei barna yatort kañoi-ots itzela:
or egazkin-egak odei-lapur doaz.
Guda-gotzon baltzak odolez dakustaz,

euren oin aurrean beredin gudari.
Gaste argi orreik, eutsi lur amari!
Bera baizen onik eztauko ludiak.

Azken oyua. Lauaxeta, 1937 /
Antton Valverde, 1978

Bestelakoa da Mungiako Udalaren enkarguz eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen eskutik, Rafa Rue-dak zuzendu eta hamaika abeslarik osatutako “Ehun-garrenear hamaika” diskoa, 2005ean plazaratutakoa. Abeslari bakoitzak poema bat hautatu zuen eta denen lagun zen rock banda berberarekin, nork bere esparru-ra eroan zuen, bere kantaerara. Halaxe dagi Pettik ere, *Amayur gaztelu baltza*-rekin. Valverdek sintetiza-dore eta pianoarekin girotzen duen bataila hotsa gita-rrekin lortzen du Pettik. Poemako pasarte bakoitzean kontatzen denaren arabera moldatutako egitura melo-diko landu eta konplexuari esker, ahotsaren indar eta samurtasunez erdiesten dute biek ala biek hunkitzea. Horixe baitzen Lauaxetaren helburua ere, Euskal Piz-kundea deritzon aroko Aitzolen mandatuari jarraiki, herritarren aberriarekiko, hizkuntzarekiko eta jainkoa-rekiko atxikimendua berreskuratzeke poemak idatzi zituenean. Petti beratarra “ordutik ona -zenbat laño-,

Naparruan ezta aberririk” erraiaetik kantari entzu-teak garaikide bihurtzen du Lauaxetaren ernegua. Abeslariak bat egiten du poetaren erneguearekin. Behi-nola galdu genuen aberria berreskuratu behar dugu. Borroka da bide bakarra.

Gure ustean, 1940ko hamarkadatik 1990ekora bi-tartean jaio ginen askok hizkuntza, lurraldetasuna, as-katasuna, aberria, borroka, justizia, klasea eta antze-ko kontzeptuei buruzko gure diskurtsoaren zatirik han-diena kantuetatik elikatu dugu. Idazleek eta musika-riek proposatzen zizkiguten irudiekin osatu dugu kon-tzeptu horiei buruzko gure imajinarioa, baita gure dis-kurtso politikoa bera ere. Berbarako, lurraldetasuna. Gaur pil-pilean dagoen eta etzi irakiten egongo den afera da Nafarroa, bai euskaldunontzat, bai Espainia-ko bai Frantziako estatuentzat. Zer da Nafarroa eus-kaldun batentzat?

Nafarroa, arragoa, argiaren pausaleku
haizearen ibiltoki zabal, hesirik gabea.
Nafarroa, arragoa, sua eta ura,
kondaira urratu baten oihartzun oihukatua,
amets bat baino gehiago, ez oparotasun osoa,
nahiaren eta ezinaren burrukatoki ekaitzez betea

Nafarroa, arragoa. Xabier Lete, 1974

Nafarroa, Nafarroa!
Gure etxeko abaroa.
Arranoa, arranoa!
Amarik gabe nora hoa?
Aralartik Irati
haritza eta pagoa.
Bera ere bi zati
eta josirik ahoa.
Arranoa, Nafarroa!
Etixerik gabe nora hoa?

Nafarroa. Xabier Amuriza / Oskorri, 1982

Nafarroa Euskal Herria ez eze, kondairaren lehen zuztarra, zazpietan lehena dela bulartsu defendatzeko argudioak eman dizkigu kantagintzak. Sentitu egiten genuen kantatzen genuena, barneratu egiten genuen. Eztabaida politikorako nahikoa.

Pamiela argitaletxeak argitaratu berri du Eneko Bidegainen *Lurraldea eta herria* saiakera. Bertan, XXI. mendera arteko idazleen eta musikarien elkarreraginetik sortutako kantagintzan azkengabe errepikatzen diren kantagai batzuen funtsaz dihardu:

Identitate nazionalaren oinarritzko osagaia da lurraldetasuna, [...] lur bati lotuta zaion historia edo oroitzapena ezinbestekoa da frogatzeko lur horretan herri bat badagoela, bere identitatearekin.

[...] Halaber, lurralde batean leku historikoak eta sinbolikoak ere badaude; edo beste gisa batera errateko, leku historikoek ere lotzen dute lurralde bat nazio identitatearekin, oroimen leku horiek erabiltzen baitira frogatzat lurralde horiek izaera propioa dutela baieztatzeko, okupatua izan ala ez.

[...] Lurraldetasuna funtsezkoa da, beraz, identitate bat bizirik mantendu nahi bada. Nazioen identitatea dator ingurune natural eta kulturaletik, eta horretarako, nazioek behar dute beren lurraldearen gaineko burujabetza politikoa, burujabetzak ematen duelako ahalmena nazio identitatea babesteko eta lantzeko.

Eneko Bidegain, *Lurraldea eta herria*.

Pamiela, 2018

Kantatua izateko

Bizi daitekeen tragediarik handienetakoa egokitu zitzaion Martin Larralde *Bordaxuri*-ri. Hurrekoenen traizioa, ustez maite zaituztenek eragindako heriotza. Aitak, ahizpak eta anaiak saldu zuten Martin Larralde, besteak beste, galeretan hil zedin. Plumagaina base-riko premu izaki, zegozkion ondasunak eskatu zizkion aitari. Honek, oster, premutzarako beste bat hobesten zuelako, aipatu etxekoen laguntzarekin, segada prestatu eta morroi zutenaren hilketa leporatu zioten. Rocheforteko kartzelan hil zen Bordaxuri, berrogei urteak betetzeke. Hala kontatzen du, bederen, iritsi zai-gun istorioak. Gertatu zitzaionari buruzko bertso sortak bide luzea egin du euskaldunen artean. Piarres Larzabal apaiz eta idazleak -zeinaren antzerkigintzari buruzko ikerketa guztiz gomendagarria argitaratua duen Ixabel Etxeberriak (Euskaltzaindia, 2016)-, *Bordaxuri* izeneko antzezlanak apailatu zuen, 1962an. Kalapita handiak sortu zituen antzeztua izan zen herrietan, etxekoen traizioaz gain, elizaren eta eliztarren hi-

pokrisia, faltzakeria, zurikeria eta bestelako keria bartzuk salatzen baitzituen obrak.

Pantxoa eta Peiok egin zuten ezagun Martin Larralderen tragedia 1975ean *Galerianoaren kantua* izenburuarekin “Ospital-Carrere” deritzon diskoan plazaratu ostean. Bi doinu nahasten dira kantuan, bata hitsiluna, bestea adoretsua, aldarte bi horiek antzematen baitira Bordaxuriren kontaketan, tristezia eta kuraia.

Guri, oster, sortako azken biak interesatzen zaizkigu. Berorietan, hain zuzen ere, bere tragedia kontatzeari zertarako bat atxikitzen dio Bordaxurik. Zertarako kontatu, zertarako kantatu.

Kantu hauek eman ditut Paube-ko hirian,
Burdinez kargaturik, oi! presondegian;
Bai eta kopiatu denbora berian,
Orok kanta ditzaten Hazparne herrian.

Hok eman izan ditut ez xangrinatzeko;
Ahaidek, adixkidek, kuraie hartzeko,
Eta partikulazki, aita, zuretaiko,
Kantuok aditzean, semeaz oroitzeko.

Galerianoaren kantua. Bordaxuri, XIX. mendea /
Pantxoa eta Peio, 1975

Joseba Sarrionandiak Bordaxuriri gertatutakoa hartu zuen aitzakia *Marinel zaharrak* liburuan *Martin Larralde* izeneko poema taxutzeko. Ordurako Sarri-
nandiak ederto batean ezagutzen zuen ahozko zein idatzizko euskal literatura, zaharrena zein modernoe-
na. Ezagutzen zuen gure historiako makina bat gerta-
kari, ezagutzen zituen protagonistak. Eta Martin La-
rralde aukeratu zuen idazlearen egitekoari buruzko
bere ustea poema bidez agerrarazteko.

Ruper Ordorikak kantu bihurtu zuen Sarrionandia-
ren poema, bere zuzeneko errepertoriotik publikoak
estimatuenetakoa. Zuzeneko emanaldietan Ordorikak
honela laburbiltzen du poemaren muina: egunerokoak
ahantzarazi egiten digu urrun dagoena.

Guri, Ordorikaren gogorapenaz gain, testuak ho-
nako eskaria ere badakarrela iruditzen zaigu: kontatu-
ko badugu, konta dezagun dena. Konta dezagun ondo
egin duguna zein txarto egindakoa. Kanta ditzagun
garaipenak, kanta ditzagun tragediak. Kanta ditzagun
poz eta minik sakonenak eragin dizkigutenak. Hori
proposatzeko erabili zituen Sarrionandiak bere burua-
ri min ematen dion arrosaren irudia: “arantzak barru-
rantza itzuliak lituzkeen arrosak legez”. Eta Ordorikak,

idazlearen baimenarekin, bere buruari min emango liokeen kirikolatzaren antzera: “arantzak barrurantz itzuliak lituzkeen sagarroiak lez”.

Antzeko zenbat tragedia ez ote dira lotsaizunez isilpean gorde. Ostera, Bordaxuriren guraria da bere herrikideek bertsoak elkarri kantatuz jakin dezatela zer gertatu zitzaion, gera zedin herriaren gogoan iltzatuturik izugarrikeria hura, bere etxearen izen ona betiko zikinduko bazen ere. Koblakariak eskatu zituen Martin Larralde, ahanzturaren kontrako konbatienteak. Galde bera ulertzen diogu Joseba Sarrionandiari ironikoki dioenean:

Inork ere ez du
(dena ohitura, dena errua, dena barkamena)
oroimenaren
korapiloa deslotzen. Inork ere ez du
koblakaririk behar...

Martin Larralde. Joseba Sarrionandia, 1987 /
Ruper Ordorika, 1998

2018an, borroka latza eragiten ari da gure iragan hurbilean gertatu denari buruzko kontakizun edo erre-latoa, eta berorrekin bete-betean dator Sarrionandiak

1987an argitaratu zuen poema. Kontatu behar badugu, kanta dezagun dena.

KOBLAKARIAK BEHAR DITUGU

Jose Mari Iparragirre da gehien kantatu den gure poetetako bat. Haren bizitza eta obra ikertu duten gehienek nabarmentzen dute Iparragirrek ondo baino hobeto asmatu zuela garaikide zituen euskaldunek sentitzen zutena kantu bidez azaltzen. Foruak galdu-ta, etsipena zelarik nagusi euskaldunen artean, Iparragirre euskal nortasun jakin baten gorazarrearen bitartez ahalegindu zen herrikide eta gogaide zituenen adorea berpizten: hizkuntza, lurraldea eta fede kristaua. Esana dugu, hiru ezaugarri horiek zituen identitateari idatzi eta kantatuko zioten euskal idazleek eta musikariek XIX. mendeko erdialdetik 1960ko hamarkadara bitartean. Engoitik, lan gatazkek edota arlo askotako gatazka sozialek ere ezaugarrituko dute euskal identitate berria. Nazio borrokak eta klase borrokak bat egingen dute, gero ikusiko dugunez.

Iparragirrek sortu zuen *Gernikako arbola*, euskaldunon imajinario kolektiboan burujabetzaren eta bata-

sunaren ikurtzat hartu den kantua. Orixek zioenez kalitatez ez ziren letra onak Iparragirrerena, baina atoan lortzen zuten herritarren nahi eta ezinekin bat egitea. Iparragirre herriarekin sinkronizatuta zegoen, frekuentzia berbera sintonizatzen zuten. Herriz herri, Euskal Herrian, Frantzian, Espainian, Italian, Argentinan zein Uruguain barna, kantatzen zuenetik bizitzen ahalegindu zen eta hautu horrek, behin baino gehiagotan, benetan pentsatzen eta sentitzen ez zuena kantatzera ere eraman zuen. Inoiz enkarguz ere sortu baitzuen orduan Iparragirrek egungo idazleotako askok sortzen dugun eran, diru behar hutsez, gure gogoz kontra? Pentsatzen dugunari traizio eginez?

Iparragirrek kantari profesionala izan gura du:

Gitarra zartxo bat da
neretzat laguna;
onela ibiltzen da
artista euskalduna:
Egun batean pobre,
beste batez jauna,
kantari pasatzen det
nik beti eguna.

Kantari euskalduna (Gitarra zartxo bat).

Jose Mari Iparragirre, XIX. mendea /

Kontrapuntoak, 1963 /

Patxi Andion, 1973 / Beñat Axiari, 1981 /

Gontzal Mendibil, 1992 / Oskorri, 1999

Bere helburua kantatzetik bizitzea da eta horretarako jende askoren gustuko izan behar du kantatzen denak eta jende askoren gustuko izateko edertasuna eta erraztasuna uztartzea da gakoa. Entzuleak lehenengoan uler dezala zeri kantatzen diozun, bitan entzunda gogora dezala melodia, ulergaitza den kantak entzuleak urriago baititu.

Euskaldunon aberriaren eta batasunaren sinbolo nagusitzat dugun *Gernikako arbola* sortu zuenarentzat Euskal Herria lau herrialdek osatzen zuten: Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak eta Nafarroak. Laurak ere Espainiako lurraldearen ohoragarri.

Endaian nago zoraturikan

Zabal zabalik begiak

Ara España... lur oberikan

Ez du Europa guziak.

[...] Oh, Euskalerra eder maitea

Ara emen zure semea
Bere lurrari muñ egitera
Beste gabe etorria.

Zuregatikan emango nuke
Pozik, bai biziya
Beti zuretzat il arteraño
Gorputz eta anima guzia.

Nere etorrera lur maitera (Ara nun diran).

Jose Mari Iparragirre, XIX. mendea /
Patxi Andion, 1973 / Imanol, 1981 /
Urko, 1986 / Gontzal Mendibil, 1992 /
Oskorri, 1999 / Beñat Axiari, 2001

Iparragirrerentzat, beraz, European ez dago Espainiaren parekorik. Beste kantu batean (*Agur Euskalerriari*), aldiz, bihotzak diotso munduko lekurik ederrena Euskal Herria dela. Karliten bandoan aritu zen Iparragirre zertzat genuke gaur egun, abertzale konstituzionalistatzat?

2018an konpondu barik dugun lurraldetasunari buruzko eztabaida aspaldikoa da gurean. Idazleen eta musikarien arteko elkarreraginetik sortutako kantagintzari dagokionez, XIX. mendeko bigarren erditik aurre-

ra nabarmentzen da desadostasun hori. Gratien Adema *Zaldubi*-k zazpi probintzia atxikitzen zizkion Euskal Herriari. Iparragirreraren antzera Pedro Mari Otaño-k ere *Laurak bat* kantatu zuen garai batean, baina Zaldubiren proposamena bere egin zuen ondoren. Xenpelarrek hiru zirela kantatzen zuen. Felipe Arrese Beitiak euskaldunak zazpi lurraldetan bizi direla zioen eta Hego Euskal Herriko laurek bat egin behar zutela foruek bermatzen zizkiguten eskubideen defentsan. Kosta egiten zaigu euskaldunoi ados jartzea antza, edo, Iñigo Aranbarrik idatzi legez, “badirudi elkarrekin bizitzeko sortu ez den herri bat dela euskaldunena”.

Zazpi Eskualherriek bat egin dezagun
Guziak bethi, bethi, gauden gu Eskualdun.

Agur eta ohore Eskualherriari:
Lapurdi, Basa-Nabar, Zibero gainari;
Bizkai, Nabar, Gipuzko, eta Alabari.
Zazpiak bat besarka lot beitetz elgarri

Gauden gu eskualdun (Agur Euskal Herriari).
Zaldubi, 1893 / Urko, 1977 / Oskorri, 2004

Gu gera iru probintzi,
lengo legerik ez utzi:
oieri firme eutsi,
naiz anka bana autsi
jaioko dira berriyak,
gu gera euskal-erriyak!

Iya guriak egin du. Xenpelar, XIX. mendea /
Antton Valverde, 1970 /
Imuntzo eta Epelarre, 1988 /
Amaia Zubiria, 1990 / Xabier Lete, 2001 /
Oskorri, 2004 / Karidadeko Benta, 2004

Eneko Bidegainek aipamen zuzena degio korapilo
honi:

Zaldubiren 1893ko ekarpenak erro sakonak egin zituen. Donibane Lohizunen euskal tradizioaren jaialdia antolatu zuten 1894an eta 1897an. Han agertu ziren Euskal Herriko armarriak. Herri hartako auzapez Alberto Goihenetxek *Zazpiak bat* aldarrikatu zuen, ozen. Herri hartako bikarioak ere ohartarazi zuen euskaldun guztiek herri bakar bat osatzen dutela. Zabaltzak (historialaria) azpimarratzen duen gisan, besta hartan ohartu zen Sabino Arana Goiri *Zazpiak bat* leloaz.

[...] XIX. mendetik goiti zabaldu eta errotu zen Euskal Herriaren batasunaren aldeko jarrera. Zazpiak bat leloak ordezkaturiko zituen Hirurak bat eta Laurak bat.

Eneko Bidegain, *Lurraldea eta herria*.

Pamiela, 2018

Karlista zein liberal izan (Xenpelar liberala zen baina *Iya guriak egin du* sortako azken bertsoan foruak gordezale ageri da) euskara, Euskal Herria eta Jaungoikoa dira euskaldun egiten gaituztenak. Foruak dira ezaugarri guztiok biltzen, gordetzen eta iraunarazten dituztenak. Foruen galerak euskal identitatearen galera dakar garaiko idazle eta bertsolarientzat.

1. artikulua. Espainiar guztiei ezarri eta betearaziko zaizkie, legeak hala agintzen dienean, soldadutza egitera joatearekin eta estatuaren gastuetan nork bere ondasunen arabera laguntzearekin lotuta Konstituzio politikoak aitortzen dituen betebeharrak; tartean, baita Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako herritarrei ere.

Euskal foruak abolitzeko dekretua, 1876

Nola ekidin galera? Zelan iraunarazi galtzeko zorian datekeena? Borrokarako deia eginez eta anaien artean ez borrokatzea funtsezkoa dela ohartaraziz. Ideia horiek XX. mendera arteko hainbat kantutan agertuko dira, modu iraunkorrean. Ostera, anaiak gizonak dira eta gizonak bere indarra inposatu behar du, gizona izango bada, gizonak beti agertu behar baitu inor baino ahaltsuago, sendoago, suharrago. Lurraldearen batasunerako eta euskararen biziraupenerako gakotzat kantatu diogu anaien arteko bakeari.

Alkar gaitezen anai maiteak
alkartzea da indarra.

Bilbao eta fueruak, pakearentzat.

Jose Mari Iparragirre, XIX. mendea / Oskorri, 1999

Gaitzak gerade umiltzen
eta pakean unitzen
ez da errez ibiltzen
anaiak elkar hiltzen
zer den entenditu gabe
ortan galduko gerade.

Iya guriak egin du. Xenpelar, XIX. mendea /
Antton Valverde, 1970 /
Imuntzo eta Epelarre, 1988 /
Amaia Zubiria, 1990 / Xabier Lete, 2001 /
Oskorri, 2004 / Karidadeko Benta, 2004

Erdal-itsaso iresle hortan galduak zaizten anaiak,
Euskal-Eguna baitugu egun zueri agur nasaiak.
Euskal-anaiak, altxa burua, bota irrintzin alaiak!
Ari zaizkigu oldarka sartzen uhainak eta hedoiak,
Bainan Euskaldun atxik gaitzala Euskara gure min-
tzaiak.

Euskal anaiak. Iratzeder, 1948 /
Txomin Artola, 1988

Guztiok gara euskaldun, guztiok anaiak gara.

Bagare. Bittor Kapanaga /
Gontzal Mendibil eta Xeberri, 1976 /
Etsaiak, 1997 / Nahixan, 2011 /
The Sparteens, 2011 / Kerobia, 2015

Har makila eskuan
Eta lotu etsaiari!
Anaien aurka ez habila!

Batasuna. Telesforo Monzon /
Pantxoa eta Peio, 1975

Lurraldetasunaren eta eskubideen inguruko afera gerra karlistetan gorpuztu zen eta duela gutxi arte ezezagun zitzaigun karlistadei buruzko kantutegiak asko lagundu digu gerra haiek ulertzen. Joseba Tapiak bildu zituen karlistek eta liberalek idatzi zituztenak “Eta tira eta tunba” deritzon diskoan. Bertarako zein zuzeneko aurkezpenetarako, bi banda izan zituen kantu-lagun, haizezko instrumentuekin osatutako bi talde. Banda batek karlisten testuak jotzen zituen, besteak liberalenak, biek ala biek, militarren bandak gogorarazten dizkiguten doinueta. Batzuen zein beste bertsuetan nabarmentzen denez, anaiak dira elkarren aurka borrokan ari direnak. Ostera, lehen irakurraldian bertan igar liteke elkar gorroto dutela. Euskaraz ari dira elkarren aurka, euskaraz berotzen dute giroa horren serio ezen gerran hasiko baitira. Aurrez oinaztarrek eta ganboarrek, agaramontarrek eta beaumontarrek egin zuten antzera. Gerora Francoren aldekoek eta eusko gudarostekoek elkar hilko zuten

eran. Bitasun santua gurea. Beti gutxienez bitan zati-tuta, beti deman.

“Eta tira eta tunba” diskoko 22 kantuetatik bakar-rak dakar egile ezaguna. Gainontzekoak anonimoak dira. Zergatik baina? Sasoi berean izendun makina bat bertso sorta erabili zen eskutik eskura, inprimaturik, herririk herri. Zergatik hauek ez? Idatzi zutenak ekarri-ko liekeen erantzunaren beldurrez ezkutatu ziren ano-nimotasunean?

Gu lapurrak gerala
kalean diote;
infame traidoreak,
gezurra diote,
gezurra diote ta
pagatuko dute.

Azpeitiko neskatxak. Anonimoa, XIX. mendea /
Joseba Tapia, 2010

Sua, bai, euskaldunak, sua Luziferri;
etzaitezela izan horren errukarri;
beltzak ekarri zuten horixen txit larri,
gera, mutillak, gerra jende faltso harri.

Ea bada abiya, gipuzkoatarrak,
zuekin datoz Bizkai eta arabarrak;
batutzen dira ere txit gogoz nafarrak,
kentzeko Españatik betiko negarrak.

Libra zagun, mutillak, España lepratik,
harturik hontarako fusillak bertatik;
ekarriko dizkigu pakiak gerratik,
poztutzen dala oso mundua gugatik.

Himno patriótico para los voluntarios..

. Anonimoa, 1869 /

Joseba Tapia, 2010

Pio Barojaren aita Serafin Baroja ausartu zen bere izena agerrarazten. Goien graduan eskolatua izaki begirunez idaztea auresuposatzen zitzaion idazleak darrabilen irain eta gaitzespen xedeak, bi bandoetako euskaldunen artean zegoen herraren zantzoak darrarkizkigu. Zergatik idatzi zuen bestela horren maltzurki zintzoro egiten bazekienak?

Arbol zaharraren sustrai galduak
ez dik emango zumua,
tximinirako nahiz izan ona
ukatuko dik frutua;

Karlos bezela lizundutua
zegok bere partidua.

Zazpi sakristau, hamabi alper,
hogei basarritar babo,
Jauregi buru, Santa Kruz gero,
azkenik berriz Otxabo,
erlijiyua aitatu ezkeru
basarritarrak akabo!

Karlistaren panparroikeria.

Serafin Baroja, 1874 /

Joseba Tapia, 2010

“Eta tira eta tunba” diskoa errenkadan osorik entzunez gero karlistek eta liberalek elkarri aurpegiratzten dizkiotenak uler daitezke, eztabaida ezin sutsuagoa irudikatuz, giro itogarria antzemanenez. Ez batzuek ez besteek erakusten dute asmorik ezer adosteko, ez dute argudio sorta mamitsuen bitartez eztabaida errespetuzkoa sustatzeko gogorik. Iraintzea, gutxiestea, mintzea da helburua. Hiltzeraino, beharrezkoa bada.

Biba Karlos septimo
eta Margarita,
Españan agintzeko
zer pare polita!

*Eta tira eta tunba
eta tira beltzari,
eta tira eta tunba
eta tira beltzari.*

Eta tira eta tunba.
Anonimoa, XIX. mendea /
Joseba Tapia, 2010

Disko honi esker irudika dezakegu euskaldunen arteko harremanak zeinen gaiztotuak zeuden. Joseba Tapiak koblakarien eran kantatu zituen herriz herri zuzeneko emanaldietan. Aspaldiko koblakariak zein modernoek kantatu diguten Euskal Herria modu batekoa da, historia liburuetan edo hedabide ia guztietan kontatu digutenaren oso bestelakoa. Koblakariak behar ditugu, bai, ezinbestean.

Karlisten eta liberalen ezinikusia eta gizarte giroa erakusten diguten kantuak duela gutxi ezagutu ditugula azaldu dugu. Beste horrenbeste esan genezake

osteko errepublika sasoiari buruzkoez. Oraingoan ere, bertso moldean irakurri eta kantatu ditzakegu Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan gertatu zirenak. Joseba Tapiari berari eta Joxan Elosegiri esker ezagutu genuen Joxe Mari Lopetegi (Irun, 1975 - Arrueta, 1952), posizio errepublikazalean engaiatu zen bertsolaria.

Bertsolari politikoa izan zen Joxe Mari Lopetegi, bere ideologia eta xede politikoen zerbitzuan ipini zituen bertsotarako dohain eta ahal guztiak, eta ez ziren, zinez, gutxi. Bereak eta bost eraman behar izan zituen Lopetegi zintzoak bizi izan zituen urte zailetan, eta bat egingo du nekerik gabe harekin bertsoak irakurriko dizkion pertsona sano orok. Zer dela eta baztertu dute bertsolarien historiatic? Zer dela eta dirau betiere bere sorterrian aintzat hartu gabe? Ez zen karlisten edo jeltkideen aldekoa...

[...] Bertsolaria izan zen Joxe Mari Lopetegi, ona gainera, erruz kantatu zuen plaza politikoan, eta bertsoak idatzi zituen egiteko politikoak hala eskatu zion aldiro. Hala eskatzen zion euskalduntasunak. Zenbat ezagutu ditugu horrelakoak Euskal Herrian?

Joxan Elozegi, "Ohar batzuk haren bizitzari eta
bertso-lanari buruz"
in *Joxe Mari Lopetegi, errepublikanoen
bertsolaria*. Paper hotsak, 2004

Erantzuten gaitza den beste galdera bat sortzen digu Joxan Elozegik: zergatik irauten dute kantu batzuek gure imajinario kolektiboan beste batzuk erabat ahanzten ditugun bitartean? Zerk bihurtzen du kantu bat betiko? Badu zerikusirik kantagaiak? Eta sortzailea zein den eta zein bandotan dagoen? Ideologiaren galbahetik iragazita iraunarazi ditugu idazle eta kanta-riak?

Joxan Elozegik badu erantzunerako bidezidorrik:

Kaletarra zen Lopetegi, egungo bertsolari gehienak bezala, ez baserritarra, eta apaizik gabe, gizarte duin batean ametsean bizi izan zen. Hori ote da isiltze horren arrazoia? Nekez aurkitu da historian zehar, Joxe Mari Lopetegi bezala bertsoen birtartez kausa politiko bati horren gartsurik atxiki zaion bertsolaririk, eta haren bertso jardunean gorabeherak nabariak diren arren, "txarrik ezean ez dago bertso onik", liburuak egin zaizkion asko

baino bertsolari hobea izan zela esango genuke
beldurrik gabe.

Joxan Elozegi, "Ohar batzuk haren bizitzari eta
bertso-lanari buruz"

in *Joxe Mari Lopetegi, errepublikanoen
bertsolaria*. Paper hotsak, 2004

Plazaz plaza aritu zen Lopetegi errepublikaren al-
deko mitinetan bertsolari. Ez zitzaizkien plaza guztiak
samur gertatu, Joseba Tapiak "Real Politik" diskorako
musikatu zuen *Askatasunaz* kantuan antzeman daite-
keenez. Errepublikaren balio eta baloreak aldarrika-
tzeko Azpeitira joan eta ozta-ozta libratu ei zuten
bizia.

Mila baziran lau zatitzeko
ez al da lotsa euskalduna
atzerrietan ai zer fama guk
ekusi behar deguna
hau al da lege erlijuiak
erakutsitzen dizuna?
Modu horretan baldin badabil
maltzurtzar bihotz-astuna
bide hortatik ez da etorko
Euskadin Askatasuna.

Askatasunaz. Joxe Mari Lopetegi, 1931 /
Joseba Tapia, 2006

1931ko ekainean gaude, Espainiako II. Errepublika osatzeko hauteskunde kanpaina bete-betean, Joxe Mari Lopetegi errepublikaren aldeko mitinetan dabil bertsotan. Foruak abolitu zituztenetik mende erdia joan da. Jeltzaleek, sozialistek, komunistek eta anarkistek elkar jipoitzen zuten, ez da karlisten eta liberalen arteko gorrotoa gainditu, etsaitasunak bere horretan darrai. Inork ez du ez barkamenik, ez damurik erakusten. Bere garaiko gertakariei buruzko bertso sortak idazten zituenak asmo jakin bat zuen: entzuleak bertsook gogoan gorde eta kanta zitzala, ahal zela bertsolariaren mezuarekin bat eginez. Bertsoen moldeak hautatu zuten idazleak jakitun ziren bertsopaperak erruz saltzen zirena, buruz ikasi, kantatu eta transmituko zirela egunez egun, urtez urte eta, batek daki, akaso mendez mende ere.

Kazetarien lana egin zuen askotan bertsolariak. Garaiko pentsaera zein bizimoldea irudikatzeko kronika paregabeak dira kantu-liburuetara ekarri ditugun asko, Lopetegirenak, Xenpelarrenak, Txirritarenak.

Urte gutxiaren buruan kolpe militar bati erantzun beharrak aurreikusi ezinezko maneran elkartuko ditu atzo arte elkar ikusi ere ezin zuten euskaldunak. Hala-ber, kolpe faxista horren ondorioz, abertzale askok, kolpisten alde egin zuten. Anaien artean borrokatzea zentzugabea dela errepikatuko dute poeta, bertsolari zein politikariek. Alferrik, ordea.

GERRA BATASUN NAZIONALERAKO

Bitartean, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa-ko 18 eta 45 urte bitarteko gizonezkoak Frantziaren alde bizitza ematera deitu zituzten 1914tik 1918ra luzatu zen Lehen Mundu Gerran. Gutxienez 6.000 euskaldun hil ziren. Estatuak derrigortuta ez eze, *Eskualduna* astekariko apaizek eta euren ingurukoek hauspotuta joan ziren eskuara baizik ez zekiten haiek. Euskaraz arrazoitzen zuten apaizek bizia Frantziaren alde eman beharra. Peio Etxeberri Aintziartek zein Eneko Bidegainek erakutsi digutenez, Euskal Herriko hiru lurraldeok zinez frantsestu zituen gerrak. Iraultzak baino eragin handiagoa izan zuen Frantziaren batasun nazionala errotzeko eta Euskal Herria zatikatzeko or-

duan. *Lehen Mundu Gerra eta Euskal Herria* liburuan (Elkar, 2014) Jean Barbier edota Oxobi idazleen bertso batzuk jasotzen ditu Eneko Bidegainek baina, guk dakigula, ezelako doinugilek ez zituen kantu bihurtu, ahoz aho, herriz herri zabaltu zitezten. Horrenbeste hildako eragin zituen guda hari buruz, euskal naziogintzarentzat horrenbesteko atzerapausoa ekarri zuen gatazkatar hari buruz, Gorka Knorrek 1975eko “Nik nahi dudana” diskoan plazaratu zuen *Azken agurraren negarra* gogoratzen dugu. Deus guti besterik.

Nora zoaz, eskual semea,
harma hori eskutan?
Harmen hartzera deitzen naute
frantsen aldera.
Harmen hartzera deitzen naute
frantsen aldera.
Eskualerritik urrunduz,
ta atzerrira joanak,
a ze negarra entzunen duzu
Eskualerrietan!
a ze negarra entzunen duzu
Eskualerrietan!
Morts pour la patrie,
morts pour la patrie,

eskuara baizik etzakiten haiek,
morts pour la patrie.

Azken agurraren negarra. Gorka Knorr, 1975

Beste horrenbeste esan genezake 1954tik 1962ra arteko Aljeriako independentzia gerrari buruz. Prosan badugu non ibili, besteak beste hor ditugu Txomin Peillen *Aldjezairia askatuta* (Hordago, 1982), Xipri Arbelbideren *Euskaldunak Aljerian* (Elkar, 2003) edota Jean Louis Davanten *Aljeriaz* (Maiatz, 2014). Manex Pagolaren beraren lekukotasunari esker dakigu *Azken dantza*, bere hitzez eta doinuz sortu baina Pantxoa eta Peiok famatua, derrigorrezko soldadutzara Aljeriara joan aitzin maiteari eta, bide batez, Euskal Herriari egindako kantua dela. Maitearen eta Euskal Herriaren galerak dakarkion minaren balada.

Azken dantza hau
maitia zurekin
nahi zinduzket
eraman nerekin.
Baina gaurko xedia
ezin daike betia
badakit nik ere

bihar dela joaitia
Bego pena hau
itzuliren naiz
bai berriz Euskal Herrira.
Bego urte hau
etorriko naiz
betikotz zure ondora.

Azken dantza. Manex Pagola, 1972 /
Pantxo eta Peio, 1975 /
Erramun Martikorena, 1997

POESIAREN HUTSA

1930. urtean Euskaltzaleak elkarteak I. Olerti Eguna antolatu zuen Erreterian. Joxe Ariztimuño *Aitzol*-ek ondo zekien zertarako. Hiltzen ari zen euskal gogoa, gure Volksgeist edo berezko arima, berpiztu beharra zegoen Euzkadik biziraungo bazuen.

Zer da, baina, euskal gogoa? Iratzederrek eta Benito Lertxundik Orreagako gudua irabaztearekin lotu zuten “Euskal gogoa noiz da jauziren arranoaren pareko” hura? Xalbadorren eleekin Anje Duhaldek sortutako *Ama Euskal Herria* kantuko odolaren mintzoa?

Delikatua baitut egungo sujeta,
hasi aintzin egin dat zonbait gogoeta,
gure arteko asko ele entzun eta,
euskaldun agertzea ez baita josteta.

Ama Euskal-Herriaz naiz naigabetua,
uzterat doalakotz betikotz mundua,
bere seme alabez abandonatua;
nork barka dezaguke gure bekatua?

Badakit askoz ere nukela hobia
nehorri ez agertu ene dolarea;
odolaren mintzoa eduki gordea
nahiko nuke, bainan ezin dut ordea.

*Ama Euskal Herria. Xalbador, 1973 /
Anje Duhalde, 1987 / Xabier Lete, 2001*

Joxe Azurmendik luze gogoetatu zuen herrien be-
rezko izaera bereizgarri omen denaz *Volksgeist* - *Herri*
gogoa saiakeran:

Ezagunki, Humboldték, hizkuntzak mundu-ikus-
kera bat biltzen duela esaten zuen; eta, beraz,
herri gogo bat osatzen bide duela: beraz, hizkun-

tzak nazioarekin eta nazioak hizkuntzarekin, biek
-Volksgeist- bat mamitzen dutela.

[...] Ezaguna da, orobat, kontzeptuak metaforatik ernetzen direla, esan zuela jada Heideggerrek (eta geroago Nietzschek eta lehenago Voltairek...). Gerta liteke, beraz, zientzian kontzeptua jada desbaliatua egonik ere, metaforak baliagarri eta eder izaten jarraitzea. Esaterako, herriaren izpiritua hizkuntza dela; euskara dela Euskal Herriaren arima, euskal herri gogoa. Zergatik ez? Metafora bikaina da. Kontua da, hori esaten dugunean, zer esaten dugun jakitea.

Joxe Azurmendi, *Volksgeist -
Herri gogoa*. Elkar, 2007

Gure kantagintza, euskal arima elikatzen duten metaforez lepo dago. Azurmendik diotenarengandik hurrekoenak aipatzearren, Xalbadorren “herria da gorputza, hizkuntza bihotza” edota Xabier Amurizaren *Euskal Herrian euskaraz* kantua osorik hasi eta buka.

Anai-arrebak, entzun ene aho-hotsa:
izaite bat ez daike hezur hutsez osa;
herria da gorputza, hizkuntza bihotza;
bertzetik berextean bitarik bakotxa,
izaite horrendako segurra hil hotza.

Batzu herriaz orroitz, euskaraz ahanzi
bertzek euskara maite, herria gaitzetsi;
hizkuntza ta herria berex ez doatzi,
berex nahi daukute konpreniarazi
bata bertzea gabe ez daizkela bizi.

Herria eta hizkuntza. Xalbador, 1964 /
Mikel Laboa, 1980 / Amaren Alabak, 1999

Iñigo Aranbarriren hitzetan, Aitzolentzat, Euskal Herria bezalako herriek badute euren Volksgeist-a, euren arima propiala. Poesiari dagokio hori manera estetiko batean eman eta gatibu den herria lozorrotik ateratzea.

Aitzolek finlandiar gogoaren berpiztea ekarri zuen poema nazionalaren parekoa sortzea nahi du Euskal Herriarendako, Elias Lönnrotek idatzitako *Kalevala*-ren parekoa. Horretarako antolatuko ditu Olerti Egunak, horretarako lagunduko du *El Día* egunkari elebiduna sortzen, horretarako liberatuko du Nikolas Ormaetxea *Orix*e urtebetez Orixara itzuli eta *Euskaldunak* poema nazionala sor dezan. Zein ezaugarri izan beharko zituen *Euskaldunak* poema luzeak? *Kalevala*-ren berberak.

Herri baten identitatearen euskarriak hiru dira: hizkuntza-kultura, literatura eta historia propioak. *Kalevala* hiru ezaugarri horiek biltzen dituen finlandiarren epopeia nazionala da, finlandieraz idatzitako obra klasikorik garrantzitsuenak, eta munduko literaturako poema mitikorik aipagarrienetakoa. Lönnroten bost bidaia luze egin zituen gutxienez Finlandia osoan zehar, ahozko zein idatzizko herri literatura batzen. Horiekin guztiekin eta berak idatzitako zati batzuekin osatu zuen lana. Bere helburua finlandiarren artean euren herriarekiko atxikimendua eragingo zuen literatur lana eskaintzea izan zen, oso antzina eraiki eta lozorroan zetzan identitatea berpizteko, menpekotasun linguistikoetatik askatzeko. 1835ean argitaratu eta berehala, *Kalevala* finlandiar nortasun nazionalaren sinbolo bihurtu zen eta bere eraginak 2018an ere badirau, libururik irakurriena ez bada ere, askok irakurri ez badute ere, *Kalevala*-k mito bihurtu delako dirau. Eta jakina denez, mitoak ezinbestekoak ditugu. Fisikoki uki dezakegunaz landa, irudimena, desirak eta hilezkortasuna elikatzen dituzten mito barik, azalpen arrazionalekin soilik, ez ginatekeen gaur garena. Oraina azaltzeko dugun ezintasunari aurre egiteko iragan desiragarri bat asmatu ohi dugu, etorkizunean gure norta-

sun nazionala berretsiko duten alegien bila. Mitoa horixe baita: kondaira, historia, elezaharren gauzapean literarioa.

Txillardegik gogor gaitzetsi zuen Aitzolek hizkuntza eta ondorioz herritarak abertzaletasunerantz berpizteko hautatu zuen eredua:

Finlandian, beste adibide bat emateko, abertzale-mogimenduak (Lönrot osagilearen bidez) “Kalevala” deritzan bertso-sorta eman zuen 1835-ean. “Kalevala”, berriz ere, kanta zaharren bilduma bat da. 1860 arte ez zan egiazko finlanderazko literatura-pizkunderik sortu; eta hau abertzale-mogimentuarekin batera mamitu zan. Gisa da.

Are gehiago. Askotan (eta ez Euskal Herrian bakarrik) sasi-olerkari horiek (sasi-olerkari baizik ez bait dira sarritan) ez dira gauza izaten beren olerkietan erabilitako hizkuntzaz beren bizieran erabiltzeko. Bertso-egile faltsu anitzek horrela jokatu, beren olerkien mamiaz eta beren olerkien hizkuntzaz, egiatik ihes nahi zutela erakusten digute nabarmenkiro.

[...] Ihes-egin: haxe da xedea. Hizkuntza ez dute sekulan mintzabide nahi: ez beren buruentzako, ez inolaz ere herritar “arrote”en artean honda dedin: ihespide hutsa bai. Literatura eta

hizkuntza bera beren amets eroen bideetan barrena nahi dituzte abiarazi; eta lortzen duten heinean, hizkuntzaren eta herriaren ahulezia neuritzen dute. Hizkuntza herritik at erauzi nahi eta ipuinen hodeietan “garbi” gorde nahi horretan, sustraia bat da: kantutan, bertsoan, gertaera zoragarritan, zatarkerietatik landa, haragirik gabeko “pertsona” zozoen ahoetan, sekulan ez izandako sasi-herri zerutar batean, hor “gorde” behar...

[...] Lerro hauek irakurri ala, nork ez du dagoneko nabaitu Euskal Herrian ere horrelako zenbait gertatu zaigunik? Hogeigarren menderaino (eta ez 1901eraino xoilki!) erromantiku negarti batzuen ihesleku hutsa baizik ez da izan euskera. Euskal Herriko ameslariak eta euskaltzale negartiak pertsona berberak izan dira gehienetan.

[...] Bidezkoa da, nahi-ta-nahi ezkoa hobe, herri batek (eta bere literaturak) erromantiko modura hastea: ametsez eta lilurez elikatzen dira hastapen guziak eta gaztaro guziak. Hortan gelditzea da txarra: beharrezkoa da hurrengo urratsa ematea, eta kantu legunetatik egia gogorretara eta ekintzara pasatzea. Finlandiarrak pasa egin ziran, eta beren hizkuntza mintzabide bihurtu dute.

Txillardegi, "Saiakera eta hizkuntzen pizkundea",
in *Salvatore Mitxelena*. Jakin, 1966

Poesiaren aldean, saiakera hobesten zuen Txillardegik, herritarrei errealitatea ulertzen laguntzeko bitarteko askoz eraginkorragoa eta egiatiagoa zelakoan. Koldo Izagirrek, XX. mendeko poesia gehiena irakurri ostean, joan den mendeko poesian galtzaile izatearen kontzientzia kolektibo horrek poeta negarrera baino borrokara bultzatzen duela dio. Txillardegik, ostera, 1935era bitarteko poetengan negarra besterik ez dakusa. Guk Izagirreren irudipen berbera dugu: XX. mendeko kantagintza honetan malkoaren gainetik dago aldarria, gerra hotsa, borrokarako deia. Besterik da desagertzeaz dagoen herri gogo berpizteko bitarteko eraginkorrena poesia ote den.

Urte batzuk geroago, 1982an, Imanolek diskoratu zuen Xabier Amurizaren *Mendian gora* sortan, Txillardegiren ernegutik darrai: "Euskal herriko poeta / kanposantuko tronpeta".

Lauaxetak, Lizardik eta Orixek erdietsi gura zuten euren poesiaren bitartez hizkuntzan, lurraldetasunean eta fede kristauan oinarritutako euskal identitatearen pizkundea. Mandatu argia zen Aitzolena. Agindu ho-

rren arabera egokitu zuten hiru poetek idazteko era.
Euskaldunengan euren hizkuntzarekiko, lurrarekiko
eta fedearrekiko atxikimendua esnaraziko bazuten,
mezuak argia izan behar zuen, Euskal Herriak bizi
zuen egoera larriaren deskribapenezkoa eta herri aske
baten aldekoa, irakurleari bihotza gorritu eta zainak
irakinaraziko zizkiona.

Lizardik:

Izotzak estali zun
gure Euskalerria;
mintzo ozenak zabaldu
berbizkun-berria.
Itzal-zokondoetan
lore, izotz-bitxia;
baña gañetaz ari
yauntzen eguzkia.

Izotz-ondoko iguzki. Xabier Lizardi, 1932 /
Xabier Lete, 1974

Egizute nerekin
aberri-bidea.
Bildu dezagun nun nai
asaben lorea.
Ta gaurdanik goritu

gure sukaldea.
Ni nor naizen? Asmatu!
Euskal Pizkundea!

Euskal Pizkundea. Xabier Lizardi, 1932 /
Benito Lertxundi, 1974

Lauaxetak:

Gastedi orren didarra
bai-dala didar zolija!
Aberri baten samiñez
urduri dabil errija.

Azkatasun-goxalderuntz
sugarra dira basuak.
Sugarra basuak eta
zidar argija itxasuak.

Orduan ozte-aldea
aberri-minez kantari:
“Dana emon biar yako
matte dan azkatasunari”.

Mendigoxaliarena. Lauaxeta, 1935 /
Antton Valverde, 1978 /
Itziar, 1979 / Eñaut Elorrieta, 2005

Mandaturik garrantzitsuena Orixek jaso zuen, arestian aipatu legez: *Kalevala*-ren pareko behar zuen euskaldunon poema nazionala sortzea.

Ez zuten lortu. Euskaldunek ez zuten Lauaxetak, Lizardik eta Orixek idazten zutena ulertzen, euskara hura oso urruti zegoen euskaldunek masiboki, oldean bere egin eta nazioa aldarrikatuta estatu propioa borroka zezaten, oso liburu gutxi saltzen zituzten, 200-300 bat, gehienak batzokietan, EAJko alderdikideen artean. Baina, batez ere, ez zuten lortu, Lauaxetak, Lizardik eta Orixek euren burua idazletzat zutelako, garrantzia mezuari beste edo gehiago estetikari ematen ziotelako. Ez ziren inondik ere idazle panfletarioak. Idazletzat zuten euren burua, hizkuntzaren langile-tzat.

Aitzolek, poesia haren ezintasunaz oharturik, Basarri eredu hartuta bertsolariekin ahalegindu gura izan zuen, bertsolariek aurrez aurre, zuzen-zuzenean lortzen baitzuten herrikideekin komunikatzea, trokarik ez zegoelako bertsolariek zerabilten euskaratik he-

rriak zerabilenera, bertsoak bitarteko aparta baitziren
mezu politikoak helarazteko, bat-batekotasunaren be-
roan bihotzak sutan jalgiarazteko edota, bertsopape-
ren bitartez, buruz ikasi eta ahoz aho transmititzeko.

ZERGATIK EGIN ZUEN HUTS
EUSKALDUNAK PROIEKTUAK?

Zatozkida, goi-arnas.
Eizu nerekin lan,
erri baten arnasa.
Mamitu dezadan.
Geroak esan beza:
erri bat izan zan;
edo-ta ats emaiogun.
ontan iraun dezan.

Orixe, *Euskaldunak*. Itxaropena, 1950

1931n, Orexara, jaioterrira itzuli zen Orixe, Aitzo-
len aginduz liberatuta, euskaldunon poema nazionala
izan behar zuen *Euskaldunak* idaztera. Idatzi idatzi
zuen baina ezin izan zuen sasoiz argitaratu. 1936ko
gerran kartzelan preso sartu zuten faxistek. Libre utzi

baina berriz kartzelatuko zutela sumaturik Ipar Euskal Herriak Ameriketara ihes egin zuen, *Euskaldunak* argitaratu ezinik. 1950ean lortu zuen argitaratzea baina ordurako Euskal Herria aldatuta zegoen guztiz. Orixe bera 1956an itzuli zenean bere joera klasikoekin zerkusi gutxi zuten joera berritzaileak ziren nagusi, poemak ez zuen oihartzunik lortu, besteak beste baserri giroko Euskal Herri baten identitatea goratzen zuelako baserriz landako Euskal Herria ahanztuta. Bertso moldean osaturik bazegoen ere, garaiko bertsokeratik urrun zegoen *Euskaldunak*, bertsolaritzaren orduko arimatik.

Joxe Azurmendiren *Zer dugu Orixeren kontra?* saiakeran Orixe baztertuta zergatik izan zen ulertzeko gako ugari aurkitu ditugu, euskara, lurraldea eta fedea ezaugarritzat zituen euskal identitatea, euskal gogoa, euskaldunon arima berpiztu behar zuen poema nazionalak bere helburua zergatik ez ote zuen bete azaltzeko:

Eta gure nazional poemaren egileari gutien-gutiena onartu ahal izango dioguna, hain zuzen, horixe izango da: nazioaren ikuspiderik benetan ez izatea.

[...] Zer da Orixeren Euskal Herria? Batez ere mendiko baserria. Hau da, beharbada, egungo irakurlearentzat txokagarriena. Euskaldunak baserritarrak dira. Eta nolakoxeak, gero! Ez, noski, ardo lurretako erriberar bizi, biraolari eta okasiozale pertsonal horiek. Laborariak bai, baina ez edozein Euskal Herriko laborari. Mendi bakartadeko gizon puska isila baizik, mantso eta zintzo.

[...] Orixerentzat Euskal Herria beti Larraun izango da funtsean. Aparteko bazterra. Bakea, bildutasuna. Txoko goxoa.

[...] Poeman kantatzen zaigun Euskal Herria memorioak gobernatzen du. Oroitzapenek zuzentzen dute. Tradizioek. Handik bizi da.

[...] Poeta bat hazaldi baten edo talde baten edo gizarte baten sinbolu eta irudi bihurtzen denean, aldiz, poeta hori, poeta baino gehiago, guztiaren irakasle ere bihurtzeko arriskua dago. Homerorekin gertatu zena. Poesia, ordea, ez da irakaspenik. Eta poeta ez dago irakasteko. Poeta bera halaxe agertzen bada ere (eta sarri egingo du, hain zuzen bere partzialtasunak, alderdikeriak eraginda), ez dago hala hartzerik. Poeta bat profeta bat da. Ez teoriko bat. Erakusteko dago, ez irakasteko.

[...] Gerra ostean kontzientzia bila abiatu behar ko da berriro: zer den euskaldun izatea, zein den

euskaldun, zer den Euskal Herria, zer den gure historia... herri kontzientzia batetara ezin berriro ailegatuz. Horregatik da hain gogorra kontrastea, zientzien kritikak argitu duenagatik baino gehiago, guzti horren eta gerra ondoko mentalitatearen artekoa. Gure herri -euskal- kontzientzia ebidentziarik ez da frantsez edo espainol batena den bezala. Guk aurkitu eta lejitimatu egin behar izaten dugu. Hori da problema.

[...] Orixeren euskara, izan ere, xit pertsonala zen, artistaren estiloa bezala. Baina Euskal Herrian gauzak ez dira nonahi bezala. Euskal idazleari ez zaio eskatzen estilo ona, etc, euskara salbatzeko moduko euskara baizik, edo horrelako zerbait. Eta hala sortu zen ikaragarritzko iskanbila zalaparta bat, Orixeren euskara, euskara salbatzeko modukoa ote zen ala ez. Gazte gehienek, batikbat, ezetz erabaki zuten.

[...] Ez da erraza hitz bitan esatea jendeak Orixeren euskararen kontra zer zuen (60 aldera, ez ahanztz hori). Funtsean problema ez bait dago puntu bat ala bestetan. Orixeren garbizaletasuna, kapritxo gramatikalak, adizkerak, etc, aipatu izan dira. Baina tankera guztia da hauzitan zegoena, beste tankera bat nahi zen eta. Nire ustez, gerra ondoko idazle nahiz irakurleen egoerak, hau da, li-

teratur euskararen egoerak eskatzen zuen tanke-
ra berria nahi zen.

Joxe Azurmendi, *Zer dugu
Orixeren kontra?* Jakin, 1976

Euskal idazleek eta irakurleek, kantugileek eta musikazaleek, des-sinkronizazio garaiak bizi izan ditugu. Ez dugu beti elkar ulertu. Lizardi, Lauaxeta eta Orixeri euren garaikideen hizkuntza gaitasun eta ereduarekin ezin sinkronizatua gertatu zitzaien. Handik urte batzuetara, Ibon Sarasolaren iritziz, ber gauza gertatu zitzaion nobelagintza modernoari:

Zenbaitetan esana dut nobelagile bat ez dela ezerezetik sortzen den mirakulu bat. Kreadore bat giro bati zor zaio eta halaber kreatze-tradizio bati, ezinbestean. Eta nobelagintzaren giroa batez ere irakurleek osatzen dute. Irakurlego aditu bat da nobelagintza oparo baten aurrekondiziorik lehena eta sostengarririk seguruenena. Irakurle esijente bat da nobelagile erresponsiblearen akuilari zorrotzena eta kontsolatzailerik preziatuena.

Ibon Sarasola, *Txillardegi eta
Saizarbitoriaren nobelagintza*. Kriseilu, 1975

2018 honetan plazaratutako euskal kultur ekoizpe-
nen kontsumoari buruzko inkesta batean parte hartu
duten euskaldun askok aitortu dute, irakurtzen dute-
nean, erdarazko liburuak aukeratzen dituztela gehia-
gotan; eta zergatiaz galdetuta, euskaraz irakurtzeko
erraztasun eza aipatzen dute. Bistan ei dena, euska-
raz idazteko hautua egin dugunok erraz ulertzeko
eran izkiriatu beharko dugu, irakurriko bagaituzte. Ba-
dirudi, hezkuntza prozesu osoa euskaraz egin duen
euskalduna ez dagoela prest euskaraz irakurtzen aha-
legintzeko. Egungo euskal literatura irakurtzen saia-
tzen dena atoan jabetuko da ez dela batere gaitza-
gure gaurko autoreen lanak ulertzea. Ez irakurtzen di-
tuzten erdaretakoak baino gaitzago. Irakurle euskal-
dunak errazago irakurtzen ditu erdarazko liburuak
euskarazkoak baino askoz gehiago irakurtzen dituela-
ko.

Baina hau jada Jon Etxaidek salatzen zuen gerra
ostean.

Idazleok erriaren jakintza mallara makurtu ala
euskeriari soilki begiratzuz bera landu ta aberastu
erriari jaramonik egiteke? Ez bat ez beste. Euske-
ra gairik zaillena, goituena, nausiena berez adiraz-

teko lain da beste izkuntz askok bezela laterara ala gerkerara jo bage, ta lain danez, gaurko azal gogorra atxurtu, jorratu, ta lurpean ezkutaturik daukan altxor bikaña azaleratu bear degu. Gaur gaurkoz irakurle gutxitxo izango dittuzte idazle goitu-xamarrok, baño idazkera errezero jotzen ale-gintzen bagera ta azalpidez bear bezela argitzen badegu, irakurleak gero eta ugaltzenago joango zaizkigu.

Jon Etxaide, *Alos-Torrea*. Itxaropena, 1950

Etxeparek *Linguae Vasconum Primitiae*-ri seigarren atal bat gehitu eta euskalduntze alfabetatze masibo baten beharrari kantatu izan balio...

Zorionez, euskaldunok gure berezko arima berpizteko itxaropena dugu oraindik:

Saio frustratu bat izan zen *Euskaldunak*. Gure *Kalevala* txikia, gizaki modernoaren eguneroko epika eta herri baten itolarria gauzatzen duen poema, *Harri eta herri* da.

Koldo Izagirre, "Poeta gizon egin zenekoa",
in Gabriel Aresti, *Harri eta herri*. Susa, 2000

Edo beranduegi da? Non dago XXI. mendeko euskaldunon berezko izatea? Zelangoa da gure arima?

GERRAKO KANTUAK

Ken Zazpi musika taldekoak harritu egin ziren Joseba Sarrionandiak eurek bidalitako melodiari gehitzeko itzuli zien letrarekin. Izen-abizenek eta esaldi solteek osatzen zuten Gernikaren bonbardaketa gogoraz asmo zuen kantua. Baina berbak ahaireari atxikita ohartu ziren sekulako indarra zuela abestiak. Condor Legiokoek erail zituztenen zerrendatik hautatu zituen Sarrionandiak izenak. Umeak ziren denak. Neba-arrebak, batzuk. Tarteko esaldi solteek Picassoren kodrotik erauzitako irudiak dakartzate gogora:

Agapita Iturralde Zuloaga eta
Maria Iturralde Zuloaga,
Gernikan!

Asto behi gorputz zati
Neskato erre bat
Ume identifika ezina
Gernikan!

Idazleak ez du herri oso bat errautsetan utzi zuen gertakariaren baloraziorik proposatzen, ez du irakaspenik eman nahi, ez dago ageriko mezurik ez gaitzespen eskaririk, entzuleari ez dio jarrera aktiborik eskatzen. Hildakoen izenak eta Picassoren koadroa. Ahai-rearen dramatismoak, kantaeraren tragikotasunak, zibilien aurkako gerra entsegu hark eragindako mina sentiarazten dute. Gernikan gertatutakoa gogoan il-tzatua daroagunontzat, bederen. Hala diogu, Rafa Rueda eta biok ohartu baikara izan ditugun aurrez aurrekoetan, egun Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasle askorentzat Gernika ez dela ezeren sinbolo, ez dela euren imajinarioaren parte. Ondorioz, kantuaren eragina arras ezberdina da. Gertatukoaren berririk gabe, milaka euskaldunen imajinario kolektiboan duen garrantzirik gabe, spotify-n edo youtube-n entzungarri duten beste kantu bat baino ez da. Milioika artean, bat.

Gernikan gertatutakoari zein oro har gerra hartan bizi izan zituztenei buruz idatzitako bertso eta poemak ezkutuan izan dira urte luzetan. Ibon Sarasolak bere

Euskal literaturaren historia-n dioenez, 1936ko altxamendu faxistaren ondoriozko gerran Francoren indarrak ezarritako diktaduraren eraginez, euskal literaturak bere historiako sasoirik larrienak ezagutu zituen. Literaturak ez eze, gerra galdu zuten euskaldunen sormen lan orok ezagutu zuen antzeko sasoi larria, baita kantuak ere. 1936tik 1939ra gertatutakoak kantatzeko moldean kontatu zizkigun Joseba Tapiak “Agur In-txorta maite” disko ezinbestekoan. Koldo Izagirrek zera nabarmentzen du diskoaren liburuxkan:

1936-1937ko gudaz bagenuen kronika ederrik, bagenuen argazkirik, bagenuen filmerik, baita afi-txa edo kartelen bildumarik ere... Bagenuen, fun-tsean, iruditeria bat. Baina iruditeria hori mutua zen. Himno bakarra genuen, *Eusko gudariak*. Noiz-bait, erresistentzia berriak heldu ziren, eta borroka haiek kantu berriak sorrarazi zituzten, *Eusko gu-dariak* baino ez zen jaso gure herriaren 1936-1937ko erresistentzia antifaxistatik. Kanturik ga-beko guda izan dugu 1936-1937koa. Harik eta Jo-seba Tapiak diska hau egin duen arte.

Koldo Izagirre, in Joseba Tapia,

Agur Intxorta maite.

Gaztelupeko Hotsak, 2001

Joxe Mari Lopetegui, Juan Ezenarro, J.M. Garate, Joxe Zapiain, Salvatore Mitxelena, Pepe Bolunburu eta Basarri dira gerrako desmasien kronistak, Utarre, Atarre-ne, Gora-Beti eta Andoni ezezagun zaizkigunekin batera. Basarrik bi bertso sorta idatziko ditu Gernika gaitzat hartuta. Bata lau hilabetera, bestea ia urtebetera. Bietan ere, malkokeria baino borrokarako grina iraunaraztea du helburu. Gudarien kuraia hauspotzeko bertsoak dira, Lauaxetaren *Amayur gaztelu baltza*-ren sano antzekoak. Basarrik ere, bonbardaketa deskribatuz doan heinean, etsaien krudelkeria gaitzetsi eta gudarien adorea goratzen ditu:

Basati gaizto odoltzaleak
atzerritikan ekartzen
tokirik zoragarrienari
txikituta su ematen;
auts egindako gure Gernika
antsika dago esaten
Franco ta bere laguntzalleak
zein biotz ona daukaten.

Ezta ez alperrikako izan
or ikusi dan odola
pentsa oraindik emaitz ederrak
ematekotan dagola;
eusko gogoa armez ta indarrez
ezin il leike iñola
Gernika erre ziguten baña
zutik daukagu arbola.

Gernika. Basarri, 1938 / Joseba Tapia, 2001

Hots, garaitu gaituztelako borrokatuko gara inoiz baino sutuago.

Kantu hauetako gehienek doinuak galdu egin dira, *Eusko Gudariak*-ena edota *Gerrako gure ibilerak*-ena salbu. Bertsook kantatzeko Joseba Tapiak egindako birsorkuntzak jatorrizko melodiak oso hurrekoa dirudi. Edozeinek esango luke berezkoak direla. Argazkiak baititugu zeintzuetan soinu-joleak ageri diren lubakietan bertan, eskuartean iskiluak zituztenen artean trikitixa astintzen. Laborria uxatu eta kemena azalarazteko arma bide zuten infernuko hauspoa.

Erbestetik herriminez

Garai modernoan euskal kulturak ezagutu dituen urterik latzenetan erbestea bilakatu zen kantaleku eta kantagai. Aitzol, Lauaxeta eta Lizardi hilak ziren eta Orixe erbestean jazarpen politikoari itzuri. Jokin Zaitetik zuzendu eta Andima Ibinagabeitia zein Orixeren beraren laguntzarekin sortutako *Euzko-Gogoa* aldizkaria izan zen kulturgintzaren arnasari eutsi zion apurrenetakoa. Berebiziko garrantzia izan zuen *Euzko-Gogoa*-k 1936ko altxamenduaren aurreko kultur mugimenduaren eta 1960ko hamarkadako loraldiaren arteko zubi-lana eginez; zubi hauskor, erkin, estua, baina zutik mantentzeko nahikoa. Kopuruari eta kalitateari dagokienez, azpimarratzekoa da parte hartu zuten idazleen edota itzuli zituzten autoreen zerrenda. Bi garai izan zituen *Euzko-Gogoa*-k, bata Guatemalakoa, bestea Miarritzekoa. Bertan plazaratu zituzten euren lehen lanak, besteak beste, Gabriel Arestik, Jon Mirandek, Txomin Peillenek. Azken bi hauek, *Euzko-Gogoa*

desagertu eta hiru urtera, 1962an, euren literatur aldizkari propioa argitaratu zuten: *Igela*.

Parisen maiz elkartzen ziren Jon Mirande eta Andima Ibinagabeitia erbesteratua literaturaz jarduteko, eta haiengana ere biltzen ziren batzuetan Peillen anaiak. Ibinagabeitia, ordea, Ameriketara joan zen 1954an Jokin Zaitegiri (eta Orixeri) *Euzko-Gogoa* aldizkaria egiten laguntzera, eta Mirande goibel eta bakar samar geratu omen zen. 1962ko otsailean Txomin Peillenek Jon Miranderen adorea berpiztu zuen, Saint Germain boulevardeko 15.ean *erredakzio* bat ezarriz. Hantxe sortuko zuten “Igela – euskaldun heterodoxoen errebista”: aldizkari satirikoa, “propaganda politiko eta erlijiozko gabea”, hiruhilabetekari izateko asmatan. Pariseko zuberotar bukinista batek lagunduzien aldizkaria roneotipoz edo multikopiaz egiten, bigarren zenbakia lehenbailehen ager zezaten Ibinagabeitiak “dirulaguntza ederra” bidali zien Caracastik... eta berehala eskandalizatu ziren Euskal Herrian, Enbatakoak besteak beste.

Ale gutxi plazaratu zituzten arren, ekarri zuten jarri-erara berriak -batez ere mugimendu politiko abertzaleei eta eliza katolikoari egiten zizkieten aurkako kritika zorrotzengatik- oihartzun handia izan zuen gerora uholdean kaleratuko ziren literatur aldizkarietan, zeintzuk, zalantza izpirik gabe, argitaletxeak sortu, egonkortu eta ugaltu bitartean, ezinbestekoak izan ziren euskal literaturaren garapenerako. *Igela*-ren heterodoxiatik edango dute geroko *Ustela*, *Oh! Euzkadi*, *Pott*, *Susa*, *Korrok* eta enparauek. Literaturak aldarri politiko eta erlijiosoen zamaketari izateari utzi behar zion uste osoa agertu zuten *Igela*-koek, gordin, zuzen.

Zenbaitek ez diote gure *Igelari* barkatzen ur-benedikatu untzietako igel heietarik ez izatea. Frantsesek dioten bezala. Adibidez *Enbata* argitaratzen duten muthil zintzoek.

Berriz ere erran behar dugu gure aldizkaria sortu genduela Euskaldunen edo bederen euskal idazleen artean ohart emaiten genituen tabu ugarien erazteko, hala nola sexualitatearen ez aipatzea, eliz-gizonen ez hunkitzea, euskaldun nazionalisten ideologia bakharra izan omen daitekeela, kristau-demokraziari ez oldartzea, e.a.

Jon Mirande eta Txomin Peillen,
“Igelak azken hitza bere”,
in *Igela*, 4. zbka., 1962

Heterodoxia horrek eta hautu estetikoak, Miranderen misoginiak edo faxismoak ez bezala, idazle eta musikari asko erakarri zituen eta kantu sorta ederra dugu Miranderen poemekin ondutakoa. Besteak beste Oskorrik, Imanolek, Mikel Markezek, Niko Etxartek, Hertzainak-ek, edota Zaramak hautatu zituzten Miranderen poemak kantuak sortzeko. Sexuari kantatzeko lotsor agertu da euskal kantagintza, Miranderen poemetan oinarritutakoetan salbu.

Oianone! Oianone!
Gau hunetan zaitut ene;
larru legun eta zuri,
bular samur, sabel guri,
nire neska Oianone.

Ezti bakanez betea
zure matxantto maitea
urtzen zan ene ahora,
zabalik lore antzora
eta gozokiz betea.

Oianone. Jon Mirande, 1950 / Imanol, 1985 /
Zarama, 1985 / Mikel Markez, 1997

Erbesteaz berba egin gura eta Mirande gurutzatu zaigu, Parisen jaio, bizi, eta bertatik idatzi zuen euskalduna.

Sorlekua uzteko arrazoi bat baino gehiago ezagutu dituzte euskaldunek, munduko osterantzeko migrazioaileek ezagutu berberak, ziurrenik: jazarpen politikoa, gosea, bizimodu hobearen itxaropena, mundua ezagutzeko irrika, genero indarkeriak eragindakoa, hurkoa menperatu nahia... Eñaut Etxamendik saminez gogoratzen du bere idazlan guztien bildumako batean Ezterenzubi zelan hustu zen emaztez zein gizonez, Garazin bulegoa paratu zuen agentzia baten promesa faltsuek liluratuta. Emazteei, Parisen neskame lan duina agintzen zieten. Egiazki, puta lanetara derrigortuko zituzten. Dirutza ederren jabe itzultzeko doinuz limurtzen zituzten gizonezkoak. Nevadako basamortuetako bakardadean herriminez hilko ziren asko baino gehiago. Etxera itzultzeko fortuna nahikoa metatu ezinik bertakotuko ziren ez gutxi. Erbesterako bidea aurretik hartu zuten askok baserriak baino fabrikak ho-

betsi zituzten, liberalek karlistadak irabazi ondoren. Bizitza lurrari erabat loturik eman ostean iraultza industrialak ezarritako bizimodu berrira egokitzeke batera asmorik ez zutenak izan ziren Ameriketarantz porturatu ziren asko:

Gazte gaztetatikan
Erritik kanpora
Estranjeri aldean
Pasa det denpora;
Errialde guzietan
Toki onak badira
Baña biotzak dio
Zuaz euskalerrira.

Agur Euskalerriri. Jose Mari
Iparragirre, XIX. mendea /
Patxi Andion, 1973 /
Gontzal Mendibil, 1992

Denak utzi ta etorri nintzan,
lur au ikusi nai nuan!
Aritz tantayak, pago lardenak,
nola ez izan goguan!
Oraiñ arzantzan Ameriketan,

arrantxo baten onduan,
eguna pasa larrian eta
jiratzen naizen orduan,
nere begiyak gozatzen dira
aldameneko ombú-an.

Ameriketako panpetan. Pedro Mari Otaño, 1904 /
Joxan Artze, 1980 / Txanbela, 1997 /
Xabier Lete, 2001 / Zuhainpeko Soinuak, 2017

Aldea dago 1936ko altxamendu faxistaren aurreko
exiliotik ostekora. Bietan herrimina gai errekkurrentea
da baina badago alde aipagarriker ere. 1937tik aurre-
ra jazarpen politikoari ihesi deserria ezagutu zuten
idazleen testuak irakurriz gero, ia osoki Euskal Herria-
ri buruz idatziak direla ohartuko gara. Apenas dakigu
ezer atzerri horietan gertatzen ari denaz. Gerra os-
tean, ziurrenik, munduan zehar barreiatutako euskal-
dunek harremana ez galtzea izan zuten helburu ida-
tziok, baita Euskal Herrian geratzea erabaki zutenek
egoera irauli eta nazioarteak Franco boteretik egozten
lagunduko zuen itxaropena ez galtzea ere. Idazle
gehienek Euskal Herrian baleude legeaz idatzi zuten,
gerran galdutakoaren neurria txikiagotu asmoz, apika.

XIX. mendearen amaierakoetan zein XX. mendearen hasierakoetan, oster, sorlekuan utzitakoarekin alderaketa egiteko izanagatik, atzerriko bizimoduaren eta gertakari garrantzitsuen berri helarazi ziguten. Gehienak hitz lauz sortu zituzten eta kantatzeko manneran ondutakoetatik gutxiegi iraun diote ahanzturaren galarrenari, baina gutxienez bertako egunerokoaren, jendearen eta paisaiaren berri eskaini ziguten.

Francoren berrogei urteko diktaduraren osteko erbestea, kantagintzari dagokionez behinik behin, Joseba Sarrionandiaren poesiagintzari hertsiki loturik dago. Esango nuke Sarrionandiak idatzitakoek elikatu dutela egungo euskaldun askok exilioaren inguruan dugun imajinario kolektiboa. Esate baterako, *Iheslariaren ekipaia* poema, 1989koa: “Ez gara egundo itzuliko apika, itzuliko ginela / zirudien lekura, / itzuli nahi genukeen lekura, gure sorlekua / ez ezik, geu ere aldatuko garelako”. Poema hori ez da inoiz musikatua izan, baina bat baino gehiago dira kantu bihurtutakoak:

Joatea itzultzea da beti? Egundo egon
gabeko lekura itzuliko gara?
Eta itzultzea harantzago joatea
besterik ez bada?

Geratzen denak betirako geratzen dela
pentsa dezake?
Ezinbestekoa da abiatzea eta
ailegatu ezinean geratzea?

Abiatzen dena ez da egundo inon

geratuko?

Ala itzuliko da? Baina, itzultzen dena
abiatu zen lekura itzultzen da ala?

Inongo lekuak. Joseba Sarrionandia, 1992 /
Jexuxmai Lopetegi, 1994

Deserria, sorlekua, itzultzea kantagai, Mikel Labo-
aren, Imanolen edota Ruper Ordorikaren kantuek bizi-
ki lagundurik, deserria eta itzulera zergatik bihur dai-
tezkeen banaezin ulertu genuen.

Nekez uzten du bere sorterrria
sustraiak bertan dituenak.

Sustraiak han dituenak.
Joseba Sarrionandia, 1980 /
Bittor Aiape, 1980 / Jexuxmai Lopetegi,
1994 / Mikel Laboa, 2005

Baina ni ez naiz itzuliko
Nora itzuliko naiz ba?
Non hemen bertan baino hobeto,
lekuz kanpo, zahartzeko.
Lekuz kanpo eta bakarrik,
inoren agurrik gabe.

Ez da itzuliko. Joseba Sarrionandia /
Ruper Ordorika, 2006

2013an Eñaut Elorrietak “Deserriko kantak” diskoa
ondu zuen, osorik exilioari eta sorterriari eskainia.

Ni ez naiz Igorretan hilko,
hareatzen eroriko naiz
gerrako geziak lez.
Selban hobiratuko naute,
lehengusu eta lagun
gutunez estalirik.

Geografia. Joseba Sarrionandia /
Eñaut Elorrieta, 2013

Non dago nire herria?
Nigan dagoela? Hori da?

Nirekin joan eta etorri da.
Nirekin batera iritsiko da
nire herrira.

Non dago nire herria? Mario Benedetti /
Eñaut Elorrieta, 2013

Iraganeko hura zara, eta gaur zaren hau,
baina ez tartean, absentzian izan zinena.
Nahiago dute joan ez zinela antzeztu,
inoiz joan eta itzuli ez bazina bezala.

Itzulera II. Lander Garro / Eñaut Elorrieta, 2013

Arrazoi politikoengatik euren herria utzi behar duten pertsonen afera biziki larria da 2018 honetan ere, bai euskal herritarrei dagokienez bai munduko beste herrialde batzuetakoei dagokienean ere. Rafa Ruedak eta biok, gure saioetan behin eta berriro azpimarratzen dugu migrazioari buruzko iritzi arrazistak sendatzen laguntzeko ukendua dela gure kantagintza, gure musikagile nazioartekoenek kantatzen duten legez ez dezagun ahaztu “garai batean gure herria etorkina” izan zela.

KOLONIZAZIO KULTURALARI GALGA

Kanta berrietara zaletutako gazteak, gure kanta zarrez gogaitu, aspertu egiten dira. Erri-kanta oiek, zinetakoen aldean, motzak, gexak, gatz-gabeak dirala, uste dute. Gure kanta zar asko gaiñera, musikaz ain bikain diralarik, oso itz arlotez jantziak dauzkagu. Nere iritxiz, euskal olerkariak lan au egin bear ligukete: lengo doñu zarrei, letra berria sortu, itz apañagoak ezarri: gaurko gaztediari atsegiñago zaizkion maitasun-itzak erantsi. Onela gure kanta zarrak, soiñeko atsegiñagoz erakutsi. Orrez gaiñera, kanta berriak sortu ditzagun. Au eresgile edo konpositore diranen lana dezu: ta Euskalerrian len ontan maixu diran asko ditugu. Sortu bitzate beaz urtero onelako doñu beri batzuek, erdal-aideak bezela, gure gaztean ezpañetan zabal ditezzen. Kanta berri auk, era danetakoak bear ditugu, bai euskal-usaidunak eta bai kanpo-aizedunak ere. Gaurko dantza aideak, tango, rumba, fox eta abar, erri guzietara zabaldu zaizkigu, ta gure apaiz-bioitzak min artu arren, gure errian bota dituzten sus-traiak ezin uka genitzake.

Kanta-kantari izeneko kantutegiaren hitzaurreako idatzi zituen hitzok Nemesis Etxanizek. Aurreko mendearen erdialdean. Etxanizi kasu eginez gero, orduko euskal musikak ez zituen inolaz ere gogobetetzen garaiko gazteak. Askoz erakargarriagoak zitzaizkien batez ere Frantziatik, Ingalaterratik edota AEBetatik iristen zitzaizkien doinu berritzaileak. Atoan ohartu zen Etxaniz bertoko otxote, koru eta herri kantuen flakeziaz. Diktadurapean, gorputza askatzeko dantzamodu berrien gose zen euskal gazteria. Munduan arrakastatsu zena euskaraz ematea zela gakoa ulertu eta buru-belarri ekin zion Etxaniz apaizak letrak itzultzeari. Ez zituen publiko aurrean kantatu, ez zuen oholtzarik zapaldu, ez zuen diskorik argitaratu, baina gure us-tean bera izan zen intelektualki euskal kantagintza berriaren bidea zabaldu zuena. Euskal kantagintza berriaren aitzindaria Mixel Labegerie izanik ere, kantagintzarekiko eta tradizioarekiko Etxanizek abiarazitako ikuspegi aldaketa funtsezkoa izan zen.

Mixel Labegeriek zortzi kantu argitaratu zituen bi disko txikitan 1961 eta 1963an. Francoren diktaduraren urte gordinenetakoetan, gitarra eta ahots apalaren soiltasunez *Gudari eskualdunaren kantua* edota

Piarres Larzabalek idatzitako *Gazteri berria* entzuteak berebiziko zirrara kolektiboa eragin zuen, batez ere, gazteen artean.

Aita, zer egin duzu eskuara maitea?
Erderan hazi duzu oi zure semea.
Ontasun ederrena aita batek galtzea.
Biotzean sartua dugu ahalgea.

Gu gira Euzkadiko gazteri berria
Euzkadi bakarra da gure aberria.

Kaskoin edo maketo ez dugu etsaia,
bainan eskual semea da gure anaia.
Hemen dela España, han dela Frantzia,
mugaren bi aldetan da Eskual-Herria.

Gu gira Euzkadiko gazteri berria
Euzkadi bakarra da gure aberria.

Gazteri berria. Piarres Larzabal /
Mixel Labegerie, 1963

Labegeriek lehen diskoa plazaratu zuenerako bazterrak hasiak zeuden lozorrotik inarrosten eta zortzi

kantuko bere diskografia hark panfletorik argigarrienak baino ahalmen pizgarriagoa izan zuen. 1957an Txillardegik lehen euskal eleberri modernoa argitaratu zuen, *Leturiaren egunkari ezkutua*. 1959an, Txillardegi bera tarteko, ETA sortu zuten. 1963an Jakes Abeberrik, Ximun Haranek, Jean Louis Davantek, Piarres Larzabalek, Mixel Epherrek, Mixel Burukoak eta Labegeriek berak Enbata mugimendu politikoa sortu zuten, arlo askotako kideak baina bereziki gerora euskalgintzan eta kulturgintzan buru-belarri arituko zirenak bildu zituen, hainbat kantutarako letrak idatziko zituazten Manex Pagola edo Daniel Landart tarteko. Jorge Oteizak *Quosque tandem* argitaratu zuen, Aitzolek erreibindikatzen zuen gure Volksgeist edo berezko euskal arima hura berriz eztabaidara ekarriz. 1964an euskal literatura eta kantagintzaren norabidea aldartziko zituen *Harri eta herri* publikatzea lortu zuen Gabriel Arestik. Gerra aurreko Euskal Pizkundearen su txikiak garra gorde zuen errautsen azpian eta garra gorantz zetorren, pindartsu.

ZERTARAKO BAT DUELAKO

Besteak beste, poesiari zeregin bat aitortu ziolako da mugarri Gabriel Aresti, euskal poesia autokontzientziara esnatu zuelako: “Esanen dute / hau / poesia / eztela, / baina nik / esanen diet / poesia / mailu bat / dela”.

Pertsona eta idazlea bereizezinak direla aldarrikatu zuelako da fundazionala.

Pentsatzen dut nire izena
nire izana dela,
eta eznaizela ezer ezpada
nire izena.

Nire izena. Gabriel Aresti, 1964 /
Rafa Rueda, 2013

Euskal poesia erdal hirian kokatu zuelako ere izan zen berritzailea. Bere burua euskalduntzeari ekin zion Arestik hamabi urte zituela eta horrela frogatu zuen gerora “hizkuntza bateko idazle jatorra ez dela hizkuntza ‘era naturalean ikasita’ darabilena, baina bai ‘era naturalean ariko balitz bezala’ erabiltzeko nahikoa ofi-

ziale on dena", Koldo Izagirrek *Harri eta herri*-ren 2000ko argitalpeneko hitzaurrean dioen legez.

Gorbeiara joateko gutizia sortzen zait barrenean,
bertan organizatzeko euskeraren salbazioa,
baina hemen geratzen naiz,
kale arte honetan,
milagro baten zai,
egunero bizarra kentzeari uzteko
naikoa kurajerik
ez baitdut.

Bilbaoko kaleak. Gabriel Aresti, 1964 / Rafa
Rueda, 2013

Hizkuntzak, lurraldetasunak eta fedetak ezaugarritzen zuten euskal identitatea egokitu eta, jaungoikoa-
rekiko sinesmena alboratuz, langile klaseari, euskara-
ri eta zazpi lurraldez osatutako Euskal Herriari kantatu
ziolako bihurtu zen abangoardia *Harri eta herri*. Nazio
borrokari klase borroka gehitu ziolako.

Obrero eta nekazari leiala,
zuena ez da errenta liberala.
Diru zikinak putre motzak bezala

botatzen dizu gainera
hortxe bere itzala.

Gora ta gora beti. Gabriel Aresti, 1972 /
Oskorri, 1976

Gitarrarekin aire berri bat
daramagu kantuz egun,
abesti libre eta leiala,
prestu eta noblezadun;
haren medioz zer garen, ongi
izan gaitezen ezagun,
herri langile nekazaria
hala defendi dezagun.

Guretzat. Gabriel Aresti, 1972 /
Oskorri, 1976

Bizkaiko aberatsak
dira diruzale,
txerri-erosle eta
txorizo-saltzaile.
Dendaz bete dituzte
Bilbon zazpi kale,
inoiz ez dute eman
pausorik debalde,

burrukatzen baitute
diruaren alde.

Bizkaiko aberatsak. Gabriel Aresti, 1972 /
Oskorri, 1979

Elebitan argitaratu zuen *Harri eta herri*, halakoren batean, lan handien ostean. Ez Lizardik edo Lauaxetak lege zeskaldunek uler zezaten, erdal hirikoek konpre-
ni zezaten baino. Edozein euskaldunek ulertzeko mo-
dukoa zen *Harri eta herri*-ko euskara, euskara “kla-
roa”.

Aurretik Nemesio Etxanizek edota Mixel Labegie-
riek egin zuten antzera -Ez Dok Amairukoen aurretik-,
ahozko zein idatzizko euskal literatura ondo baino ho-
beto ezagututa berri zuten poesia eta kantagintza
Arestik. Bertso moldeaz aztertuta idatzi zuen bertso li-
brea. Kopla zaharraren egituraren jakitun sortu zuten
egun kantu-liburuetan “Herrikoia” sinadurapean sail-
katzen ditugun hainbat.

Egun da Santi Mamiña
benetan egun samiña.
Goiko zeruan gorde dezala
luzaro neure arima

Itsas aldean izarra,
hari begira lizarra;
euskara salbo ikusi arte
ez dut kenduko bizarra.

Egun da Santimamiña. Gabriel Aresti, 1964 /
Mikel Laboa, 1966

Poeta naizen ezkerro,
eztut zerurik espero.
Bederatzi kopla ditut,
lau zuhur eta bost ero.

Apur dezagun katea. Gabriel Aresti, 1964 /
Mikel Laboa, 1966 / Joseba Tapia, 2006

San Simon eta San Juda,
joan zen uda
eta negua heldu da.

Ez baletor, hobe,
bizi gera pobre
eremu latz honetan,
ez gera hain onak benetan.

Ez dugu zaldirik,
ez gera zaldunak.
Ez dugu abererik
ez gera aberatsak.
Euskara guk dugu,
gu gera euskaldunak.

Urrillaren 28 egun. Gabriel Aresti, 1967 /
Xabier Lete, 1969

Katebegi izatearen kontzientzia sakon errotu zen 1960ko hamarkadatik aurrera gure kantari askorengan: Laboak, Letek, Lertxundik, Valverde, Urkok, Amaia Zubiriak, Txomin Artolak, Pantxoa eta Peiok, Oskorrik, Imanolek eta enparauek, gure kantagintza tradizionala eta euren kantu berriak uztartu zituzten, zeina kopuru sano garrantzitsuan idazleen testuekin ondu baitzuten. Hiru Truku taldea gorpuztu zuten Ruper Ordorikak, Joseba Tapiak eta Bixente Martinezek. Fermin Muguruzak Kortatu, Negu Gorriak eta bere bakarkako ibilbidean bertsolaritza eta trikitixa naturalki txertatu ditu garaian garaiko soinu berrienekin. Mikel Laboaren kantuak euren rock doinuetara eroan zituen makina bat talde aurrerazalek “Txerokee” eta “Txinaurriak” bilduma kolektiboetan. Zazpi Eskalek,

Karidadeko Bentak, Gu Ta Gutarrak-ek, aspaldiko bertso-moldeak erabili zituzten garaiko gaiei kantatzeko. Bertsolari modernoenek Xabier Leteren doinuak darabiltzate milaka lagun ere batzen dituzten plazetan.

Baina iraungo ote du iturri zaharretik ur berria edateko jarrera horrek? Iraun behar ote du? Eta nola iraunaraziko dugu, bere horretan? XX. mendeko kantuetatik zenbatek balio digute egun, adibidez, genero ikuspegitik aztertuz gero?

Galdera horiek eta gehiago izan genituen eztabai-dagai 2014ko Eako Poesia Egunetan. Orduko hartan, Iratxe Retolazak eta Danele Sarriugartek, Gabriel Arestiren testuen eta Oskorriren ahaireen elkarreraginetik sortutako kantuek euskaldunon imajinarioan izan duten eragina genero ikuspegitik aztertzeko proposamena egin ziguten. Urtebete beranduago Zaldia-rri bildumaren 6. alean *Gizontzeko (andretzeko) garaia* izenburupean plazaratu zuten hitzaldi hartatik galbahetutako hauekin osa daitezke zenbait erantzun:

Izan ere, Arestiren poetika hainbat jardun kultural eta politikotan erabili da, behin eta berriro, eta bere horretan hartu izan dira Arestiren poemak zein leloak, genero ikuspegian inolako gaurkotzerik egin gabe. Hurbilketa honekin, beraz, agerian

utzi nahi dugu imajinario kolektiboan erroturiko hainbat irudi, poema edo lelo arestiar birpentsatzeko beharra, edo berregokitzeko beharra.

[...] Arestiren inguruko diskurtsoek sarritan maskulinitate literario-poetiko hori egonkortu besterik ez dute egiten, poesia soziala edo politikoa gizontasuna eraikitze adierazpide literario bihurtuz. Zentzu horretan, genero-bazterketari aurre egiteko, beharrezkoa ere bada poesia sozialaren definizioak eta moldeak (aitatasunak eta epikotasunak) izan ez daitezen politikoaz jarduteko bide poetiko zilegienak. Areago, Arestiren zenbait balore gorai-patzean, genero ikuspegia ere kontuan hartzea komeni da, eta justizia sozialaren ikuspegitik herren non ibili zen gogora ekartzea. Ez ditzagun leloak bere horretan geure egin, gaurkotzerik gabe, pitzadurarik gabe.

Iratxe Retolaza eta Danele Sarriugarte,
Gizontzeko (andretzeko) garaia. HEA, 2015

Saiakera honen hasieran azpimarratu legez, Retolazak eta Sarriugartek proposatzen duten berrirakurketa gutxienez XIX. mendetik gaur arteko idazleen eta musikarien arteko kantagintza osoarekin egin beharko

genuke. Arazoa konpondu barik dugu. Amaia Lasak
1971n eskatu zuen birpentsatze hori:

Nereak ez diren
lurralde hauetatik
ihes egin nahi nuke.

Nereak ez diren ur hauek
alde batera
utzi egin behar ditut

Haitz sendoaren biribiltasunean
nire bizitzaren hitza
lortu nahi nuke

Biribiltasunean
sendotasunean
haitzaren gainean
a
e
i
o
u
berri bat esan nahi nuke.

Ez zioten kasu askorik egin. Berbarako, ezelango
musikarik ez zuen bere poemarik musikatu iragan
mendea. Musikaekin ote ziren? Kantagaitzak?

Jaungoiko guztiak ukatzen dituen
emakume bat naiz.

Atzo,
zeruko jaungoikoa ukatzen nuen.
Gero
infernukoa, eta
gaur,
lurreko jaungoikoa ukatzen dut.

Dotrina guztien aurka altxatzen naiz.

Atzo,
zeruko pekatari nintzen,
gero
infernukoa, eta
gaur,
lurreko pekataria naiz.

Hutsunean igeri dabilen emakume bat izaten naiz.

*Jaungoiko guztiak ukatzen dituen
emakume bat naiz.*

Amaia Lasa, 1971 / Bihotz

Bakartien Kluba, 2017

Tere Irastortzaren poema bat kanturako moldatu zuen Amaia Zubiriak (*Ikara da*. “Egun argi hartan”, 1985). Arantxa Urretabizkaiarenik, inork ere ez. Joan den mendean, literaturari atxikitako kantagintzan emakumeak, protagonista baino bigarren mailako aktore dira ageri diren apurretan, beti zain, esperoan negarrez dauden sinbolo estatikoak. Zaintzarako eta umegintzarako baino ez dira aktibo. Paisaia baino ez den natura, kasurik hoberenean.

EUSKAL KANTAGINTZA BERRIA, BERRIZ ERE

Mixel Labegeriek euskal kantagintza berria abiara-
zi eta atoan sortuko dira kantari berriak. Hildako poe-
ten hitzak musikatzuz edo bizirik dauden idazleekin el-
karlan estuan, euskaldun askoren imajinario kolekti-

boa etengabe elikatu duten sinboloak sortuko dituzte bata bestearen atzetik.

Ez Dok Amairu sortuko zuten Laboa, Lete, Lertxundi, Iriondo, Lekuona, Artze, Irigarai eta enparauentzat iparrorratza izan zen Labegerie, baina ez bakarra. Beste eragin asko izan zituzten, hala nola Herrialde Katalanetako *Nova Cançó*, Frantziako *Nouvelle Chanson*, Hego Ameriketako kantautoreak (Atahualpa Yupanqui, Violeta Parra, Victor Jara...) eta AEBetako edota Britainia Handiko folk eta rock gazteena. Aldarrirako kantua izango da nagusi 60tik 90era bitartean. Idazleek eta berauen testuak musikatzen zituztenak garaiko egonezin kolektibo guztien bozgorailu bihurtu ziren. Zentsoreen artaziak saihesten saiatuz beti ere, diktadurapeko Hego Euskal Herrian sinbolikoki, alegorien bitartez, eta malguago Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Kantuari zeregin argia atxikitzen zioten sortzaileek. Marc Biosca soziologo katalanak *Haiek zergatik deitzen diote Euskal Herria eta guk It-haka?* saiakeran, zeinetan katalanek eta euskaldunok gure nazioari zelan kantatu diogun aztertu zuen, honela adibidetzen du:

Kanta, bere sorreran batez ere, fronte oso baten zati bat baino ez da –hala zioten behintzat Letek, Lertxundik, Laboak eta beste batzuek ere–, era askotako kultur adierazpenen bidez nazio bateko kide izatearen sentimendua birsortzera bideratua zegoena. Euskal imajinarioa, bere errekreazio mitiko, hesi fisiko eta giza mugekin, indarrez ernatu zen mugimendu haren baitan. Kantautoreak bere gain hartzen zuen igorle-papera betetzeko erantzukizuna. Anplifikatzaile gisa betetzen zuen funtzio sozialak kontzienteki gainditzen zuen haren alderdi artistikoa. Letek zioen, Ez Dok Amairu taldeak honako helburua izan zuela: “kanta-mugimendu berri oso bat sortzea eta Euskal Herrian sortzen ari ziren kultur mugimendu guztiekin koordinatzea, hala alor poetikoan nola politikoa, ordu-ra arte hutsik egondako eremu bat betetzera zetorren fronte berri moduko bat eratzea”.

J. A Irigarai: “Guk geure herria orain eta hemen eraikitzen bideratuko ditugu geure indarrak, baita kantaren bitartez ere”.

Peio Ospital: “Kantatzea borroka egiteko modu bat zen. Euskal kontzientzia suspertzeko mugimenduaren zati bat”.

Eñaut Etxamendi: “Kexatzeari utzi eta haserretu egin behar ginen. Hor nahi nuen nik: haserrea

sortu, haserrearekin gero matxinada dakarrelako berrekin. Eta hori da askatasunerako bidea”.

Marc Biosca, *Haiek zergatik deitzen diote Euskal Herria eta guk Ithaka?* Alberdania, 2009

1960ko hamarkadatik hasita euskaldunen imajinario kolektiboan eragin handiena izan zuen kantagintzak ezaugarri berdintsuak dituela dio Bioscak bere saiakeran: alde batetik, kantu herrikoien berreskurapena eta hedatzea; eta bestetik, idazleen eta musikarien elkarreraginetik sortutako kantagintza propioa. Iturri zaharretik ur berria edatea, alegia.

Euskal kantagintza berriak nazio kontzientzia sortzeko ahalmena erakutsi zuen. Sinboloak sortu zituen eta sinbolo horiek gure imajinario kolektiboa elikatu dute, gogoan iltzatu zaizkigu, gure diskurtso politikoa-ren oinarria ere izateraino. Horra adibide goren Artzek idatzi eta Laboak musikatutako *Txoria txori*, askatasunaren eta bakearen sinbolo noranahikoa; horra aurrekari izan zuen Iparragirreraren *Gernikako arbola*. Baina noiz arte? Baina zenbateraino? Ez Mikel Laboa ez Joxan Artze ezagutzen ez dituen mende berriko gazte euskaldunari zer sentipen pizten zaio “Hegoak ebaki banizkio / nerea izango zen” entzuteak? XXI. mendeko

abertzale independentista batentzat zeren sinbolo da
Gernikako arbola?

Gernikako arbola
Da bedeinkatuba,
Euskaldunen artean
Guztiz maitatuba.
Eman da zabaltzazu
Munduban frutuba;
Adoratzen zaitugu
Arbola santuba.

Mila urte inguru da
Esaten dutela,
Jainkoak jarri zubela
Gernikako arbola.
Zaude bada, zutikan
Orain da denbora,
Eroritzen bazera
Arras galdu gera.

Gernikako arbola. Jose Mari
Iparragirre, XIX. mendea /
Kontrapuntoak, 1963 / Patxi Andion, 1973 /
Gontzal Mendibil, 1992 / Oskorri, 1999

Hegoak ebaki banizkio
nerea izango zen,
ez zuen alde egingo.
Hegoak ebaki banizkio
nerea izango zen,
ez zuen alde egingo.

Bainan, honela
ez zen gehiago txoria izango
Bainan, honela
ez zen gehiago txoria izango
eta nik...
txoria nuen maite
eta nik...
txoria nuen maite.

Txoria txori. Joxan Artze, 1969 /
Mikel Laboa, 1974 /
Etsaiak, 1995 / Gontzal Mendibil, 2007 /
Floxbin, 2016

Daniel Landartek eta Errobikoek sorkuntza artistikoa, kantatzea, iraultzarako beste tresna baten gisa aurkezten digute, Euskal Herriaren askapenerako birtarteko bat.

Badakigu bai, kantuaz beste,
nahi duela Herriak...
Bainan ez dira denontzat berdin
iraultzaren iturriak
Bakoitzak beraz, bere sailean,
ezar ditzala harriak...
Elkarren lanak, ongi uztartuz,
altxatzen dira etxeak!

Etxe batean, nork ez du maite
beti kantuz ari dena?
Baina kantua, ez da ez aski,
egin behar ere lana!
Gaurko kantu hau izan dadila
gure lekukotasuna...
Burruka gaiten irabazteko
Euskadin askatasuna!

Gure lekukotasuna. Daniel Landart /
Errobi, 1977 / OST, 2011

Daniel Landartek idatzitako kantu ia guztien eske-
ma antzekoa da: azalpena, aldarria eta entzuleari es-
kari argia: zerbait egin behar duzu, ezin zara bertan
goxo laketu, azkenetan gaude, hizkuntza eta lurra gal-
duko ditugu, dena ebatsiko digute. Landartek berak

honetaxe deskribatzen du letragintzan aritu zeneko garaia nola gogoratzen duen:

Gero, Anje Duhalde eta Mixel Ducau izan ziren Errobi taldearen sortzaileak. Nik, harremanak, Anjerekin nituen bereziki. Olerki batzuk jarraituki ematen nizkion, abertzaletasuna eta langileria aipatzen zutenak, haiek baitziren nire kezkarik nagusienak.

[...] Zinez atsegingarri zitzaidan idatzi nituen he-
mezortzi olerki Errobi taldeak kanta zitzaizkidan. Aitor-
tuko dut halere, musika mota hura, hastapen har-
tan, franko berezia kausitzen nuela. Ni, aitaren
kantuekin gelditua bainintzen eta rock estiloa ez
bainuen hanbat ezagutzen. Baina aski aise jarri
nintzaion, eta egia erran, preziatzen nuen Anjek
eta Mixelek kantuen hitzak ongi ahoskatzen baitzi-
tuzten, musikarekin batera hitzak arras ongi en-
tzuten eta ulertzen baitziren. Hizkuntza eta
mezua, alabaina, garrantzitsuak zitzaizkidan.
(Aldiz, geroztik sortu talde batzuk ez balute euskal
rocka idatzia ukan, ez nuen asmatuko ere euska-
raz ari zirenik). Hizkuntza eta mezua goraipatuz ez
nuke musikaren balioa menderatu nahi.

Daniel Landart, *Enbataren zirimolan*. Elkar, 2013

Errobikoak ditugu, Niko Etxartekin batera, euskal rockaren aita ponteko, besteak beste Itoiz-ekoek zein Hertzainak-ekoek aitortu lege. Haien hitzetan igar litezke Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoaren frantziarreatatik turismoaren bitarteko kolonizazioa, langile klasearen aldeko deiadarra, euskararen eta euskalduntasunaren galeraren inguruko alarma eta Euskal Herriaren alde borroka egiteko deia. Ez alferrik, Daniel Landart, idazlea ez eze, politikari eta euskalgintza zein kulturgintzako militante engaiatua baitzen.

Pantxoa eta Peiok kantu herrikoiez gain, Manex Pagolaren, Telesforo Monzonen edota Manex Erdozaintzi Etxarten letrak ere interpretatu zituzten. Manex Pagolak, kantugintzari eta politikagintzari buruz galdeturik, zera ihardesten du:

Galdera interesgarria. Hala ere, konplikatua, zeren bi gauza normalki arras ezberdinak dira politika eta kantugintza edo soinu-gintza... Baina egia ere da bien arteko lotura, kantu/musika/olerki eta politikaren artean lotura hurbila egin daitekeela hala beharrean. Eta zendako ez, nik hala egin dutala batzutan? Ez beti beraz ez baitzen posible, ez baitzen behar ere, baina egia da batetik bes-

tera askotan ibili naizela. Zendako? Zeren eta aspalditik senditua nuen ene inguruko jendea politikako ideieri biziki arrotz zela, sozial gaiei ere, erran nahi baita ez zela hanbat axola sozialki gertatzen zenaz, ez baitzuen ere gogo moldaketarik hortarako. [...] Beraz kantuarekin eta musikarekin nahi ukan dut halere gehienetan jende horren bihotza harrapatu, hunki eta sendimendu batzu sorrarazi.

Manex Pagola, *Bere kantagintza eta argibide zonbait*. Elkar, 2016

Komunitate bateko kide izatearen sentimendua dago Pagolaren gogoetan, hain zuzen, komunitate horri bere ekarpena egiteko gogoia. Ez du subjektu pasiboa izan nahi, ez du inoren nahietara bizi gura. Eragitea da asmoa: “Ta gu hemen Euskaldunak! / Gure borroka ez da galdua! / Gizonak bagara, / Posible dea / Denak hortan uztea!”.

Iparragirrek herriz herri kantatu zuen 1877an: “Zuregatikan emango nuke / Pozik, bai biziya / Beti zuretzat il arteraño / Gorputz eta anima guziya”.

Lauaxetak 1935ean: “Orduan ozte-aldea / aberri-
minez kantari: / ‘Dana emon biar yako / matte dan az-
katasunari’”.

Martiritza, entrega totala, herriaren alde, askata-
sunaren alde. Gizontasunaren froga ukaezina. Eta sen-
timendu hori lortzeko, letrak aratza behar du izan eta
doinua sarkorra. Herria sortzaileari barik, sortzailea
bera da Herriari engaiatzeko eskatzen ari zaiona.

Euskadi odoletan dute herrestatu
Ezpata ukalditan puskatu!
Gu Euskadiko semek, hor behar ixildu,
Maitatzea omen da bekatu!
Ez, euskalduna, ez! Ez gaiten ba lotsatu!
Ulitsak lehoina aurtiko du!

Kanta zak euskalduna
Kanta zak hire herria
Kanta zak euskalduna
Hire aberria!

Kanta aberria. Manex Pagola /
Pantxoa eta Peio, 1975

Sortzailea eta konpromisoa, aldiro-aldiro errepikatzen den eztabaida, garaian garaiko testuinguru historikoaren arabera eraldatuz doana. Nola azalduko ote du Itxaro Bordak hogeitau urte barru zerk eraginda sortu zuen *Omaha berri* kantua? Jadanik borroka armatua utzia zuen ETako presoek zuzendutako kantua da?

Bakea bakea hor dugu.
Damua damua hor dugu.
Gertatu zenaren aldera.
Barkatu barkatu barkatu.

Omaha berri. Itxaro Borda / Beñat Axiari,
Joseba Irazoki, Julen Axiari, 2017

Edo sinpleki gure herria astindu duen gatazka politiko-armatuari buruzko barne gogoeta dela erantzungo dio elkarrizketatzaileari?

Diskoaren liburuxkak dakarren azalpenak arrastoren bat dakarkigu:

...non ere ametsak bizitzari buruzko iparrorratz poetikoaren antzera arrazartzen diren, non oromena ez den ukatua...

Beñat Axiari, Joseba Irazoki, Julen Axiari,
*Bas(h)oa*n. Elkar, 2017

Manex Pagolak honela erantzun zion *Kanta aberriari* buruz galdetu zionari:

Pixka bat aberriaren muina azaltzeko sortu nuen kantu hori, esplikatuz nola ikusten nuen denbora hartan, beste jende ainitzek bezala, Euskal Herria.

Manex Pagola, *Bere kantagintza eta argibide zonbait*. Elkar, 2016

Agurtzane Ortiz Lopetegik Manex Erdozaintzi-Etxarti buruzko biografian argiro laburbiltzen ditu poetaren helburuak:

Erdozaintzik helburu zehatza zuen: herritarren-gandik zetorren eta zuzenduriko poesia egitea. Baina horrek badu arrisku bat: poetaren helburuari lehentasuna ematea, poetikotasunaren printzipioen gainetik. Eduki herrikoiak landu nahi izateak eta herritar xumeenak ere ulertuko lukeen idaz-tankera erraza eta argia erabiltzeak idatzi literarioaren poetikotasuna murriz dezake, edo erabat desagerrarazi, olerkigintza doktrinario, militante

eta iraultzaile hutsa eginez, ñabardurei edo baliabide estilistiko poetikoei lekurik egin gabe.

Agurtzane Ortiz Lopetegi,
Manex Erdozaintzi-Etxart,
herriaren poeta. Elkar, 2010

Arestik esan legez, herriaren ahotik debalde jasotakoa herriari debalde emateko poesia. Erdozaintzi-Etxartek, garaikide zituen poeta eta letragile gehienen gisa, politikaren eta sorkuntzaren arteko barne gatazka bizi zuen. Batetik, bazekien neurri politikorik gabe nekez biziraungo zuela euskal kulturak. Bestetik, jabetzen zen poetikotasunarentzat politikakeriekiko askatasuna eskatu beharra zegoela. Sortzailea eta konpromisoa, literatura eta iraultza, lubakietarako lur emankorra.

Telesforo Monzonek ez bide zuen arriskurik ikusten eta mezua beste guztiari gailendu zekion idatzi zituen Pantxoa eta Peiok zabaldu zituzten kantuak: *Itziarren semea, Batasuna, Ikastoletako ereserkia, Txikia, Aita kartzelan duzu, Irabazi...*

Aupa gizona, jaiki mutil!
Atzar emazte ta neskatil!

Borrokarako dei egiñaz
Irrintzi bat dabil!

Euskal Herria diagu zai,
Presoak eta hilak ere bai!
Abertzale izan ezkeru gaur,
Gauden denok anai!

Batasuna. Telesforo Monzon /
Pantxoa eta Peio, 1975

Kantu horien mezuak, mamia, milaka euskaldunen iparrorratz ideologikoa izan dira zenbait hamarkadatan, zenbatezinezko manifestazio, elkarretaratze, kaleko liskarretan kolektiboki oihuztatu direlako, edota kanturako zaletasuna gal ez dadin plazaratu ditugun kantu-liburu guztietan ageri direlako.

Lepoan hartu ta segi aurrera,
lepoan hartu ta segi aurrera.

Gazte bat aurrean aurkitu dugu
lore gorritz beterik kolkoa
Burdinen artetik ihesi dator
euskal gaztediaren oihua.
Mutilak, eskuak elkar gurutza

ekin ta bultza
denak batera,
Bidean anaia erortzen ba zaik
lepoan hartu ta segi aurrera!

Lepoan hartu ta segi aurrera.

Telesforo Monzon /

Pantxoa eta Peio, 1975 / Etsaiak, 1994

Egun ere ez da izango kantu-lagun edo kantu-jirarik, Monzonek sortu eta Pantxoa eta Peiok interpretatutako abestiok ausarki abesten ez dituenik. Tortura entzun eta *Itziarren semea* erantzun, dena bat.

Itziar-en semea; hori duk mutila!
Nihor salatu baino naiago du hila...
Harro egon litake Maji neskatila,
Ezpetxetik jali ta joanen zaio bila!
Maji neskatila, hori dun mutila!
Nihor salatu baino naiago du hila!

Itziarren semea. Telesforo Monzon /

Pantxoa eta Peio, 1975

Kantu molde horren beste adibide paradigmaticoa *Kalera, kalera* pieza da, urtetan -eta oraindik ere- Monzonek idatzia zela uste izan dena, baina benetan Imanol Urbietak eta Josu Txapartegik 1976an sortua, klan-destinitate giroan, egiletza aitortu gabe (aspalditik paretan esekita dago jatorrizko partitura Zarauzko Arrano elkarteak; bidenabar esanda, partitura horretan kantua izenburua *Amnistia* da, ez *Kalera, kalera*). Oso oso berandura arte ez zen diskoan argitaratu, baina ahoz aho ederto batean transmititutako kantua izan zen. Ahoz ahoko transmisio horren ondorioz, kantuak izenburu ugari jaso izan ditu: *Borrokalaria kalera, Zain dago ama, Hator, hator...* Diskoetako errepertorioetan egon barik ere, zuzeneko kontzertuetan sarritan eta berrikitan interpretatu ohi den kantua da -Su Ta Gar-ek (2008) edo Gatibu-k (2014) kasu-, interneten dauden bideoetan ikus daitekeenez. Zenbat bider kantatu ote da lagunartean, elkarretaratze publikoetan?

Kalera, kalera, borrokalaria kalera,
kalera, kalera, borrokalaria kalera,
hire indarraren beharra diagu
gure indarrarekin batera
hire indarraren beharra diagu
gure indarrarekin batera.

Kalera, kalera. Imanol Urbietta,
Josu Txapartegi, 1976 /
Hesian, 2013 / Fermin Muguruza, 2013

Asmoz eta jarreraz, jendeak kantatzeko abestiak dira, nazioa eta klase borroka erreibindikatzeko. Gal-tzaile izatearen kontzientzia sano nabarmena da, baita etsipenari amore ez emateko deia ere. Andoni Tolosa *Morau* kantugileak antzeko ezaugarriak dituzten kantuen aditzei erreparatu zien *Gara* egunkarirako zutabe batean (“Agintera”, 2016-08-04). Zergatik daude horrenbeste aginterazko aditz gure kantutegian?

Xabier Letek *Euskal kanta berriei begiratu bat* goiburupeko artikulua plazaratu zuen *Oarso* aldizkarian, 1971n. Leteren obra osoa, poeta zein kantari gisa, zeharkatzen duen kode deontologikoa da:

Gauza baten aurka egonen naiz beti: kantari baten edo artista baten lana funtzionaltasunaren aldetik bakarrik estimatua izatearen aurka, alegia.

[...] Kantari bat ezin liteke “honako egoera hon-tan” “halako pentsamolde edo postura” baten al-taboz hutsa izan. Ez dakit kantaria herriaren serbi-

tzurako izan behar dela esatea ondo dagoen ala ez; baina nola nahi ere, serbitzutasun hori ezin liteke hiru edo lau ideia edo iritziren, hiru edo lau gairen repetitze bezala ulertu.

[...] Ez gintezke, beraz, funtzional hutsak izan, nahiz eta batzuek horrela uste. Batzueri entzunaz, badirudi kulturaren martxa guzia berek jotzen duten txilibituaren aginduetara jarri behar dela. Herriak “honela” edo “horrela” nahi omen duela-ko, noski. Bai; nola ez. Herriaren borondatea interpretatze hontan jende pizkor asko dabil inguru hauetan. Baina kantariak ere herri gera, Herria dira, bai eta ere, herritasun berarekin, euskaldun tontoena edo listoena. Baina biok ez dute arrazoi berdina.

[...] Hala ere, oraingoz orain pikotara joan ez gaitezen bide bakarra geratzen zaigu: beti gu eta beti hemen, lanean ahalik eta jatorren jarraitu.

Xabier Lete, “Euskal kanta berriei begiratu bat”, in *Oarso*, 1971

Sorkuntzaren izateari eta egitekoari buruzko argitasun hori bere euskalduntasun eta abertzaletasunarekiko duen barne borroka zaugarriarekin bizi izan

zuen Letek. Herria maite eta gorrotatu egiten zuen,
euskaldunei mira eta herra zien era berean.

Euskalerri nerea, ezin zaitut maite
Baina non biziko naiz zugandik aparte!

Euskalerri nerea. Xabier Lete, 1968

Joxan Artzeren antzera, poesia existentzialistatik poesia mistikorako bidea egin zuen Letek eta bizitzaren misterioei buruzko poemen okerreko erabilerak luzaro sufriarazi zion. *Izarren hautsa* kantuaren letra bitan aldatu zuen ezker abertzale independentistak borrokan segitzeko ereserki legezt kantatzen zuelako: “Gu sortu ginen enbor beretik / sortuko dira besteak”.

Internazionala langile klasearen munduko ereserkiaren ahaireetan konposatu zuen Mikel Laboak *Mar-txa baten lehen notak* izango zena eta Joxan Artzeri eskatu zion ez *Internazionalak* legezt kolektiboari erreparatzeko, ezpada pertsonen arteko elkartasuna iradokiko zuen letra asmatzeko.

Batek goserikan diraueno
Ez gara gu asetuko
Beste bat loturik deino

Ez gara libre izango.

Martxa baten lehen notak.

Joxan Artze / Mikel Laboa, 1980 /

Morau, 2000 / Oreka TX, 2006 /

Mikel Urdangarin, 2011 /

Pier Paul Berzaitz, 2011 / Iheskide, 2012 /

Herri Oihua, 2012 / Aire Ahizpak, 2014

Eta herriak, *Internazionale* kantatzen zuen eran kantatzen zuen, langile klasekoen arteko ereserki gisa. Eztabaida gehiago sorrarazi zituen bikote berberaren *Zilbor hesteak*-ek.

Bi kate;

Biak ebaki beharrezkoak

bat gorputzaren bizitzeko

bestea gogoaren askatzeko.

Zilbor hesteak. Joxan Artze / Mikel Laboa, 1969 /

Bap!!, 1990 / Aire Ahizpak, 2014

Ama biologikoaz ari da edo ama Euskal Herriaz, hau da, aberriaz?

Zentsurak behartutako sinbolismorako joerak eta egoera hiperpolitizatuak kutsatutako giroan arnasa hartzeko zirrikitu gutxi zituen gure kulturgintzak. Ortodoxia nagusi zela gogoratzen dute gaur, orduan gazte ziren idazle eta musikari askok. Errana dugu, kantuek sekulako indarra dute sinboloak sortzeko eta sinboloekin errazago lortzen da hunkitzea, eta hori ondo dakite kultura politikaren zerbitzuan erabili ohi dutenek.

Kantua herria askatzeko, kantatu herria zerbitzatzeko. 1975ean karrikaratu zen disko bati buruz ari gara, Txiki, Otaegi eta FRA Peko hiru kide fusilatu zituzteneko giroan sortutako kantuez, Franco hil zen urte bereko askatasun gosez.

Bi urte lehenago, Joxan Artzek sano argi adierazi zuen zergatik eta zertarako kantatu:

zure askatasunagatik
borrokatzen banaiz
kantatzen badut,

[...] libre behar zaitudalako baizik

zure askatasunean
zure zorionean ez ezik
ez baitut neurea
beste inun ikusten

Zure askatasunagatik. Joxan Artze, 1973 /
Benito Lertxundi, 1974 / Sen, 2002

Imanol Larzabalek ere musikatu zuen *Zure askatasunagatik* izenburu bereko beste testu bat 1979an, Mikel Arregik idatzia (kantu horretako errepika-lerro batek eman zion albumari titulua: “Sentimenduen hauspoz”), baina hor askatasuna beste testuinguru kontzeptual batean aipatua da: “zure askatasunagatik”, “zure pozagatik”, “zure freskotasunagatik”... hau da, “zuregatik, maitea, / zuregatik bakarrik”. Disko hartan bertan, eta Mikel Arregiren beraren berbak ahotan, *Poeta kaxkarra* kantuan zera aitortzen zuen:

Ni poeta kaxkar bat naiz
eta kolore urdinez
eskribatzen dut gauez,
desio irrixtakorrak
itsuturik doaz ihes
gauaren leize-zulora,
mundua azpikoz gora,
dena jartzen dut aldrebes.

Poeta kaxkarra. Mikel Arregi / Imanol, 1979

1976ko “Herriak ez du barkatuko” bilduman, Imanolek berak, bere hitzetan, *Zergatik kantatu?* erantzun zien zalantza berbera lekarketenei. 1969an Michel Etxegaray ezizenez diskoak plazaratzen hasi zenetik aldean zeraman galdera Imanolek. 1968an kartzelatu egin zuten. Bertan sortu zuen bere lehen kantua.

Uste nuen beharrezkoa zela horretan segitzea, gauza asko behar zirela, jendeak ez zuela kontzientziarik, hori esnatzeko kantuak egin behar ziren eta horregatik hasi nintzen, behar politiko bategatik hasi nintzen.

Imanol Larzabal, in Pako Aristi,
Euskal kantagintza berria. Erein, 1985

Behar politikoek sortzailea gehiegi estutzen zuten garaian idatzi zuen Gabriel Arestik *Egia bat esateagatik*, zentsuraren eta autozentsuraren kontra, alde guztietako kritiken kontra, sortzailearen askatasunaren alde. Gabriel Arestik eragin itzela izan zuen ondorengo hainbat eta hainbat sortzailerengan, eta poeman

aldarrikatu zuen jarrerak izan zuen zerikusirik eragin horretan.

Egia bat esateagatik,
alabak
hil behar bazaizkit,
andrea
bortxatu behar badidate,
etxea
lurrarekin
berdindu behar bazait;
Egia bat esateagatik,
ebaki behar badidate
nik eskribitzen
dudan
eskua,
nik kantatzen
dudan
mihina;
Egia bat esateagatik,
nire izena
kenduko badute
euskal literaturaren
urrezko
orrietatik,
inoiz,

inola,
inun
eznaiz
isilduko.

Egia bat esateagatik.

Gabriel Aresti, 1964 / SS-77, 1990 /

Mikel Markez, 1994 / Mikel Aranzabal, 2006 /

Rafa Rueda, 2013

Eta ausartuko gara esaten eragina ez zuela soilik idazleengan izan, kantariengan ere izan zuela isla jarrrera horrek. Horra, bestea beste, Benito Lertxundi. 1974an *Zure askatasunagatik* kantatzen bazuen, 2002ko “Nere ekialdean” sortan Doris Plenn-en berbak moldatu zituen behin eta berriz errepikatzeko: “Zergatik utzi behar ote diot, zergatik utzi kantatzeari?”.

Nere bizitza, munduko arranguren
gainetik, amaiezinezko
kantu batean, airos doa
nere bizitza kantu batean.
Zergaitik utzi behar diot,
zergaitik utzi kantatzeari?

Zergaitik utzi kantatzeari. Doris Plenn / Anne
Warner, 1964 /
Benito Lertxundi, 2002

Pete Seeger-ek famarazi zuen kantu hori ez da Benito Lertxundik bere ofizioaren zertarakoak eraginda konposatu zuen azkena. Mikel Laboak 1980an plazaratu zuen “Lau-bost” disko bikoitza hasteko erabilitako poema berbera hautatu zuen Lertxundik, 2008an, “Itsas ulu zolia” diskoko lehen eskaintzan: *Kantuz* ize-nekoa. Laboak bere kantugile ibilbidearen lehen laurdenean kantatu zuelarik, helburu finkatze gisa uler genezake kantua. Lertxundik bere kantugile ibilbidearen azken-aurreko igerialdian hautatu zuen, berrespentzat edo, zergatik ez, epilogotzat:

Kantuz sortu naiz, eta kantuz nahi bizi,
kantuz igortzen ditut nik penak ihesi,
kantuz izan dudanian zerbait irabazi,
kantuz gostura ditut guziak iretsi;
kantuz, ni bezalakoak, hiltzia du merezi.

Kantuz. Jose Mendiage,
XIX. mendea / Mikel Laboa, 1980 /

Denboran jauzia eginez, 2006an, Koldo Izagirrek idatzitakoa bere egin eta autoafirmazio ariketa bat proposatu zigun Joseba Tapiak “Real Politik” diskoko *Etorbide profesionala* argigarrian:

Joko dut karu, joko dut merke
eta ez daukanak behar banindu
joko dut pozik musu eske.
Nola ez dut joko?
Joko dut hauspoak eman arte
baina inoiz ez dut joko
ez dut joko inoiz maite ez banaute.

Etorbide profesionala. Koldo
Izagirre / Joseba Tapia, 2006

Eskertuko genuke inoizko baldintzarik kaskarre-
tan, inoizko babes sozial eta instituzional gutxien
duten garaiotan, kantugintzan ari direnek antzeko go-
goetak proposatuko balizkigute. Nori idazten dio
2018ko poetak? Zertarako jendaurrean kantatu?

Galderok inork erantzuteko airean utzita, hariari berriz heldu eta gatozen iragan mendeko 1970eko hamarkadara. Oskorrikoek -Natxo de Felipek esana- itzelezko boikota pairatu zuten Gabriel Arestiren letrak musikatu zituztelako. Aresti, orduan, espainolizatzen zuten ezkerreko independentistek eta, noski, eskuindar elizkoi abertzaleek ere ezin zuten inolaz bat egin komunista usaineko jendearekin.

Jazarpena lehen diskoa plazaratutakoan bukatu eizzen. Urtebete lehenago hildako Gabriel Arestiri eskainitako "Gabriel Arestiren oroimenez" diskoa osorik potaren hitzekin osatu zuten. Hor hasi zuten Oskorrikoek 45 urtetik gorako historia, euskaldunon imaginario kolektiboan betiko iltzatuta dauden kantu bilduma paregabea utzi duena. *Despedidea* 2015eko azaroaren 22an izan zen, Bilboko Arriaga antzokian. Zuzeneko emanaldi haren grabazioa da "Hauxe da despedidea" diskoa. Bertatik entzun ditzakegun *Guretzat*, *Emazurtz jaio nintzen*, *Sautrela*, *Aita semeak*, *Gora ta gora beti*, *Euskal Herrian euskaraz* edota *Bizkaiko aberatsak* gutako milakaren izatearen ezinbesteko parte direla esatera ausartuko nintzateke. Gu kantu horiekin ere hazi eta hezi gara, gure identitatearen mami dira, gure identitatea euskarari eta lurraldeari atxikita da-

goen heinean. Kasik kantuen besteko luzea da Oskorrikoekin lan egin duten idazleen zerrenda: Gabriel Aresti larraipatuaz gain, Xabier Amuriza, Joxe Austin Arrieta, Koldo Izagirre, Jon Sarasua, Harkaitz Cano edota Unai Elorriagari eskatu zieten euren ahaireak berbez gorpuzteko.

Eta ez da laburragoa bai euren disko ia guztietan zein The Pub Ibiltaria egitasmoan kantutegi herrikoia berreskuratu eta herrikideekin zuzenean konpartitzeko egin duten lana, gure ustean, euskal kulturgintza-arentzat, bere adierazpide guztietan, estrategikoa dena. Euskal kulturarako dirua bideratzen zen sasoian errape joriei sutsuki oratu izana leporatu izan diote taldeari batek baino gehiagok. Bere diskografia arean ezagutzen duenak atoa erantzungo du *herrikoia* deritzogun kantutegia jaso, eguneratu eta zabaltzen beste inork baino ahalegin handiagoa egin zuela taldeak, prekarietatean bizitako urte latzenetan ere. Gehienetan, alegia.

Jarduera horretan ildo berberetan sakondu zuen Imanolek ere, idazleen testuak musikatzeko, herri kantua laudatzen, hasierako kantuaren funtzioarekiko iriztia eguneratzen:

[Paco Ibañezek] Inoiz ez zizkidan kritika zorrotzak egiten, zeren hasten ari den batentzat holako kritika zorrotzak botatzea txarra da, orduan, hariak ematen zituen, zergatik hau ez, zergatik hura ez, eta hor konturatu nintzen nere letrak bai, borondate handikoak zirela eta beharbada egia handiak esaten nituela baina kantagintza ez zen hori, kantagintza zen lehendabizi poemagintza eta gero musika elkar loturik.

Pako Aristi, *Euskal kantagintza berria*. Erein, 1985

SORKUNTZAREN LIBERTATEAZ

1975ean sortu zuten Koldo Izagirrek eta Bernardo Atxagak Donostian *Ustela* aldizkaria. Lehen alean ekarri zuten geroko literatura eta kantagintza ulertzeko ezinbesteko manifestua: *Ez dezagun konposturarik gal, halere*.

Manifestu hark izan zuen garrantzia eta eragina hausnartzerakoan, bat gatoz Beñat Sarasolak *Bainaren belaunaldia* libururako ondorioztatu zuenarekin:

Panpina Ustelan argitaratu zen Ustelako eta, oro har, literatur aldizkarietako testu garrantzitsuenetako bat: Ez dezagula konposturarik gal, halare. Euskal literaturaren baitako literaturaren autonomiaren aldarri lehenengotarikoa eta indartsuenetakoa dugu, batez ere lerro honengatik: *Zeren literaturak bai bait du bere dinamika propioa ta berezia*. Alabaina, hasieratik azpimarratzen zuten Atxagak eta Izagirrek literaturak, autonomia horretatik, gizartean eragin eragiten zuela. Hori nola artikulatzen zen zirriboratu zuten gainera testu hartan: *Literatura bait da herriaren boza: gizartealdaketan lagungarri denez, beste Euskal Herri baten lorketa lagundu behar du euskaldunon literaturak. Laguntza hau exkasa ta ahula izanen da, noski, literaturak, zerbait aldatzekotz sentsibilitatea aldatzen bait du, ta ez besterik*.

Beñat Sarasola, *Bainaren
belaunaldia*. Labayru, 2015

Literatura dioelarik, eroan edozein kultur adierazpenetara eta berdin balio lezake eztabaidarako. Zeri erantzun behar dio sormen lanak? Zerekiko du konpromisoa sortzaileak?

Hori da, literaturaren funtzioari buruz idazleak esan dezakeena ez da hain inportantea. Idazleak hizkuntzaren eta munduaren argitze kritiko batzuk egingo dituela espero dut. Ez dogmak eta ez erretolika, ez egoera politikoari buruzko deklarazio arruntak.

Joseba Sarrionandia, in *Bost idazle*
Hasier Etxeberriarekin berbetan.

Alberdania, 2002

Hasier Etxeberriarekin izandako elkarrizketaren txatal bat da. Antidogmatismoari buruzko gogoeta, baina, Potten sasotik datorkio, Atxagaren literaturarekiko ikuspegitik, ziur asko. Kartzelan zelarik idatzi zuen 1985eko *Ni ez naiz hemengo*a saiakera-eguneroa. Bertan daude Sarrionandiarengan bereizgarriak den gogoeta-praktika-gogoeta-praktika jardunbidea ulertzeko gako asko. Hasi *Ez dezagun konposturirik* gal, *halere* manifestuaren sasotik eta Pott Bandaren zein ondorengo urte luzetan ere, manikeismoaren eta satanizazioaren sasoiari bizi da sortzailea, are gehiago euskalduna eta zer esanik ez euskal preso politikoa dena. Satanizazioaren argudioa:

Manikeismoa eta satanizazioa, bidenabar, burmuineko egituretan ondo erroturik dugu, berezko giza joera da. Eta bide horretatik, bihotzeko bide galdu horretatik, ez da inora joaten, imajina faltsoen behelainoetan galtzera baino. Hau da, mesfidantzara eta libertateak suntsitzera.

Joseba Sarrionandia, *Ni ez naiz hemengoa*. Pamiela, 1985

Ni ez naiz hemengoa sortu zen sasoian, ETAko kidea zen Sarrionandiaren ahotan, Euskal Herrian giroa oso ideologizaturik zegoen, “diskurtso maximalista nahiko autistekin”. Frankismopetik atera eta ume-denboran jasan zituzten nazional-katolizismoarenak bezala beste dogma batzuk finkatzen ziren, marxismoaren bidez, abertzaletasunaren bidez. Joseba Sarrionandia marxista sentitzen zen baina ez marxista dogmatiko, abertzale sentitzen zen baina ez dogmatiko, ez arrazoiaren jabe. Orain jarrera haien ondorioa ikus daiteke, “horrenbeste urtetan ezer konpontzeko gauza izan ez diren alderdi politiko fosilduetan”, idazlearen beraren berbak erabiliz. Liburua idatzi zen garaia eta egileak bizi zuen egoera muturrekoa ulertuta hel gaitezke liburuaren abiapuntuan dagoenera: bes-

tela pentsatu behar dira gauzak, umiltasunez, zalan-tzaz, kontraesanak ametituz. Eta horixe trasladatzen du formara, forma fragmentario batzuetan inpresionista horretara:

Euskalduna ez da sekula izan imajinazioaren aldekoa, imajinaziorantza etorria. Euskaldunak ez du imajinazioa habitatzen. Euskal artea eta euskal literatura, euskal pentsamendua bera bezala, abstraktuak eta laburrak dira.

Joseba Sarrionandia, *Ni ez naiz hemengoa*. Pamiela, 1985

Euskaldunon imajinarioari, euskaldunon pentsamenduari osatu bakoa deritzolako ematen ditu ezin kontatuzko idazle, pentsalari, ikerlari, apaiz, kantuetako pertsonaien izenak. Gerora etorriko ziren *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* eta *Hezurrezko xirulak* poema bildumek ere, berretsi baino ez dute egingo Joseba Sarrionandiak literatura aurrez aurre ezagutu zuen egunetik literaturaren aldarte horren aurpegia duela laketa, eta uste dugu, okerrik ezean, beti izango duela beste batzuek egindakoaz jakin-mina. Egundo

abandonatu ez duen, beti aldean eroan duen poetika da, literaturaren bidez mundua ulertzeko manera:

Jarri leihotik begira, milaka pertsona pasatzen dira paretik. Begiratu hilarri hartara, biziak baino askozaz gehiago dira hildakoak, eta guzi horiek izan dute bizitza, sentimenduak, ideiak. Askok norberak baino askozaz interesgarriagoak. Orduan, begibistakoa denez, askozaz gehiago da ikastekoa eta irakurtzekoa norberak egin dezakeena baino.

Joseba Sarrionandia, *Ni ez naiz hemengoa*. Pamiela, 1985

Aurrekoaren ildotik, bi izen nabarmentzen dira gehien liburuan: Roland Barthes eta Jon Mirande. Literatura eta pentsamendua, bata lapurtarra eta bestea “zuberotarra” Parisen. Zergatik? Paradoxagatik beharbada. Roland Barthesena gauzak begiratzeko modu bat da, gauzen aldea eta bestaldea bilatzen dituen, hain zuzen, Sarrionandiak liburuko entseguetan proposatu asmo duena. Jon Mirande ere paradoxengatik, bizar-labana aho-soinutzat hartu zuen neskato politaren irribarrearena gogoan. Bestalde, euskal idazle klasikoak-edo irakurrita, Axular esate baterako, lengoaia-

ren ederraz aparte zer? Sarrionandiari interesgarria egiten zitzaionetik, ezer gutxi; Orixek ere, euskaraz aparte, ezer gutxi. Zintzotasun, fede, kristautasun gehiegi, aukeran. Eta geroko ezkerreko iraultzaileek, kristauen hamarrez gainera beste bi edo hiru manamendu gehiago obeditu beharrez, zera baino zintzoago. Sarrionandiaren gusturako, euskal literatura, literatura zintzo eta aspergarria zen Jon Mirande agertu arte. Sarrionandiarentzat literaturak inkorrektzioak behar ditu eta Jon Miranderekin dibertsioa aseguratuta dagoela iruditzen zaio.

Joseba Sarrionandiaren idazkeran eta literaturarekiko jarreran arean luzatu gara, gehien musikatu den idazleenetakoa delako, XX. eta XXI. mendeko idazle eta musikari askok behin eta berriro erreferentetzat aitortzen dugulako, bere letraren batekin osatutako kanturen bat dakarren diskoak berehala jasotzen duelako komunikabideen eta zaleen arreta. Lagun eta ezagun ditudan idazle zein musikarien arteko tertulietan behin baino gehiagotan entzun izan dudan esaldia hona ekarrita, "Sarriren letra bat kantatu duena lasai hil daiteke".

Beste batzuekin batera ekarri zuen hizkera poetikoaren berrasmatzeak idazleen testuekin lan egiten

duen kantagintzaren berrasmatzea ere ekarri zuela esango nuke. Baina bidean sasi eta otalore asko izan dituztela ezin ukatu.

Marjinalak ziren orduan gaur estimatuak direnak. Bernardo Atxagak Bilbora egin zuen, *Ustela* aldizkaria Koldo Izagirre eta Ramon Saizarbitoriaren esku utzita, eta Pott Banda eta aldizkaria sortu zituen Joseba Sarrionandia, Ruper Ordorika, Joxemari Iturralde, Jon Juaristi eta Manu Ertzillarekin batera. 1975eko manifestuan aldarrikatutakoa poesiara ekarriko zuten Atxagak lehenik 1978an *Etiopia* plazaraturik; Joseba Sarrionandiak gero, *Izuen gordelekuetan barrena* bildumarekin, 1981ean.

Esperantzaz -eta baita xalotasunez ere- beterriko garai batean (1978an) argitaratu zuen bere kasa Bernardo Atxagak liburu txiki, eder, eszeptiko eta ironiko bat, *Etiopia*. Gure kulturaren establishmentak jaramon handirik egin ez bazion ere, eragin berezia ukan behar zuen obra hark, esan bailiteke gure egungo poesian dabilen joeren aniztasuna eta noranahiko asmoa, ahalegin pertsonal hari zor zaizkiola.

[...] *Etiopiak* abanguardia ekarri zuen, transgresioa, irudiaren nagusia, marginalitatearen ederta-

suna... Poeta gazteagoen aldarri eta eredu izan zen aldi berean, belaunaldi berriek behar zuten modernotasun literarioa. Etiopia eta haren harea Arestiren harriari kontrajarri izan zaio. Ez dut esanen interpretazio zilegizkoa ez denik, baina harria bera harea-ale aunitzez sortzen baita, azken finen zentrorik ez dagoela digu adierazten harriaren hondartzeak. Eta horixe izan zen modernotasun berriaren ekarririk eraginkorrena: zentroak pluralak direla.

Koldo Izagirre, *Errealitatearen arbola* hitzaldia, 2000

Izuen gordelekuetan barrena liburuaren berrargitalpeneko hitzaurrean, Joseba Sarrionandiak honela azaltzen du sasoi hura:

Gaztea nintzen, eta beste askok bezala, labirintoaren sarrera bilatzen nuen, ez labirintoaren irteera.

[...] Liburu hau, beste asko bezala, Ordena Poetiko baten proposamena zen. Ordena Politiko erreal gogaikarri haren aldamenean, balizko komunikazio espazio literarioaren labirintora hazta-

muka sartzea, bestelako hizkera batekin, bestelako edertasun, etika eta harreman batzuen bila.

[...] Modernitatea eta kosmopolitismoa, kultura eta hipertestualitatea proposatzen ziren, gure sustraiekin batera. Baina sustraiak, ordurako, guk lepoan generamatzan.

Joseba Sarrionandia,
“Bigarren ediziorako sartaurrea”
in *Izuen gordelekuetan barrena*.
Pamiela, 2014

1980an, Ruper Ordorikak “Hautsi da anphora” diskoa plazaratu zuen, ia osorik Atxagaren *Etiopia* liburu-ko poemekin osatua. Disko horrek aro berri bat ireki zion euskal kantagintzari, bai estetikoki bai letrei dagokienez, oso lotua *potteroek* Bilbon bizi zutenari, Juan Carlos Egillorren azalak salatzen duen eran. Euskalduna ontziolako keak belztutako Bilboko zero hitsa, espainiera nagusi den hirian mundua euskarari ekarri nahia, irudien mozkorraldi bat, marjinatuekiko hurbiltasuna adierazi nahi duen collage erraldoia.

Herdoilaren tristeziarekin batera,
ziutate honen soinekoa udazkenetan lanbroa da;

eta bere sabaia laino baso bat,
non bizi den ilargiaren badaezpadako agonia.
Eta kalatxorien habi eskaleen sakelak,
eta sukalde proletarioaren argi urdinskak
murraila erraldoiaren begi gauero.

Herdoilarena. Bernardo Atxaga, 1978 /
Ruper Ordorika, 1980

Ulertezinak diruditen poemak dira *Etiopia*-koak. “Zeri buruz ari ote da?”, galdetzen genion gure buruari liburua hogeitaz geroago irakurri genuenok. Arro-tza eta era berean hurrekoa. Urrutikoa eta ezaguna. Gu Ruper Ordorikaren diskotik iritsi ginen *Etiopia*-ra eta “Hautsi da anphora”ra Hertzainak-en zuzenekoetatik. Rocka, folka eta kantautoreak jaun eta jabe ziren garaian. Musikalki ere sekulako zirrara eragin zigun. Hor ageri dira Angel Celada baterian, Jose Dufourg baxuan, Xabier Egidazu biolinarekin, Joseba Erkiaga flautan, Oskorritik eszedentzia hartuta zebilen Bixente Martinez gitarra elektrikoa, gitarra akustikoa eta mandolina jotzen, Xabier Olloki piano eta teklatueta eta Hertzainak taldeko Josu Zabala soinu handia jotzen. Euskaldunekin batera euskaraz ez zekiten musikariak, jazzean aritzen zirenak, klasikoa jotzen zutenak, folke-

tik herri kantagintza birsortzen ari zirenak. Ordura arte kantautore bati egozten zitzaizkion ezaugarriak hankaz gora bota zituen Ordorikak bere lehen diskoa-rekin eta ia osorik Atxagaren poemekin taxutzeak batasuna, homogeneousitasuna eman zion, irauteko sendotasuna, atemporalitatea.

Bigarrenarekin ildoak sakondu egin zuen Ordorikak. “Ni ez naiz Noruegako errege” diskoan dago *potteroen* hizkera poetikoaren berrasmatzearen gailurra:

Negua heldu zen azkenez eta
antzarrek V bat egin zuten zeruan,
dispensariotan antitristezi pildorak
banatu zituzten ugari
Ejiptoko zazpi izurriteren edizio
ugaldu eta korrejitua usmatuz;
zoriona gramoka saltzeari ekin
zioten trono aingeru eta kerubinek;
bertute kardinalak igotze desnatura
eman zuten Erromako boltsan,
mila liburu erregalatu zituzten bankuek
Ora eta bereziki Labora lemapean;
baina alferrik zen berandu dabilta
ez dute ezer lortuko honez gero,
palazioak lurrera doaz gartzeletako

hormak pitzatu egin dira,
eta gu libro gabiltza kaleetan tirantezko
galtza laranjaz jantzirik, libro libro.

Berandu dabilta.

Bernardo Atxaga, 1978 /

Ruper Ordorika, 1983

Bigarren disko horretarako kantatuko ditu pottkide
zituen Joxemari Iturraldere eta Bernardo Atxagaren
letra bana, eta Joseba Sarrionandiaren beste bi, bat
Izuen gordelekuetan barrena poema liburukoa, eta
bestea aurretik liburuan argitaratu gabeko *Galtzetan
gordetzeko koblak*.

“Egun enauzu neu etorri

Alberto Caeiro baino” erraiten zautan

Fernando Pessoa, eta mintzaira nahasiz

eta lokarrigabez irauten zuen solasa.

Alberto Caeiroren bisita. Joseba Sarrionandia,

1981 /

Ruper Ordorika, 1983

Hau izuen gordeleku eta belar hitsena
hau malkoen katedrala gizaseme hutsena

hau eremu bezperage biharamun motzena
hemen datza gorpu bizi herri bat izan zena.

Galtzetan gordetzeko koblak.

Joseba Sarrionandia /

Ruper Ordorika, 1983

Mundu paralelo baten deskribapena dirudi diskoak
eta bestelako mundu baten guraria ere bai. Testu ho-
riek kantatu ahala gehiengotik aparte sentitzen ginen,
harro gutxiengoan.

Ordurako Imanol hasia zen herri kantuak eta idaz-
leen testuekin sortutakoak gitarra soila ez bestelako
instrumentuekin jorratzen, jazz, folka eta rock pro-
gresiboa uztartzen.

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan
nolabaitezko kate geldian
unez uneko lerroan
guztia present bihurtu arte
nor izanaren erroan.

Ez nau izutzen negu hurbilak (Neguaren zai).

Xabier Lete, 1981 / Imanol, 1982 /

Mikel Laboa, 1985 / Xabier Lete, 1991

Txomin Artolak ere banda oso batekin musikatzeko dituen rock/folk/country eran Walt Whitmanen edo Goetzon Alemanen poemak “Belar hostoak” eta “Ttakun ttakun” diskoetan.

Baserriko ate zabalak irekiak eta prest daude
uztaileko belar-igarrak mantso doan orga betetzen du
nabarra eta berde nahasi artean, argia jostari
eta hango sapaian, besatarak pilaka.

Baserriko ate zabalak. Walt Whitman /

Txomin Artola, 1978

Beste iruditeria bat dakarte *potteroen* kantuek, lurrrari eta itsasoari lotua baino, hiriari eta labirintoari atxikiagoa. Animaliak ezlekuetan ageri dira, natura lekuz kanpo dago hirian.

Itoiz-en bigarren diskoa, “Ezekiel”, disko kontzeptuala izan zen, bizi zen garaian, bizi zen gizartean lekurik aurkitzen ez zuen mutil gazte baten istorioa, The Who talde ingelesaren *Tommy* rock opera dakarkiguna

gogora. Juan Carlos Perezek esana da eurek hasierako urteetan ez ziotela batere garrantzirik ematen letrei, garrantzitsuena ezbairik gabe musika zela. “Ezekiel” diskorako, ostera, Joseba Alkalderi eskatu zioten disko osoaren letrak idazteko (handik sei urtetara argitaratuko zuen Alkaldek lehen eta oraingoz azken poema liburua: *Babiekaren hotzikarak*; Susa, 1986). Alkalderen idazteko manierak *Etiopia*-ren eragin nabarmena du eta hala ikusten dugu Ezekiel gaztearen egonezina, irudien errenkada batean, *Herdoilarena* edo *Berandu dabilitza*-ko collage hartan legez:

desafinatzeke nahasirik gabe
jadanik agure itxura eutsirik
gauaren pareta “sprai”atu duzu
hamazazpi urteak
hamazazpi zuri dira ezeziel
mingotzaren merkromina ezeziel
eter labur bat zara
hari single bat zara
betiko
eremuko dunen atzetik dabil
zulo urdin guztiak miatu ezinik
eta euri zitalari esker bizi da

Ezeikielen prophezia. Joseba Alkalde / Itoiz, 1980 /

Ruper Ordorika, 2013 / TikTara, 2015

“Ezekiel”en osteko diskoetan letrei garrantzi handiagoa ematen hasiko dira Itoiz-ekoak, euskal pop talderik ezagunena bihurtu zen garaian, eta Bernardo Atxagarekin harreman iraunkorra izango dute.

Orain herritik mutil bat falta da
ez dago inor bere etxeko leihoan
baso ilunetan dabil hegaletan
txantxangorriak bezala
Orain ba du bihotz nimino bat
eta bi hegal bi hegal euriz bustiak
Bularra du ere gorri kolorekoa eta
eta txantxangorria da
Txantxangorria naiz
baso ilunetan
bete zait ametsa.

Hegal egiten. Bernardo Atxaga / Itoiz,
1985 / Bronze, 2013 / Ero, 2016

Sorkuntzaren eta sortzailearen autonomia edo askatasunean sakondu gura zuen ildo berean, Nemesisio

Etzaniz 1951n aldarrikatutakoa eguneratzeko deia
luzatu zieten idazle eta musikariei *Jakin*-ekoek. Mezu-
keriaren aurka, sortzaileei itolarria eragiten zien giro
politizatuegian arnasa poxi bat hartzen uzteko deia.
Kantagintzaren autonomia, sortzeko askatasuna.

Eta aurrerantzean zer?

Gure herria bizimolde berritan abiatu nahirik
denez, euskal kanta ere bide berri bila hasi beha-
rrean aurkitzen da. Hasia da jadanik. Orain artean,
hitzak izan du garrantzia kanta berrian: hitzak era-
baki ohi zuen euskal kanta zein zen, mezuaren
funtzioan bide zegoen kanta. Musikaren kaltetan
sarri. Hemendik aurrera, kantaren hedadura guz-
tiak hobeki zaindu beharko dira. Esan nahi bait da,
hitzak, doinua, interpretazioa eta jendearen aurre-
koa.

Orain arteko berdinkeria edo uniformismoaren
aurka, kantagaiak, kantamotak eta kantaldiak
desberdinduz, diferentziazatuz, aberastuz joan be-
harko dute. Herri prozesuan murgildurik, eta hori
potentziazatzen egon nahi badu. Erresistentzi abesti
hutsez ezin gaitezke konforma, abagadune berri-
tan: biziera osoaren adierazgarri behar du kantak,
gai ugariagoak kantara ekarriz. Publikoaren aurre-
rako formula berriak aurkitu behar ditu kantariak:

badago eredurik munduan eta gure tradizio herri-
tarrean.

“Editoriala”, in *Jakin*, 4. zbka., 1977

Ordurako batzuek hartua zuten erabakia.

Baina oraindik aldarri kantuak indar handia erakusten zuen. Kantaldi politikoen aro loriatsua 1979 aldera amaitzen bada ere, aldarri kantuak bere bidean sendo jarraituko du.

Euskarak biziraun dezan kantatu

1960ko hamarraldiaren bukaeran eta 1970ekoa-ren hasieran euskaraz kantatzea etengabe atzera egiten ari zen hizkuntza batean kantatzea zen. Euskara batua lurralde osora hedatuz joan zen poliki-poliki, ikastolei esker batez ere, eta bide ofizialen inolako babesik gabe. Mugimendu horren normalizazio eta zabalkunderako bozgorailurik indartsuenetako bat euskal kantagintza berria izan zen. Kantagintzak prozesu horretan izan zuen benetako esanahia ulertzeko, kontuan izan behar da euskal hiztunak ez ziren eta kantek ziotena batere ulertzen ez zuten euskal herritar askok eta askok beren-berena zen kultur adierazpen bat bezala hartu zutela euskal kantagintza berria. Horrek garbi erakusten digu kantagintzatik ondorio komunikatibo eta estetiko berehalako bat hedatzen zela, gauzatzen hasi berria zen proiektu kolektibo horren sinbolo eta erreferente bilakatzeko.

Euskararen berreskurapenak idazleen eta musika-
rien kezka iturri izaten darrai. Ber gauza herri ekime-
netik sortutako euskalgintzarentzat. 1974an Donostia,
Loiola, Iruñea eta Bilboko Herri Irratiek 24 orduko irra-
tsaioa egitea erabaki zuten, osorik euskaraz. 1978an
Euskaltzaindiak Bai Euskarari kanpaina antolatu zuen.
Amaierako ekitaldi masiboa San Mames futbol zelaian
burutu zuten. Bertan kantatu zituztenekin diskoa pla-
zaratu zuten. Doinu herrikoia baliatuta Telesforo Mon-
zonek idatzi eta Pantxoa eta Peiok interpretatu zuten
kanpainarako beren-beregi sortutako kantua:

Eta bai, eta bai,
Nik euskarari bai ta bai!

San Juan loreek usaina dute
eta herriek arima
Euskal Herria euskara barik
hirin gabeko ogia!
Euskal Herria euskara gabe,
hegal gabeko usoa
Uso gaztea aidatu hadi
eta eguzkiraino hoa!

Bai euskarari. Telesforo Monzon / Pantxoa eta
Peio, 1978

XXI. mendera arte, idazleen eta musikarien artean sortutako kantu askotan ageri da Euskal Herria eta euskara banaezinak diren aldarria. Iparragirreraren garaitik mende oso bat baino gehiago eman dugu lurraldea eta hizkuntza bat direla ohartarazten:

Anai-arrebak, entzun ene aho-hotsa:
izaite bat ez daike hezur hutsez osa;
herria da gorputza, hizkuntza bihotza;
bertzetik berextean bitarik bakotxa,
izaite horrendako segurra hil hotza.

Batzu herriaz orroit, euskaraz ahanzi
bertzek euskara maite, herria gaitzetsi;
hizkuntza ta herria berex ez doatzi,
berek nahi daukute konpreniarazi
bata bertzea gabe ez daizkela bizi.

Herria eta hizkuntza. Xalbador, 1964 /
Mikel Laboa, 1980 / Amaren Alabak, 1999

Zer Euskal Herri litzake bere
hizkuntza ere galtzen duena.
Ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena.

Euskal Herrian euskaraz.

Xabier Amuriza / Oskorri, 1982 /

Etxepare Rap, 2014 / Physis versus Nomos, 2017

Era berean, euskara galtzen bada, euskara jakin
eta erabiltzen ez dugunon axolagabekeriagatik izango
dela kantatu dugu:

Guztiok gara euskaldun
guztiok anaiak gara
Nahiz eta hitz ezberdinez
bat bera dugu hizkera.
Herri bat dugu osatzen
Eta gure zabarkeriz
ez daigun utzi hondatzen.

Bagare. Bittor Kapanaga /

Gontzal Mendibil eta Xeberri, 1976 /

Etsaiak, 1997 / Nahixan, 2011 /

The Sparteens, 2011 / Kerobia, 2015

Hizkuntza galdu ez dadin dugun erantzukizuna kantu horietan guztietan nabarmentzen bada ere, tonua da batetik bestera aldatzen dena. Batzuek kedar edo errieta tonua darabilte, beste batzuek irakaspenarena eta badira ahaleginaren alde onuragarria hobetsi dutenak, bekoki iluna baino, irria gurago dutenak:

Guk euskaraz, zuk zergatik ez?

Guk euskaraz, zuk zergatik ez?

Euskara putzu sakon

eta ilun bat zen.

Eta zuek denok ur gazi bat

atera zenuten

handik nekez.

Guk euskaraz, zuk zergatik ez.

Gabriel Aresti, 1967 / Urko, 1976

Parentesi bat zabaldu eta *Guk euskaraz, zuk zergatik ez* kantu ezin ezagunagoari buruz argibide batzuk eskaini gura ditugu. Kantutegi gehienetan hitzak Gabriel Arestirenak direla ageri den arren, berez, Arestik ez zuen letra horrela idatzi. Iturri izan zen poema

Arestiren *Gazi*: Geza: Gozo izan zen, *Euskal herria* bil-duman irakur daitekeena. Urkok, poema horretako zatiekin osatu zuen letra eta gero “Guk euskaraz, zuk zergatik ez?” errepika erantsi zion. Are, esango genuke kantuari indar handiena errepikak eman ziola. Ez da Urko horrela jokatu duen bakarra, noski, hamaika-txo kantu ditugu musikariak, idazlearen baimenaz edo baimen barik, jatorrizko testuak moldaturik plazaratu-takoak. Hori ere bada kantua sortzearen parte.

Parentesia zarratu eta euskarari buruzko abestietara itzuliz, genioen batzuen hitzek agiraka egiten di-gutela eta beste batzuenek, ostera, kemena transmi-titzen. Galera kolektibo baten kontzientzia dago, inon-dik ere guztietan. Euskara galtzen ari gara, euskara galtzen bada Euskal Herria galduko da, Euskal Herria galtzen bada euskaldunok galduko gara. Euskarak egi-ten gaitu, euskara da gure identitatearen funtsa, euskararik gabe ez gara, ez dugu lurrik, ez dugu historia-rik.

Ideia multzo jakin baten laburpen petrala da, eus-kalduntasunari eta abertzaletasunari loturiko topiko markatuz betea. Koldo Izagirreren eta Imanolen hase-rra piztu bide zuena:

Nire euskaltasuna baso bat da,
eta ez du zuhaitz jenealogikorik.

Nire euskaltasuna dorre bat da,
eta ez du Alostorrerik.

Nire euskaltasuna bide bat da,
eta ez du zaldizkorik.

Nire euskaltasuna lore bat da,
eta ez du aldarerik.

Nire euskaltasuna itsaso bat da,
eta ez du almiranterik.

Nire euskaltasuna liburu bat da,
eta ez du sotanarik.

Nire euskaltasuna mundu bat da,
eta ez du Amerikarik.

Nire euskaltasuna bertso bat da,
eta ez du txapelik.

Nire euskaltasuna pekatu bat da,
eta ez du mea-kulparik.

Nire euskaltasuna Aime Cesaireren poetikarekin erka dezakegu. Cesaire martinikarrak “negritude” konzeptua asmatu zuen europar kolonialismoaren arrazakeria salatzen. Europarrek gutxiespenerako erabiltzen zuten terminoa, beltzen identitatearen harrotasunerako erabiltzea proposatu zuen Cesairek, bai bere idazle jardunbidean bai politikagintzari eskaini zizkion urteetan. Beltza izatearen harrotasunak, oster, auto-kritika ere bazekarren berarekin, Cesairek gogor ekiten baitzien zurien menderakuntzaren aurrean matxinatzen ez ziren beltzei. Euskalduntasunaren zenbait topiko iraunarazteak (euskaldun zintzoa, fededuna, berbakoa, langilea...) menperatzaileari arrazoia besterik ez dio ematen eta hori iraultzeko beharra ageri da kantuan. Zein da gure Volksgeist-a? Zein da gure berezko izatea, Aitzolen enkarguz Orixek *Euskaldunak* poeman proposatzen duena? Uitziko baserri giroko hori da euskal identitatearen errepresentazio gorena?

Koldo Izagirrek eta Imanolek horrekiko loturak hautsi nahi dituzte. Euskaltasun moderno eta laikoa

proposatzen digute, euskaldun izateko modu bat bai-
zen gehiago dagoela, ez dagoela arautegirik euskal-
dun izateko derrigorrean bete beharrekorik. Koldo Iza-
girre pasaitarra da, Pasaiaiko moilakoa, mundu osoko
itsasontzi, langile eta hizkuntzak entzunez hazitakoa.
Arantzazuko zeruaren mailatik beherago.

Bistan da, bide askoz luzeagoa, eragin askoz sako-
nagoa izan dute Xalbador, Monzon, Aresti, Kapanaga
eta Amurizaren euskarari eta euskalduntasunari bu-
ruzko hitzek Izagirrerenak baino. Hala ere, gaur egun
euskal identitatea berrezaugarritzeko dugun premia
kantu horrekin has genezakeela iruditzen zaigu.

Gerora ezagun ditugun euskarari eta euskaldunta-
sunari buruzko kantuen artean, bi ekarri gura ditugu
gogora. Baga:

Barakaldokoa naiz eta
daukat paro obrero
horregatik euskaltegira
noa ni egunero.
Euskaraz bazekien nire
bisabueloak edo
baina ni rollo hontaz
orain arte zero,
goizero, goizero

AEKan bezero,
batzuetan ero,
besteetan bero
baina ez dut milagro
handirik espero.

Euskaldun herriaren balada. Jon Sarasua /
Oskorri, 1992 / Zortzi, 2018

Jakin badakigu Euskal Herriaren berreuskalduntzea lortzen badugu euskara ikasteko hautua egin eta egingo duten herrikideei esker izango dela. Euskarak joan diren berrogeita hamar urteotan egin duen jauzia ezinezkoa zatekeen milaka erdaldunek euskara ikasi izan ez balute. Urteetako ahalegina, gehienentzat. Idazleen eta musikarien arteko kantagintzak apenas jaso duena, gainontzekoek ere urri.

Begietara begiratzeko modu bat,
galderak egiteko modu bat,
eskutik heltzeko, heltzeko modu bat
amets egiteko modu bat.

Ez onena agian,
ez ederrena agian,
zaharregia, txikiegia agian.

Munduari begiratzeko. Kirmen Uribe / Mikel Urdangarin,
Rafa Rueda, Bingen Mendizabal, 2003

2003ko martxoaren 20an bortxaz itxi zuten *Euskaldunon Egunkaria*, euskarazko egunkari bakarra. Urte berekoa da “Zaharregia, txikiegia agian” disko-liburua, Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarinen arteko elkarlanaren bigarren emaitza, “Bar Puerto”ren ostean. *Egunkariaren* itxierak euskaldun gehienen artean sorrarazi zuen haserre eta ezinegonarekin batera, nekea eta asperdura ere antzematen zaie bai *Munduari begiratzeko* honi bai Ruper Ordorikaren *Zaindu maite duzun hori* urgentziazkoari ere: “Inork ez zidan esan / euskaldun izatea / zein nekeza dan”.

Nekearena, zamarena, idazle eta musikari bati baino gehiagori entzun eta irakurri diogu. Euskaraz kantatzea ezin dela exigentzia politiko bat izan, erdal hitzunikiko abegi berbera merezi dutela, ezin dela militantziagatik euskaraz sortu ezta euskaltzale izan ere. Normalizazioa eskatzen dute beren lurraldearen zati

handi batean ofiziala ere ez den hizkuntza batentzat, eskubidez gabetua den euskararentzat. Ez dute, berriaz, hain argi erantzun gura zergatik kantatzen duten euskaraz. XXI. mendeko kantagintzan miatuz gero, nekez aurkituko ditugu euskara gaitzat duten abes-tiak. Kontzeptu bezatuen zerrendan dago, berba maiz-tuegien rankingean. Kantagai izateari utzi dio.

KONTRAKULTURA ETA EPIKA

1980ko hamarkada rockaren, punkaren eta popa-ren aroa da. Gasteizen sortutako Hertzainak taldeak, erdal giroan bizi arren, euskaraz kantatzea erabaki-tzen du, euskaraz kantatzea kontrakulturala zelako. Euren inguruko erdaldunek bultzarazi zituzten euska-raz kantatzera, esanez talde batek, punkia izan gura bazuen, euskaraz kantatu behar zuela. Hala, euren hasierako diskoetan, gerora oso aktore ezaguna bihur-tuko zen Karra Elejaldek idazten zizkien letrak eta Josu Zabalak itzultzen zituen. Josu Landa, Xabier Montoia eta Bittor Kapanaga idazleen testu bana musikatu zi-tuzten, baita Jon Miranderen *Eder bati* ere -gizonen masturbazioa gaitzat duen kantu bakarra, oker ez ba-

gaude-. Baina Hertzainak idazleren batekin lotzeko eskatuko baligute, Itxaro Borda aipatuko genuke. Askori Hertzainak-en kantu haiek ezagutarazi ziguten idazlea. Norenak ote ziren taldearen gainontzeko le-tretarik horren ezberdin mintzo zirenak? Nor zen ema-kume hura? Zer kontatu gura zigun *Bi minutuero*, *Egu-netik egunera* edota *Irauten* haietan? Gu geu ere *larru beltzak* ote ginen?

Exigentzia maila altuko letrak dira, inguruarekiko ezinegonak adierazten dutenak. Halaber, estandarretik kanpoko pertsonak baztertzen zituen jendarteak sor-tzen zion desolazioa amorru bilakatzea lortzen zuen Bordak, lubaki zuzenean geundela sentiaraziz.

Quai de la Gare geltokiaren
gainetik iragaiten diren altzeiru
bortitzak
ortzaiz mugatutzat jo ditzazkezunean.
bihotza tinkatzen zaizu
hegoko itsasoraino tren bat doala pentsatzen
hasen baldin ba zara
bi minutuero
herrimina.

Plaza desolatuetan galdez daude denak
noiz ote diren beren haurrak itzuliko
baina trenak umezurtzez beterik doaz
justiziaren larru beltzak sardeskatuz.
Denboraren orratzak
plegatzen gabiltza
larru beltzak
josi asmoz.
Larru beltzak
larru beltzak
larru beltzak.

Larru beltzak. Itxaro Borda /
Hertzainak, 1992 / Zazpi Eskale, 1995

Periferietako musikariak eta idazlea euskal kanta-gintzaren zentroan, metakontrakulturan, gipuzkoar-bizkaitar zentrismoaren erdigunean.

Beste horrenbeste eta gehiago esango dugu Kortatu-ri buruz. Irunen sortu zen taldeak disko bakarra egin zuen euskaraz, “Kolpez kolpe”, 1988an. Euskal Herrian, Estatu espainiarrean, Europan zein Hego Amerikan gaztelaniaz kantatzen segituz gero arrakasta itzela lor zezakeen taldeak, aurrerantzean euskaraz

kantatzea erabaki zuen. Euskal kantagintza berriak euskara batuaren onarpen sozialean izugarrizko garrantzia izan bazuen, ez zen gutxiagorako izan Kortatu-k eginiko hautua. Alberto Irazuk ondo baino hobeto azaltzen du 2017an plazaraturiko *Rocka puntua!* saia-keran:

Testuingurua aztertuta nabarmentzen da erabaki haren garrantzia. 70eko hamarkadan euskarazko musika erdigunean egon zen kantautore eta kantaldien mugimendu indartsuekin; aldiz, 80ko hamarkadako basamortuko bidaia neketsua izan zen euskarazko rockarentzat. 1980-1984 bitartean esku bakarreko hatzekin konta daitezke diskoa euskaraz kaleratutako talde edo rock kantariak: Itoiz, Zarama, Hertzainak, Niko Etxart, M-ak.

[...] Irungo hirukotearen hautuak berebiziko indarra eman zion euskarazko rockari: gaztelaniatik euskarara salto egindakoak ez ziren edozein, garaiko talderik arrakastatsuenak baizik.

[...] Rockaren historian ez dago Kortaturen erabakiaren parekorik. Noiz ikusi da bostehun milioitik gora hirtun dituen aizkora milioira nekez helduko denaz ordezkatuta?

Alberto Irazu, *Rocka puntua!* Pamiela, 2017

Kortatu-ren euskarazko lehen eta azken disko hartan (zuzeneko “Azken guda dantza” aparte utzita), Josu Landaren eta Mikel Antzaren bost letra musikatu zituzten, erdia. Sistemaren aurkako epika kontrakulturala da, Benito Lertxundik bilatzen zuenaren arras ezberdina, bai abiapuntuari –eta zer esanik ez, molde estetikoari– dagokionez.

Zalditeria dabil
Gure kontra gora
Zirko berbera dabil
Gure inguruan
Kitarrariak zorrotz
Goikoen kontrako
Inperio zahar-berria
Dugu desegingo.

Kolpez kolpe. Josu Landa, Fermin Muguruza /
Kortatu, 1988 / Johnny & Joseph, 2013

Hori bai, abiapuntuan eta molde estetikoan, bietan, gatazka dago funtsean, bietatik borroka latzen oihartzuna dator, bietan borroka ideologikoa bor-bor. Gerratik gerrarako kantuak dira, bai, Kortaturenak.

Arranoa zeruan
Mendian sugea
Ibaietako ura
Ahitzen ote da?
Basotan perretxiko
Soroan garia.
“Nahiz hanka bana hautsi,
Berriak badira”
Zutik! Zutik! Makurtu gabe!

Makurtu gabe. Mikel Antza / Kortatu, 1988

Gerra eta konfrontazio kontuak direla eta, bestelakoa da Benito Lertxundiren bidea. Hasi 1974ko “Oro laño mee batek...” diskotik eta XXI. mendeko “Nere ekialdean”era bitartean, Lertxundik lurralde baten historia kantatzeari ekiten dio:

Oi gure herria,
zer hintzen eta non hago!
Zazpi mendeko gauean
zanpatua
itoa
zikiratua
ahuldua

eta
ohitua
bortxara
halabeharrez
ez ote duka jada kemenik
hire hatsa sendotzeko?

Oi Zuberoa! Jose Angel Irigarai /
Benito Lertxundi, 1977

Horretarako, batez ere, herri kantuez eta Jose Angel Irigarairen poetikaz baliatzen da. Zuberoako herri kantuek berreskuratzen dituelako kantatzen dio Bizkaiari, eta Orioko arrantzaleak laudatzen dituenek goratzen ditu Nafarroako ola-gizonak.

Bizkaia maite,
atzo goizean ikusi zintudan
soineko xuriz jantzia
buruan orlegi, bihotzean sua
olerkari penatuaren gozo eta mina
amodio eta kanta,
zure berba lehun
zure gatzaren bizia
zure burdinaren gorria
dira gaur neretzat aterbe.

Bizkaia maite. Jose Angel Irigarai /
Benito Lertxundi, 1977

Bien bitartean, Mikel Laboak hiru ildotan sakontzen darrai. Batetik, herri kantuak ahanzturatik hedapen masibora ekartzeko ahaleginean; bestetik, idazleen testuekin osatutako bere kantuak sortzen; eta azkenik, esperimentazio etengabea. Idazle hautatuen zerrenda handitu egingo da eten barik, lehenagoko Aresti, Lete eta Artzeren testuei, Atxaga eta Sarriionandiarenak gehitzen.

Lizardi, Rimbaud etorri duk hitaz galdezka
eta gu ere hire zain geundela
esan zioagu
ez hintzela aspaldi azaldu
etxetik.

Lizardi. Bernardo Atxaga, 1978 /
Mikel Laboa, 1985

1998an plazaratu zuen “6” diskoan entzun daitezkeen testuak ia hogeitaz urte lehenago argitaratu zituzten Atxagak eta Sarriionandiak.

Isiltasuna abailtzen da
luma galdu bat bezala
begiak uso, mingaina arana
zure bihotza ene aingura.

Urrun gauhontzak uluka
zakur deslailak zaunkaka.
Mende oso bat iraganen dut
zure ondoan koblaka.

Sorterriko koblak. Joseba Sarrionandia, 1981 /
Mikel Laboa, 1985 / Katamalo, 2014

Free jazzetik hurre dagoen Laboaren esperimentazioetik ez, baina Imanolek ere herri kantutegitik eta poeten eleetatik edaten jarraitu zuen tai gabe, beren hitzetan eta poetikan sakontzen. Poeten zerrenda luzea da Imanolena, gehien musikatu ohi duena Mikel Arregi bada ere. Hasierako urteetan kolektiboari zuzendutako aldarri kantu haietatik eguneroko gauza txikiagotara aldatzen du norabidea, eta hizkuntzari, lurraldetasunari edota gatazka armatuak eragindakoei buruz aritzeko, bestelako hizkera poetiko bat hobesten du, iradokitzailea, kontenplatiboa.

Parke ixileko banku txuria
ezpain beroen lankide,
antsi zaharrak zantzu berritan
bihotz gordinen senide,
tristura hegan paseatzen da
arratsaren solaskide.

Ilun-ikarak. Mikel Arregi / Imanol, 1986

Euskal kantagintza barreiatuta dago, ez dago asmo kolektiborik, ez dago adostasunik. Ezinezkoa da epika komun bat sortzea, horretarako asmorik ere ez dago. Natxo de Felipek eta Ruper Ordorikak Ikuska film saileko *Euskal kanta berria* atalean Imanol Uribe zuzendariari emandako erantzunak argiak dira: “Nire ustez, askori min emango badio ere, euskal kantuek ez dute izate propiorik” (Natxo de Felipe). “Hau frankotiradoreen erreinua da, hemen bakarrik ari dena ailegatu da zeozertara” (Ruper Ordorika).

ANIZTASUNERANZKO TRANTSIZIOA

Kortatu-ren errautsetatik sortutako Negu Gorriak taldeak ordura arte ibili gabeko lurrak erakutsi zizkion euskal kantagintzari. Hip-hopa euskaraz bizi daitekeela erakutsi zuten, gure rapa bertsolaritza izan daitekeela, tradizioak finean mugimenduan baizik ez duela irauten aldarrikatuz. Rockaren eta bertsolaritzaren arteko ustez ezinezko horrek euskal identitateari ezau-garri berriak erantsi zizkion. Euskalduna beltza ere izan daiteke.

Mikel Antzaren, Xabier Montoiaren, Joxan Artzeren eta Jon Sarasuaren hitzak musikatu zituzten. Ugarie-nak, aldiz, Jon Maiarekin batera sortutako kantuak dira, bertsolaritzaren iraultza gertatu zen garaiko doinu haiek: *Lehenbiziko bala*, *Zipaioen matxinada*, *NG*, *geurea da garaipena* eta, batez ere, ereserki bihurtu zitzaigun *Gora Herria*:

Eztarri indartsuak
ezin dira ito,
gure lepoan soka
ez dago betiko
parre egin gogotik

neska ta mutiko
kantatzen duen herri bat
ez da inoiz hilko.

Gora Herria. Jon Maia, Fermin Muguruza /
Negu Gorriak, 1991

Kantuetarako letra gehien idatzi dituztenen artean, Jon Maiarekin batera Xabier Amuriza dago, biak bertsolariak. Biek ala biek, milaka euskaldunen imajinario kolektiboan iltzatuta ditugun testuak sortu dituzte urte luzetan. Musikarien eskari estetikoaren arabera, doinu jakinik gabe eurek kantariei helarazita, edota abeslariarekin lau eskutara. Zerrenda luzeegia, hemen gutxi batzuk injustuki nabarmentzeko.

Gerora, berandu, kultuzko talde bihurtu zaigun Mak utzi eta bere bakarkako ibilbideari ekin zion Xabier Montoiak 1995ean, kontraesanak markatzen duen "Beti oporretan" diskoa plazaratuta. Gutako batzuentzat ez da erraza kantuaren eta poemaren arteko muga antzematen. Xabier Letek kantatzeko sortu zituen letrak liburuetarako idatzi zituenak baino kaskarragoak dira? Akordatuko ginen Artzeren *Txoria txori* poemarekin Laboak musikatu izan ez balu?

Xabier Amurizak eta Xabier Montoiak argi dute. Lehenarentzat kanturako letrak arau formal jakin batzuk ditu poemak ez dituenak. Bigarrenak dio ez duela egundo poemarik kantatu, kantatu letrak egiten dituela. Letragintzaren eta poemagintzaren artean aldeak daudela onarturik ere, letra batzuk paperean irakurritako poema onenen pareko direla iruditzen zaigu.

Xabier Montoiaren poetikari egozten zaizkion ezaugarriak bere letragintzari aplikagarriak dira:

Horixe da Montoiaren poesia berezi egiten duen zantzueta bat: probokaziozko jarrera, zenbaite-tan desatsegina zaigun eta beti ere poxelu egiten digun tonuz gora edo beheragoko agertze bat. Bere inkonformismoa, izan ere, berdin jazartzen zaio etika kristauari zein zintzotasun komunistari, azken finean ortodoxia modu desberdinei egiten die eraso, kontziente eta zuhurki. Poetak katarsis politiko-moral bat egiten du gehiegikeriaren bitartez.

Poeta beti izan da gauaren biztanle, izarrei beha egin izan du hasperen, edo ilunpean babestu ohi da itzalek ikara ez dezaten. Xabier Montoia bestelako poeta da ordea, gaueko piztia den neurrian. Aurkintza urbano desolatuak erakusten dizkigu,

eta bakardadean kokatzen du bere burua. Maitasuna baino gorrotoa du balore, eta gorputzarekin batera transfiguratzen zaio espiritua, amoral bihurtzen da, indibidualtasuna aldarrikatzen du.

Koldo Izagirre, “Hitzaurrea”, in Xabier Montoia,
XX. mendeko poesia kaierak. Susa, 2000

Ez zuen alferrik adierazi Montoiak Euskal Herrian punka egiteko euskaraz kantatu behar zela.

Montoiaren beste ekarpen garrantzitsuetako bat ironiaren eta umore beltzaren erabilera da. Kontraesanik mingarrienak azaleratzeko, kontrakulturarako sekulako potentzialitatea eskaintzen dio ironiak eta Montoiaren poesia eta letragintza zeharkatzen ditu ezau-garri horrek:

Mozorroa eroriko da bat
batean plaza erdian,
ezkutuan ibili ohi denak
bere eskuan ditu gordeko.

Badator argia, badator argia,
erne denok, badator argia.

Hamarkadaren hasieran Balerdi Balerdi talde iruin-darrak rockzale askoren arreta bereganatu zuen. Gitarra garbietan oinarritutako rocka eta ingurune hurbi-lean kokatutako narrazioak zekartzaten aldean. Pello Lizarralde izan dute hasieratik gaur arte lagun, batez ere nobelagile gisa kritikaren eta ofiziokide askoren oniritzia jaso duen idazlea. Nobelagintzan lez, letragintzan ere estilo propioa lortu du Lizarralde, kezka kolektiboari norbanakoaren ikuspegitik erantzunez. Frankismoaren eskolatu ziren gehienek apaiz irakasleen errepresioa jasan zuten. Mina isiltzea, sufrimendua ez plazaratzea, jazarpenari aurre ez egitea irakatsi gura izan zieten milaka euskalduni. Kolektibo bateko kide sentitzen den heinean, kolektibo hori osatzen duten norbanakoen esperientzia kontatzeari degio garrantzia idazleak:

“Mutiko bat da” zioten,
segur eta harro hazi ginen
eta ongi erakutsi ziguten
gordezina gordetzen
barnea iraultzen...

Zuk non duzu zauria,
malko arrasto lehorra,
urratu ttipi hura?

Non duzu zauria? Pello Lizarralde /
Balerdi Balerdi, 1994 / Ruper Ordorika, 2013

Sasoi bertsuan, idazleekin lan harreman estua erakutsi duten bi kantautoreren lehen diskoak plazaratu ziren: Mikel Markez eta Jabier Muguruza.

Hego Ameriketako kantautoreen (Silvio Rodriguez) eta euskal kantagintza berriko kantarien arteko kate-begietako bat da Mikel Markez, gitarra klasikoa lagun jardun dena beti. Berak sortutako letrak bertsolari eta idazleenekin uztartu ditu diskorik disko. Horietatik harreman estuena Pako Aristirekin izan du, bikote artistikoa osatzeraino. “Tribuaren hitz galduak” eta “Dena hankaz gora” diskoetan gauzatu zuten lan harremana. Pako Aristiren poesiagintzan antzeman daitezkeen akzioaren garrantzia, anekdotaren garapen deskriptiboa, jendarteak otzan onartzen dituen bizi eredu estandarren aurkako kritika, sentsualitatea eta erotismoa edo edergarrien urritasuna igartzen dira kantuetan. Ezagun da Aristi kazetaritzan eta narraziogintzan sobera trebatua dena.

Zer anarkista mota ginateke
gizarte hau kritikatu ez bagenu,
eta zer artista mota ginateke
gizarte hau aldatu nahi ez bagenu.
Nola maite liteke
lan eskaintza bati ezetz esatea
ausardiarik handiena
bihurtu duen gizarte hau.

Gizartearen eraikuntza. Pako Aristi /
Mikel Markez, 2004

Jabier Muguruzak diskorik disko erakutsi du ez dela poema edo testu arranditsuen zale, bai bakarka bai berak parte hartutako taldeetan (Les Mekaniciens, Joxe Ripiau). Egunero kalean gurutzatzen ditugun anonomoak protagonista bihurtzen dituzten letrak maite ditu. Kezka kolektiboek ezohiko angelutik begiratzen dieten poetak aukeratu ohi ditu bidelagun:

Mutiko bat da
izen arrotz batekin
herri arrotz batean
mendi-aldeko etxean

“Egin lo ume egin lo”
amak erraten dio
“Herrira noa, laixter naiz”
gauetan ama herrira da.

Mutiko arrotzaren kanta. Iñaki Irazu /
Les Mekaniciens, 1992 / Javier Muguruza, 1996

Mikel Urdangarin dukegu, Mikel Markezekin batera, euskal kantagintza berria XXI. mendera eguneratzen ahalegintzen ari den beste kantarietako bat. Honek ere bere testu propioak bertsolarien eta idazleen testuekin bildu ditu diskorik disko. Ohikoa izan den Kirmen Uriberekiko harremanaz gain, Gerardo Markuleta, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Iñaki Aurrekoetxearekikoa konstantea izan da. Maitasunerako arrazoi eta maitasunaren ondorio askori kantatu die Urdangarinek, amodio minak uzten duen hustasunari, oso maiz, detailetik gehienetan:

Zurekin nahi dut Maxian barna
karroa zoro eroan
baita erantzi nahi dizkizudan
prakak eroatera joan
bertan zaudela sentitu nahi dut

ohera sartzerakoan
lotsaren mugak lehertuarazi
ta gehiago delakoan
erloju hotsak esnatu eta
zu izatea alboan.

Bazkalosteko kafea. Iñaki Aurrekoetxea /
Mikel Urdangarin, 1997

1997an plazaratu ziren Lorelei taldearen eta Anariren lehen diskoak. Batak eta besteak, zerikusi gutxi zuten aurretik zein garai bertsuan gehien entzuten ziren hitz eta ahaireekin. EH Sukarra-n borrokarako kantu zuzen eta gordinak sortzetik zetorren Mikel Gorosabel *Norton*, eta euskal poetikaren berrasmatze berri bat proposatzen zuen Lubaki Bandako Asier Serrano idazlea, sasoi eta kokaleku jakinik ez zuen leku bat asmatzeko elkartu ziren. Etiopia berri bat. Surrealismoa, bizi zituen garaiaaren absurdoa kontatzeko:

Bada hiri gorri gorri bat
Franken tabernako barrarenpian
Isolatuegi datzan heinian
Gautxori baten doinu tristia.

Hiri gorriz dindatzen ditut
Zure ezpain lehertuak
Ophelie.

Bada hiri gorri bat. Asier Serrano / Lorelei, 1997

Zein den minaren funtsa. Ez ginateke asko okertu-ko Anariren kantagintzaren konstante bat horixe dela baieztatuko bagenu. Pertsonen arteko harremanek sortzen dituzten zaurien zergatia aurkitu nahia, biko-teak norbanakoari dakarkion zaurgarritasuna, tristura pozgarria, orokorkeriekiko distantzia. Eta estetikoki, kadentzia bereizgarria. Beste botere batzuekiko menderakuntzari aurre egiteaz batera, denborak gure izaera buztina balitz bezala moldekatzeko duen sen-perrari aurre egitea. Konpasa beti norberak.

Negar egiten dudanean hor zaude zu, beti,
hor geldirik niri so, beti.
Eta nik ez dut sentitzen inolako minik.
Negarrak hegan doaz...
...ze hilda jaiotzen zaizkit,
barrutik,
lurra busti baino lehen, hilik.

Hertzainak taldearen azken diskoetako estetikatik lar urrundu barik ekin zion Iñaki Garitaonandia *Garik* bere bakarkako ibilbideari 1995ean. Gasteizko taldeak bere azken lanetan Itxaro Bordarekin hasitako elkarlanari segida eman zion, letrak beste idazle batzuekin ere jorratuz. Zerrenda luze horretatik bi dira azpimarratzekoak: hastapenetatik kantugiletzan lagun izan duen Jon Maia eta laugarrenetik aurrera beti alboan duen Jon Benito.

Bere buruaren eta bere egitekoaren etengabeko bilaketa eta birsortzean ulertzen da Gariren kantagintza, eta idazleen lanek ez erortzeko makuluarena egin dute.

Ba al dakizu sua
ahaztu zitzaidala zure bihotzian,
ba al dakizu bala batek
zulatzen nauela zutaz pentsatzian.
kontatu al dizut inoiz eguzkiarena
eguzki gorria dela zeruaren ardoa
eta ilargiak pizten didala azken zigarroa.
Baina ni banoa
eta ez dakit nora.

Eta ni banoa. Jon Maia / Gari, 1997

Zaldiak ikusten ditut
nire erraietan bazkatzen
zeruetatik eta infernuetatik
tiraka amildegietara
eramango nauten zaldiak dira.
Amapola zelai bat daukat barrenean
amapolek baretu egiten naute
piztu egiten naute, izorratzen naute.

Amapola. Jon Benito / Gari, 2007

1998an, ate joka datorren mende berriko pop musikan idazleen eta musikarien arteko kantagintzaren paradigma bihurtuko den taldea sortuko dute Deabruak Teilatuetan rock taldeko Ubeda anaiek: Bide Er-tzean.

Jose Luis Otamendik 1980. urtean plazaratu zuen *Egunsenti biluzia*, bere lehen poema liburua, Koldo Izagirreren *Itsaso ahantzia*-tik lau urtera, Amaia Lasaren *Hitz nahastuak*-etik hiru urtera, Bernardo Atxagaren *Etiopia*-tik bira, Gabriel Arestiren hilondoko *Azken harria*-tik urtebetera, Tere Irastortzaren *Gabeziak*-en

eta Joseba Sarrionandiaren *Izuen gordelekuetan barrera*-ren urte berean. Iñigo Aranbarri Otamendiren lehen lau poema liburuak biltzen dituen *Bakarrik bahago neguan* libururako idatzitako hitzaurrean argitzen digu zein diren haren hastapeneko poesiaren ezaugarriak. Hain zuzen, Bide Ertzean-ek gehien musikatu dituen poemak jasotzen dituzten liburuetakoak:

Munduaren ikuskeran, maitasunari arrimatzeko orduan, Jose Luis Otamendi hurbilago egon da Aresti ondorengo poesiatik bera baino gazteagoek trumilka agertu eta idatzi dutenengandik baino. Formazio kontuak. Hortik dernieraren kontu hori. The last. Atzena. Idazkeraren ederrean du ezagun.

Iñigo Aranbarri, "Azken lirikoa"
in Jose Luis Otamendi, *Bakarrik bahago neguan*. Pamiela, 1998

Bide Ertzean eta Jose Luis Otamendi. Biak ala biak, beren bide propioa egiteko engaiamenduan, bai aurrekoek idatzi zutenaren jakitun, bai garaikideek kanta-tzen dutena ezagun. Biak ala biak, beraien sorkuntza lanak plazaratzen hasi ziren garaian, euskaraz nagusi zen poesia eta kantaera moldeetatik bereiz hasi ziren,

unean uneko modetatik edo bitsetan zegoenetik aparte. Iñigo Aranbarrik berak, “Leidor Sessions” zuzeneko disko eta DVDra eskainitako elkarrizketan, ezaugarri horiek aitortzen dizkio Bide Ertzean-i: “Beti koska bat, beti maila bat gorago, beti erronka berri bat ortzimugan sortzen dituztela kantak”. “Bide ertzean” disko laburrean eta “Zure minari” luzean (osorik Otamendiren poemekin) gauzak beste era batera esateko hautua egin zuten. Garai hartan, oraindik indarrean ziren aldarri kantak. Rock zein punk taldeen letra zuzenek entzuleari posizionamendu jakin bat eskatzen zioten. Bide Ertzean-ek horri ihes egin nahi izan zion. Popa egiten lehenak izan ez ziren arren, Bide Ertzean-en hastapenetan pop musika letra melenga, txepel eta gatz bakoekin lotzen genuen askok. Jose Luis Otamendiren poemak eta testuak baliatuz, Bide Ertzean-ek erakutsi zigun popa egin arren, badaudela bestelako kezka batzuk, bestelako letrak sartzeko gogo, orduan pop musikarekin lotzen ez genituenak. Otamendiren hasierako poesia “lañotasunarena” dela onartuta, Bide Ertzean-en hasierako diskoetakoa ere lañotasunaren musikatzat hartuko genuke? Baliteke, kantu horiek, oso kantu soilak direlako -ez errazak, kasu!-, akorde gutxirekin osatuak. “Grisa” bigarren disko lu-

zean ere, argitasun handiz, lirika zainduz, baina argi kantatzen digute Bide Ertzean-ekoek. Bertan dagoz, besteak beste, migratzaileei eskainitako *Lilian* eta *Hesiak*, hamasei urte geroago gaurkotasuna galdu baino irabazi dutenak. Hor dagoz “Non dira?” -1936ko altxamendu faxistaren aurkako gerran galtzaile atera ziren ahortziei egindako kantu bilduma- edota “77” -segadan hil zieten osabari eta horrek beraien familian eragindako sufrimenduari buruzko oroitzapenak gaurko-tzeko ariketa latza- diskoak, zeinetan, besteak beste, Mikel Ibargurenen *Nire aberriaz* eta Jose Luis Otamendik beren beregi idatzitako *Zenbakiak* kantatzen dituzten:

zenbatzen ikasten
hasi gara orain berriz
alde nahiz kontrako
zauria zauri da beti

Zenbakiak. Jose Luis Otamendi /
Bide Ertzean, 2013

poema baten barruan kabitzen den
aberria da nirea

Nire aberriaz. Mikel Ibarguren, 1996 /
Bide Ertzean, 2013

Ez dira, ez, funtsik gabeko gaiak, sufrimendua eta aberria. Ez dituzte Bide Ertzean-ekoek musikatu dituzten idazleen testuak lañotasunez aukeratu. Otamendi eta Ibargurenekin batera, Iñigo Aranbarrirenak, Kirmen Uriberenak eta Joxan Artzerenak galbahetu dituzte, asko eta askorenak irakurrita, asko eta askorenak ezaguturik. Hari batek lotzen baititu (Artzerenak salbu, “Nola belztu behar zuria” enkargua izan baitzen, beraiek onartutakoa, baina enkargua finean): zutasunetik berdin gutasunetik, pertsonaren sentimenduekiko enpatia izugarria igartzen zaie guztiei. Didaktismorik gabe, agindurik gabe, irakaspenik gabe, mezukeriatik at, fribolitateari itzuri.

Jose Luis Otamendiren poesiagintzan pertsona da gailentzen dena, oroz gain gutako bakoitzak sentitzen duena dago beste ezereen gainetik, oroz gain herrikide dituenekiko begirunea eta maitasuna aldarrikatzen ditu. Eta horrek isla du Bide Ertzean-ekoek eurek idatzitako letretan ere, Imanol Ubedak berak onartu zue-
nez:

Otamendik eman digu kutsu bat, estetika bat, eta bere mundu ikuskera proiektatzen da Bide Er-

tzean-en kantu askotan. Horrek egiten du Bide Er-
tzean ezberdin, musikak baino gehiago agian.
Otamendiri esker dauka taldeak marka bat, idaz-
teko, izateko, espresatzeko modu bat. Hori aitortu
behar diogu.

Imanol Ubeda, in Jon Eskisabel,
Zutaz kantatzeko. Paper Hotsak, 2016

BERRASMATU BEHAR DITUGUNAK

Eta XXI. mendean idazleen eta musikarien arteko
elkarreraginetik sortutako kantagintzaz zer? Oraindik
ere galtzaile sentimendu batetik idazten dugu poetok?
Gaur egungo musikariak idazlearengana jotzen due-
nean zer du xede, nazio kontzientzia mantentzea?
Euskaraz kantatzea bera ez ote da nazio kontzientzia
bizirik mantentzea? Zergatik aldarrikatu zuen Benito
Lertxundik Donostia Europako hiriburu kulturala izan
zen 2016 hartan Ez Dok Amairu berri baten beharra?
Zertan dago kantuaren funtzio sozialaren eta alderdi
artistikoaren arteko dema? Zein helburu du poesiak
XXI. mendean, baldin eta helbururik behar balu?

Zeri kantatu behar diogu? Nork irakurri eta entzungo gaitu?

Gakoa musika ekoizteko, gordetzeko eta zabaltzeko orduan teknologia berriekin sorrarazi dugun iraultza isila ulertzea dela diote adituek. Musika kontsumitzeko era berriek transformatu dutela kantagintzarekiko herritarren atxikimendua. Hala dela onarturik ere, beste arrazoi batzuk hausnartu aldera, kantugaiek ez dute zerikusirik? Berbarako, euskara, lurraldetasuna, identitatea, justizia, borroka, askatasuna eta enparauetatik aukera dezagun bat, har dezagun *aberria* (barkamena eskatzen diot aberriaren hainbesteko aipamena pisu egingo zaion irakurleari).

Erabakitzeke eskubidea autodeterminazio eskubidea ote den, independentzia ertzetako borrokekin ezaugarritu behar ote dugun, EAEko legebiltzarrean estatus politiko berria ozenen aldarrikatzen dugun garaiotan aberriak arazo handiak sortzen dizkigu idazle eta musikarioi. Lehen, hizkuntza bera hitz egiten genuen frantsesak eta espainiarrak ginenean, ez genuen arazorik aberria zer zen esateko: bandera eta armada. Orain, euskaldunok identifikazio arazoak ditugu aberriarekin, geure aberria asmatu edo ikusarazi zigutenean, oro har, ez zutelako euskara ezinbesteko. Esan li-

teke aberria dela Euskal Herriaren maila politikoa, horrek suposatzen dituen on-gaitz guztiekin. Joseba Sarrionandiak *Hitzen ondoeza* bere hiztegian hauxe dio: “Aberri hitza berria da euskaraz. Zulo bat tapatzeko erabiltzen da. Badirudi, lehenagoko euskaldunek bazutela ‘herria’ eta ez zutela aberri beharrik. Herria galdu arte ez genuen Aberria asmatu beharrik izan. Guzi hori dela eta, badira euskaldunok lotsa apur batekin esaten ditugun hitzak: Aberria, Euzkadi...”.

Lehenagotik ere hausnartua zuen Sarrionandiak aberriaz. 1981eko *Izuen gordelekuetan barrena* bere lehen poema liburuan zioen: “Aberria hautatu egiten da / -eta emakumea- edo / bakardadeak edo besterik ezak / ezartzen derauku”.

2006an Rupert Ordorikak eta biek plazaratu zuten “Memoriaren mapan” diskoan, bi kantu dagoz aberriari erreferentzia zuzena egiten diotenak. *Hiriak* deritzon Atarrabian bizi den Mohammed Mizzian amazigak inongoa izateko duen ezintasunaz mintzo dira. Inon sustraitzerik ez duenarentzat, zertarako da aberria?

Zeure gorputza da orain nire hiria,
zeu zara orain nahi dudana aberria.

Hiriak. Joseba Sarrionandia / Ruper Ordorika,
2006

Enbaxadore hodeiartzean kantua, Julen Badiola
Ondarroako iheslari politikoaren sasiko bizimodua
-zeina Sarrionandiarenaren oso antzekoa izan baita-
kontatzeko sortu zuten:

Ahaztu dugu nongo ordezkari garen,
banderarik gabe, aberririk gabe,
diplomaziarik gabe, agindurik gabe,
enbaxadore hodeiartzean.

Enbaxadore hodeiartzean.
Joseba Sarrionandia / Ruper Ordorika, 2006

Sarrionandia bera ere aberri bako sentitzen da,
edo Badiolaren gisan klandestinitatean urteetan iku-
sezin bilakatu diren euskaldunen egoeraren salaketa
da kantua?

Gratien Adema *Zaldubi*-k 1893an idatzi eta Urkok
zein Oskorrik musikatutako *Gauden gu eskualdun* kan-
tuak, gerora Lauaxetak, Lizardik, Orixek zein Mixel La-
begeriek erabiliko zuten Euzkadiren aurrekari den Eus-

kal Herria zer den argiro definitu zuen. Zazpi probintzia, euskarak banaezin bihurtzen dituen. Hizkuntza, lurra, herria: aberria.

Antton Valverdekin Lauaxetaren zein Lizardiren poemekin osatutako disko bana argitaratu zituen 1978an eta 1986an, hurrenez hurren. Gasteizen fusilatu aurreko egunetan, ziegan idatzi zuen Lauaxetak *Agur, Euzkadi* eta bertan, *Mendigoxaliarena* poeman esandakoak berresten ditu, heriotzaren bezperan. Dena eman behar zaio maite den askatasunari, dena herriari, aberria ala hil, *patria libre vencer o morir, todo por la patria*.

Agur, Euzkadi, Jaunak naroa
Aberri eder argira.

Agur, Euzkadi. Lauaxeta, 1937 /
Antton Valverde, 1978 / Tenpora, 2015

Lizardik, aipatu legez, metaforak erabili zituen aberriari, herriari edota hizkuntzari kantatzeko. Natura zerabilen, hain zuzen, gehienetan, dela txolarrea, dela mendia, dela *Asaba zaarren baratza*.

Mixel Labegeriek, euskal kantagintza modernoaren aita pontekotzat jotzen dugunak, oso garbi aldarrikatu zuen aberria zer den *Gazteri berria* kantuan, 1970eko hamarkadan Ipar zein Hego Euskal Herriko gazteriaren ereserki bilakatu zen hartan. Ildo berean darrai Manex Pagolak *Kanta aberria* idaztean. Euskadi, herria, aberria. Manex Pagolak berak aitortzera, bere hitzek ulerterrazak behar zuten izan, tabernetan zein etxekoen artean kantatzekoak, zuzenak, aldarrikatzailerak. Propaganda politikoa. Ordurako hainbat poema eta kantu idatzitako Xabier Letek aurrekoek kantatutakoaren ifrentzua ekarri zuen. Aberria ez da harrotasunerako, aberriak ez zekarkion bizipozik Leteri. Euskaldun desengainatu baten kantua da, abertzaletasunari itzuri egin gura dionaren aitortza.

Behar zaitut Euskadi
desesperatuki
puta batek alkohola
behar duen gisan.

Aberri ilunaren poema. Xabier Lete, 1991

Maitasun-gorroto sentipen hori ez da berria. Gabriel Arestik ere behin baizen gehiagotan idatzi zuen

Bilboko erdal hirian euskaldun izateak eta zenbait euskaldun zahar erosoren mespretxuak sorrarazten zion etsipenaz. Hernanin emandako hitzaldi batean honela kantatu zuen Arestik:

Euzkadi, madre mía,
no puedo quererte,
pues sólo me prometes
sufrimiento y muerte.

Azken euskaldunaren heriocea
(*Euzkadi año 2000*). Gabriel Aresti, 1970

Eta Letek gerora *Euskalerrri nerea* izenburukoa kantatu zuen, errepika, tonua eta gaia Arestirena zirela aitortu gabe. Koldo Izagirrek eta Xabier Mendigurenek honela azaldu zuten Xabier Letek aberriarekiko erakusten zuen egonezina:

Urrats desbideratuak (1981) izan zen Leteren hirugarren liburua, eta handik hartua da “Aberria, orain” poema. Lexikoan joera berri bat ekarri zuen: hitz atzizkidun ugari sortzen eta sartzen ditu, bere adierazpidearen ñabardurak hobeto zaintzeko eta esateko modu biribilago, ozenago baten bila ere

bai agian. Bestalde, olerki hau Letek Euskal Herriarekiko sentitzen duen harreman gatazkatsu eta agonikoaren adibide ere bada; harreman kontraesankor hori hobeto ulertzeko interesgarria da jakitea, nola, poema honen kontrapuntu bezala, gero-ko liburu batean (*Zentzu antzaldatuena poemategia*, 1992), bukaera hauxe eman zion beste olerki bati: “Nor izango zaio oraindik leial aberri dohaka-be honi?”

Xabier Mendiguren eta Koldo Izagirre,
Euskal literaturaren antologia. Elkar, 1998

Sarrionandiak esana, euskaldunok lotsaz esaten ditugu aberria lako berbak. Poema eta kantu askotan, ostera, lotsa ez beste sentipenik agertu dugu. Grina, amorrua, harrotasuna hasieran, desengainua, arbuioa zenbaiten kasuan, defintzeko zailtasuna une batean, norberaren galbahera ekarri beharra gerora. Joxerra Gartzia idatzi eta Txomin Artolak kantu-liburuetan lekua egiteko eran musikatutako *Aberriaren mugak* kantua-ren letra aberria (herria) hizkuntzari atxikitzen dio:

Aberriaren mugak, euskararenak
gure baitan daude gehienak

euskara zabalduaz, lau haizetara
zabalago egiten gara.

Aberriaren mugak. Joxerra Gartzia /
Txomin Artola, 1997

Xabier Montoia idazle eta musikariak 1995eko
“Beti oporretan” diskoan *Aberri galdua* izenburu argi-
garriko kantua eskaini zigun.

Horra hor ez oso aspaldi herri bat zena.
Orain berriz, noraezean ibiltzen dena.

Aberri galdua. Xabier Montoia, 1995

1990eko hamarkada arte kantugai nagusienetako
bat izan bazen, jada aberriak kantugai garrantzitsu
izateari utzi dio, bai poetontzat zein musikagileentzat,
ez da ezinbestekoa. Nahiz eta baten batzuk badiren,
aberriaren zera hori zer ote den asmatu guran dabil-
tzanak. Zergatik ote? Aberririk gabeko gara? Edo, be-
harrik ere ez dugu? Zerk ordezkatu du aberria?

poema baten barruan kabitzen den
aberria da nirea

Nire aberriaz. Mikel Ibarguren, 1996 /

Bide Ertzean, 2013

Mikel Ibargurenek *Hemen gauak lau ertz ditu* (Susa, 1996) poema liburuan idatzia, egilea kartzelan zelarik. Giltzapetuta zelarik, Sarrionandiak idatzi zuen “ene begiek ez dute malko isuritzeko gogorik”, Ordozikak (gerora Pettik edota Mikel Errazkinek ere, besteren artean) betikotu duen “mendea eta bigarrena gurutzatzen diren lekua, lekua besterik ez izan, urrun derritzan aberrian” (“Ene begiek...”, *Marinel zaharrak*. Elkar 1986). Txuma Murugarrenek aberria mapetan, alegia, irudimenean baino ez dagoela dio eta berak ez duela balizko aberri horretan lekurik:

Mapetan baino bizi ez den zure aberrian
nire izena ahaztu duzu.

Mapetako aberria. Txuma Murugarren, 2004

Idazle eta musikari den Asier Serranok “Gerrari bai” diskoan aberriaren izenean bere ustean egin diren izugarrikeriak kantatzen ditu, aberria hilen lur gisa definitzeraino:

eta non idazten ote da
gure hitz mutuaren kronika
eta nongo mapetan marrazten ote da
aberri galduaren karrika

Aberriaz. Asier Serrano, 2003

Mugaldekoak taldeko Edu Zelaieta idazleak,
2012an argitaratutako “Begiak lekuko” diskoan, *Gogoan izan aberriak* kantuari letran aberriaren definizio askotarikoa dakar:

Gogoan izan,
mintzatzen zaren hizkuntzan mintzatzen zarela ere,
gizakiok bi aberri ditugula:
euria eta ortzadarra.

Gogoan izan aberriak. Edu Zelaieta /
Mugaldekoak, 2012

Aberasgarria litzateke zinez Mixel Labegerie eta
Edu Zelaieta aurrez aurre nork berea defendatzen
ikustea, bata *Euzkadi bakarra da gure aberria*, bestea

bi aberri ditugula... Ez dira alferrik berrogeita hamar urte igaro.

Arkaitz Minerrek 2014an autoekoitzita kaleratu zuen “Esan” diskoan, aldean eroateko galderak entzun ditzakegu Iñigo Aranbarrik idatzitako *Aberriaren zera hau* letran, aberria, herria, Euzkadi edo Euskal Herria bezalako kontzeptuak zer diren ezin argituak sortzen duen azkuraz:

Nola idatzi lur zokorretan?

Nola desidatzi zorua larratu gabe?

Aberriaren zera hau. Iñigo Aranbarri /
Arkaitz Miner, 2014

EUSKARAZ KANTATU, EZ EUSKARARI

Hogeita hamabost urte bete berri ditu Euskal Herrian Euskaraz euskaltzaleen herri mugimenduak. Etorkizuneko erronkak identifikatu eta euskararen normalizazioan ekimen eraginkorrak iragazteko lanetan hasiko dira aurki. Azken hogeita hamar urteotan eza-gutzan asko aurreratu dugun arren, begien bistakoa da erabilerak behera egin duela mende berria hasi ge-

nuenetik. Egun, euskara ez da euskal herritarren le-
hentasun. Idazle eta musikarientzat ere ez. Euskarari
kantatzeko sortzen ditugun letra eta ahaireak enkar-
guzkoak dira, ikastolen jairen baterako edo erakunde-
ren baten publizitate kanpainarako. Gure hizkuntza
gero eta gutxiago erabiltzen dugu eta, antza, horrek
ez gaitu gehiegi larritzen.

Gure hitzak
esan berriz esan
ez daitezela ahaztu
ez daitezela gal,
elur gainean
txori hanka arinek
utzitako arrasto sail
ederra bezalaxe.

Gure hitzak. Bernardo Atxaga /
Mikel Laboa, 1999 / Lisabö, 2010 /
Skakeitan, 2015 / Tenpora, 2015

Bernardo Atxagak *Gure hitzak* testua Abdelfattah
Kilito idazle arabiarraren ideia baten gainean osatu
zuen: hizkuntzaren bizitza errepika da. Hizkuntza (eta
kultura) baten bihotza errepika da. Mikel Laboak “Ger-

nika-Zuzenean 2” diskorako grabatu zuen 1999an. Gerora kantua aldaera bat baizen gehiago entzun ahal izan ditugu. Besteak beste, 2010ean Lisabök eromenera eroan zuen -askoren artean ondu zuten “Txinaurriak” diskoan- eta oraintsuago Skakeitan-ek ska erritmoetara. Mikel Laboak Xalbadorren lantuekin osatutako euskararen galbideari buruzko kanturik ezagunena den *Herria eta hizkuntza* hartatik beste mezu bat du Atxagarenak. Xalbadorrek hizkuntza galzorian egoiteak dakarkion minari kantatu zion, amorruez, errua (Sarrionandiak Gose taldearen “Gosariak” diskoko *Erruan* eman dion esanahi berrian baino, fede kristauaren esangura errotuan) euskaldunei egotziz, ez zutelako hizkuntza erabiltzen. Parabola da *Herria eta hizkuntza*, irakaspena, lezioa, igandeko meza. Atxagarena erabileraren aldeko mezua da, irudi poetikoz adierazten duena, galtzeko arriskuaz ohartarazi arren errurik ez dakarrena, hain gutxi irakaspenik. Ostera, zeini oratzen gatzazkio estuago, erabilerari edo salbazioari? Batak ezinbestean dakar bestea?

Aspalditik ari gara euskaldunok gure hizkuntzaren, gure herriaren galerari buruz kantari, negarrez askotan, erreguan gehienetan. “Ez bedi galdu” zioen Iparragirrek, “bizi bedi” aldarrikatuko du Gabriel Arestik.

1978an Euskaltzaindiak euskararen aldeko kanpaina erraldoia antolatu zuen eta 1980an argitaratu zuten Pantxoak eta Peiok izen bereko diskoa: “Bai euskarari”. Idazleen hitzak, musikarien doinuak ziren herri oso baten engaiamendua eskatzeko bitartekorik eraginkorrenak. Berba haien, ahaire haien abarora elkartu ziren milaka euskal herritar beraien hizkuntzari atxikitzeko. Kantagintzak jendartea eralda zezakeela sinesten zeneko sasoiaz ari gara. Gaurko kantagintzak, zertan sinesten du? Zein egiteko du gure jendartean? Edo ez dago ezer aldatzeko kantagintzaren bitartez?

Euskal rockak eragin zuen iraultza musikal eta estetikoa kontraesanez beteriko espazioetan (Gasteiz, Santurtzi, Bilbo) baino ezin zitekeen sortu. Beste tokietan ez zegoen tarterik halako gauzetarako (Hertzainak, Zarama...), ez ziren ulertzen, ez zuten arrakastarik izan.

Josu Zabala, in Pako Aristi, *Euskal kantagintza berria*. Erein, 1985

Hizkuntza estetiko-musikal horiek euskal parame-troen arabera aditzera ematen hasi zirenean –Euskal Herriko arazoei buruz kantatuz alegia, euskaraz edo

espainieraz-, bete-betea sartu ziren musikak sortzen zuen kontrakultura horren barruan, kantagintzak sortu eta normalizatu zituen zirkuituetan zehar zabalduz. Hala, kantagintza eremu euskaldunetan sortu bazen, eta gero esportatu, rockaren kasuan gauzak alderantziz gertatu ziren. Bada ordea bi mugimenduak lotzen dituen lokarri bat: biak kontrakulturan kokatzen dira eta sinbologia erresistentzialistaren zati handi bat errepikatzen duten hizkuntza moduak eraikitzen dituzte azkenean. Bai kantagintza berria bai rock-punka, biak kontrakulturaren sinbolo ziren. Batak zein besteak euskaraz ez zekiten milaka eta milaka herritarren onespina eta atxikimendua lortu zutelako izan zuten horrenbesteko arrakasta eta eragina, erdaldunek ere bere egin zutelako kantagintza hura. Gure ustean, gaur egun ere, berez, euskaraz idatzi eta kantatzea, kontrakulturala da. Aldatu dena idazleen eta musikarien kontzientzia eta horren neurriko jarrera dira.

Eta gogoeta hauen guztien epilogorik azkuragarriena Anariren berba batzuk zaizkigu, 2016ko Jalgi topaketetan jasoak: "Transmititu behar dena euskaraz kantatzeko grina da".

NOR BERE PUBLIKOAREN XERKA

Bat gatoz Izaki Gardenak eta Libe taldeetako Jon Basaguren kantariak *Entzun* aldizkariak sustatutako *Aho bete doinu 2* liburuko elkarrizketan disko osoen aldean gaur egun kantu solteek duten garrantziaz galdetutakoan erantzuten duenarekin:

Orain nork bere berezitasunak sustatzea inoiz baino beharrezkoagoa da itsaso honetan nabarmentzeko; bestela milaka talde aurki ditzakezula-ko zure ekarpen bera egiten dutenak. Orduan, musikariok berezi egiten gaituen hori landu behar dugu gainontzekoengandik desberdinduko bagara. Entzuleak, sarean, zer edo zer berria jaso nahi hogeita hamar segundotan, bestela hurrengora pasako da: hortik kanten garrantzia diskoen gainetik.

Jon Basaguren, *Aho bete doinu 2*. Entzun!, 2016

Halaxe sumatzen dugu guk ere idazleen eta musikarien arteko lankidetzatik sortutako XXI. mendeko kantagintza. Bakoitza bere publikoaren bila eta aurki-

tzen badu, maitasun handiz zaintzen, asko jagonez esaten duena, asko jagonez jotzeko era.

GENERO IKUSPEGIAK DAKAR IRAULTZA

Gogora dezagun Koldo Izagirrek apailatutako XX. *mendeko poesia kaierak* bilduman Amaia Lasa, Arantxa Urretabizkaia, Tere Irastortza eta Itxaro Borda direla emakume poeta bakarrak (40tik 4, % 10), eta, bibliografiaz gain, diskografia ere bil genezakeela. Aurreko mendean Itxaro Bordaren hirurogei bat poema erabili zituzten kantu bilakatzeko, Amaia Lasarenak bi, Arantxa Urretabizkaiaarenak eta Tere Irastortzaarenak bakarra ere ez.

Bordarenetan oinarrituetakoez gain, zergatik ez dago gure kantagintzan emakume idazleen eta musikarien arteko elkarlanik XXI. mendera arte? Emakume idazleok poesiarako zerabiltzaten gaiengatik? Emakume poeton testuek ez zutelako balio jende saldoen odolak irakinarazi edo begiak malkoz lanbrotzeko? Metrika zailegia ote zerabilten orduko gizon musikarien gaitasunarekiko? Musikariak bagina ahaleginduko ginateke.

Ausartuko ote da inor emakumeek XX. mendean idatzitako testuekin ondutako kantu bilduma osatzen? Gogora datozkigu monografikoak, Oskorriren “Gabriel Arestiren oroimenez”, Antton Valverdekin Lauaxetaren, Orixeren eta Lizardiren poemekin osatutako trilogia, hamaika musikarik Rafa Ruedaren gidaritzapean aurkeztu ziguten “Ehungarreanean hamaika”, Ruperren “Hautsi da anphora” eta “Memoriaren mapan”, edo Bide Ertzean-ek Jose Luis Otamendirenekin jositako “Zure minari”. Badira ere idazlea eta musikaria prozesu osoan elkarrekin lan eginda sortutakoak, hala nola, Errobi eta Daniel Landarten “Errobi”, Pantxoa eta Peio eta Manex Pagolarenak, Joseba Tapia eta Koldo Izagirreren arteko elkarlanetik jaioetako “Apoaren edertasuna”, Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarinek abiarazitako “Bar Puerto” eta ostekoak, Harkaitz Canok Iker Laurobarekin kaleratutako “Zeru tolesgarria” eta Jexuxmai Lopetegirekin ondutako “Itzal zaunka”, edota Sorkunek eta Eider Rodriguezek lau eskutara idatzitako “Ziklomorphosia”.

Orekaren hurbiltasuna erakusten digun ispilukeriatik esnatzearen, azken hamabost urteetan literatura eta musika euskaraz plazaratu duten emakume sor-

tzaileen eta gizonezkoen datuak azaleratzea komeni zaigu:

	gizonezkoa	emakumezkoa
literatura	% 78,09	% 21,91
musika	% 84,14	% 15,86

Iturria: sortzaileak.eus. Kontsulta: 2018ko uztaila

Ostera ere esango dugu: euskaldunon imajinarioan sekulako eragina izan duen literaturaren eta musikaren arteko elkarreraginetik sortutako kantagintza gizonezkoen hitzez eta ahairez osatuta dago ia bere osotasunean, baita 2018 honetan ere. Zorra kitatuko duten aleak behar ditugu, emakumeek idatzitako testuetan oinarritutako kantuak behar ditugu, emakume musikariek sortutako kantuak, intimitatearen aberri isilarazi bat izan genuela gogoratzeko, datozenen imajinarioan beste ahots batzuk atxikitzeke. Ez gara ari historia aldatzeaz, isildutakoen historia kantatzeaz baino. Baina horretarako eztabaidatzea dagokigula iruditzen zaigu, berbarako:

- Intimoa publiko bihurtzeaz.
- Norbanakoa den oro politikoa denetz.
- Kantagintzaren balio eta baloreez.

Entzun! aldizkariaren 2015eko urtekarian:

Antton Iturbe musika kritikariak: Zure hitzen irakurketa ezberdinak egin daitezke ere. Azalean pertsonen arteko maitasun harremanen “desidealizazio” bat dago, erromantizismo edota tragedia hanturen ezean, egunerokotasun “pragmatikoago” eta errealistagoa aurkitzen da. Baita poliedrikoago eta interesgarriagoa ere. Baina azal horren azpian irakurketa soziopolitikorik egitea legoke. Agian urrunegi noa horrekin, baina behin “post-abertzale” kontzeptua aipatu zenuen eta oso interesgarria iruditu zitzaidan. Erromantizismo ximpleegiaren aurrean, euskal gizarte eta gatazken irakurketa poliedrikoago bat egiten duzu denborak aurrera egin ahala?

Anarik: Ez dut uste horraino iristen naizenik. Ez da nire intentzioa. Ez dakit zein testuingurutan aipatuko nuen post-abertzale kontzeptua, ez dut go-goan, baina ez dut uste soziopolitika egiten dudarik. Bistan da disko honetan [“Zure aurrekari penalak” diskoari buruz ari da] kontzeptu eta lexiko soziopolitikoekin jolastu dudala, baina beti ere intimitatearen esparrura ekarrita. Orain horren bogan dagoen “intimoa politikoa da” horrekin ere

ez naiz erabat identifikatzen, gai batzuen inguruan behinik behin. Dudarik gabe, gizarte eta gatazkaren inguruan, gero eta poliedrikoagoak gara, edo orain poliedriak ikusteko eta esplikatzeko aukera dago. Hala ere -eta Lenoreren liburuaren inguruan sortutako zenbait gairen inguruan, kantu sozialarena adibidez-, nik ez dut neure burua kantu sozialak egiten ikusten, ez orain naizen honetan behintzat. Erabateko berrasmatze kontzeptual bat beharko luke izan nire barruan. Dena den, liburu horretan azaltzen diren zenbait adibideren arabera, badirudi kantu sozialak oso onak, txarrak eta oso txarrak izan daitezkeela. Bere horretan ez da balore bat, niretzat behintzat, kantu sozial bat egitea.

Badakigu, herri kontserbadorea da Euskal Herria. Halaxe ondorioztatu zuen Mikel Peruarena Ansa kazetari eta idazleak 2015ean Euskal Herri osoan izan genituen hauteskundeen emaitzak jakin ostean (“Eskuinera zuzen”. *Berria*, 2015-05-26). Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan UMPk jaso zituen bozka gehien, Nafarroan UPNk, eta Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan EAJk. Alderdi kontserbadoreen proposamenak nagusi, euskal herritarren gehiengoa kontserba-

dorea delako, euskal herritarren gehiengoa eskuindarra delako. Baina zer ezaugarri ditu kontserbadore batek? Soziologoek zein analista politikoek kontserbadoreak dagoena dagoenean mantendu gura dutenak direla diote, aldaketari beldurra dioten herritartzat dituzte, ezezagunaren aurrean mesfidati direnak, erabakiak norberak barik beste baten esku uztea gurago dutenak.

Gure lagun batek dio kontserbadoreak oroz gain kakatiak direla, koldarrak, berekoiak, bekaiztiak, individualistak, ametsen zikiratzaileak, burgesak, klasistak, elitistak. Gure lagunak dio kontserbadoreen herri batek ez duela egundo benetako garapenik izanen ordekan ere galgak erabiliko dituelako, larregizko abiadura hartzearen beldur. Gure lagunak dio herri kontserbadorean kultur sortzaileak alfertzat hartuko gaituztela beti, mesfidantza hedatuko dutela gurekiko, baztertu egingo gaituztela erabakiguneetatik ez bada beraien sokari tiratzeko. Gure lagunak dio kontserbadoreak nagusi diren herria herri hitsa dela, monokromatikoa, aspergarria, bizipozik bakoa, pose bat, larritasuneraino perfumaturiko arimez osatutako familia argazki bat, lur sail idortua.

Eta zein da orduan aterabidea? Ez soziologoek, ez analista politikoek, hain gutxi alderdietako politikari profesional noranahikoek ez badakarkigute ilunetarako kinkerik? Idazleek eta kantariek zenbateraino lagun dezakete egoera iraultzen?

EPILOGOA: AHAIRE DELIZIUS HAUETAN...

Ikusiko dira laster,
Müga helkaitzak apaltzen,
Agian bazterrez-bazter
Presontegiak zabaltzen.

Ikusiko dira sarri
Madarikatüak zütik,
Zorion-kantaz alkarri,
Karrikan barna eskütik.

Abiatüko gira gero
Zü eta ni ürratsean,
Bihotz eta бүрү bero
Libertatezko hatsean.

Ikusiko dira berriz.

Itxaro Borda /
Maddi Oihenart, 2003

Irria galdu gabe
urratsa galdu arte
haragia ukatuta
gogoa urkatuta
adeitasun handiz
aienatzea.
Suaren akordua
inor laztandu aurretik
eskuak moztea

inori begiratu baino lehen
autosuntsitzea.

Su hartu nahi dut.

Adeitasun handiz.

Eider Rodriguez /

Sorkun, 2015

Bestelako kodea aldarrikatu nahi dut
hitzarena ez bezalako kodea,
hizkera ez-hitzezkoa,
oroimenean kondenatu ezineko lengoaia,
zinak gezurta ditzakeen berbakera,
erreklamazio-libururik eta
tarifa-zerrendarik gabeko mintzo mutua,
mezu anbiguoaz itxuraturiko jario askea,
adierazi gura ez denaren adierazpidea.

Kodea.

Miren Agur Meabe, 2000 /

D'Capricho, 2015

Hiriak harrapatu duela
dirudi

nondik datorren jakin nahi dut bakarrik
Hiria esnatzen denean
argi-ilunetan

betazalak zabaltzen ditut
eta zu zaude bertan
Nire eskuak zuretzako habia izango balira
biok elkarrekin joateko hegan urrutira.
Nora zoazen jakin nahi dut bakarrik

Nondik zatozen jakin nahi dut bakarrik
Nora zoazen jakin nahi dut bakarrik

Nondik zatozen jakin nahi dut bakarrik

Ainara.

Leire Bilbao /

Rafa Rueda, 2017

Entzuidazu pantera beltza
dantzaidazu umore apurra
larruazal jainkotiarra
ugaztun soinean
arriskutsuki ahazten duena
isiltasunean ahazten duelako
mugen jatorria

erotismo eza da
soberaniazko beldurra.

O, perbertsitate
alai eta herrikoia,
non sartu zara?

Hitz ematen dugu
ez dugula jakingo
sinetsiko dugu
botere afera

gaiztotasunak ekarpenik ez
zintzotasunak etekinik ez.

O, perbertsitate
alai eta herrikoia,
non sartu zara?

Pantera beltza (Perbertsitate).

Jule Goikoetxea, 2014 /

Fermin Muguruza 2016

Bere txisteak
ez dira hain onak, jada
ez, ez dira hain onak

Eta bat-batean
suak itzali dira eta
hotza dator negua

Berriro ere
bukaeraren hasiera da

Bere txistea.

Ione Gorostazu, 2012 /

Don Inorrez, 2018

Bibliografia

- Altonaga, Kepa. *Patagoniara Hazparnen barrena: Loti-landiakoak herri birlandatuan*. Pamiela, 2017.
- Aranbarri, Iñigo / Ubeda, Garbiñe. *Gure mendea*. Argia, 1999.
- Arbelbide, Xipri. *Euskaldunak Algerian*. Elkar, 2003.
- Aresti, Gabriel. *Azken harria*. Haranburu, 1979.
- Aresti, Gabriel. *Gabriel Arestiren literatur lanak* (10 liburuki). Susa, 1986.
- Aresti, Gabriel. *Harri eta herri*. Susa, 2000.
- Aristi, Pako. *Euskal kantagintza berria*. Erein, 1985.
- Aristi, Pako / Markez, Mikel. *Plazer bat izan duk, Benito!* Elkar, 2012.
- Askoren artean. *Aho bete doinu! 1*. Entzun! aldizkaria, 2001.
- Askoren artean. *Aho bete doinu! 2*. Entzun! aldizkaria, 2016.
- Askoren artean. *Aho bete doinu! 3*. Entzun! aldizkaria, 2017.
- Askoren artean. *Salbatore Mitxelena*. Jakin, 1966.

Askoren artean. *XX. mendeko poesia kaierak* (40 liburu-
ruki - Koldo Izagirrek apailatutako antologiak).
Susa, 2000-2002.

Atxaga, Bernardo. *Etiopia*. Pott Liburutegia, 1978.

Azurmendi, Joxe. *Volksgeist - Herri gogo*. Elkar, 2007.

Azurmendi, Joxe. *Zer dugu Orixeren kontra?* Jakin,
1976.

Bastida, Marixol. *Memoriak. Mikel Laboaren biografia*
bat. Elkar, 2014.

Benito, Jon. *Bulkada*. Susa, 2010.

Bidegain, Eneko. *Lehen mundu gerra eta Euskal He-*
rria. Elkar, 2014.

Bidegain, Eneko. *Lurraldea eta herria*. Pamiela, 2018.

Biosca, Marc. *Haiek zergatik deitzen diote Euskal He-*
rria eta guk Ithaka? Alberdania, 2009.

Borda, Itxaro. *Basilika*. Susa, 1984.

Borda, Itxaro. *Emakumeak idazle. Antologia eta ohar*
zenbait. Txertoa, 1984.

Borda, Itxaro. *Krokodil bat daukat bihotzaren orde*.
Susa, 1985.

Borda, Itxaro. *Orain*. Susa, 1998.

Borda, Xabi. *Birika zatiak*. Susa, 2004.

Cesaire, Aime. *Poesia kaiera* (Iñigo Aranbarriren itzul-
pena). Susa, 2015.

- Davant, Jean Louis. *Aljeriaz*. Maiatz, 2014.
- Del Amo, Ion Andoni. *Party & Borroka. Jóvenes, músicas y conflictos en Euskal Herria*. Txalaparta, 2016.
- Elosegi, Joxean. *Joxe Mari Lopetegi, errepublikanoen bertsolaria*. Paper Hotsak, 2004.
- Erro, Angel. *Gorputzeko humoreak*. Alberdania, 2005.
- Eskisabel, Jon. *Itoiz. Hari xingle bat*. Paper Hotsak, 2005.
- Eskisabel, Jon. *Zutaz kantatzeko*. Paper Hotsak, 2016.
- Etxaide, Jon. *Alos-Torrea*. Itxaropena, 1950.
- Etxaniz, Nemesio. *Kanta-kantari*. Ordorika, 1951.
- Etxeberria, Hasier. *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*. Alberdania, 2002.
- Etxeberria, Ixabel. *Piarres Larzabalen antzerkigintza (1950-1982): euskarazko antzerki identitarioaren paradigmak*. Euskaltzaindia, 2016.
- Etxepare, Bernard. *Linguae Vasconum Primitiae*. François Morpain, 1545.
- Gorostidi, Juan. *Lau kantari*. Pamiela, 2011.
- Ibarguren, Mikel. *Hemen gauak lau ertz ditu*. Susa, 1996.
- Ibarguren, Mikel. *Deserriko karrikak*. Susa, 2002.

- Ibinagabeitia, Andima. *Erbestetik barne-minez* (Patri Urkizuk apailatutako edizioa). Susa, 2000.
- Irastortza, Tere. *Gabeziak*. Kriselu, 1980.
- Irazu, Alberto. *Rocka puntua!* Pamiela, 2017.
- Izagirre, Koldo. *Balizko erroten erresuma*. Susa, 1989.
- Izagirre, Koldo. *Itsaso ahantzia*. Kriselu, 1976.
- Izagirre, Koldo. *Teilatuko lizarra*. Susa, 2006.
- Landart, Daniel. *Ahularen indarra*. Elkar, 2011.
- Landart, Daniel. *Enbataren zirimolan*. Elkar, 2013.
- Larrinaga Arza, Josu. *Euskal musika kosmikoak*. Baga Biga, 2017.
- Larzabal, Piarres. *Bordaxuri*. Auspoa, 1962.
- Lasa, Amaia (Mikel Lasarekin batera). *Poema bilduma*. Herri Gogoia, 1971.
- Lasa, Amaia. *Hitz nahastuak*. Zugaza, 1977.
- Leoz, Asier. *Public Enemy. Beltzegi, indartsuegi*. Paper Hotsak, 2005.
- Lete, Xabier. *Abestitzak eta poema kantatuak*. Erein, 2006.
- Lete, Xabier. *(Auto)biografia bat*. Alberdania, 2011.
- Lete, Xabier. *Egunsentiaren esku izoztuak*. Pamiela, 2008.
- Lete, Xabier. *Elurra ikusi dut* (Koldo Izagirrek apailatutako antologia). Elkar, 2017.

- Lönnrot, Elias. *El Kalevala*. Editora Nacional, 1984.
- Mendiguren, Xabier / Izagirre, Koldo. *Euskal literatura-ren antologia*. Elkar, 1998.
- Mirande, Jon. *Poemak 1950-1966* (Txema Larreak apailatutako edizioa). Erein, 1984.
- Nabarro, Omar. *Egutegi esperimentalak*. Susa, 1985.
- Nabarro, Omar. *Haragizko amoreak*. Susa, 2010.
- Orixe (Nikolas Ormaetxea). *Euskal literaturaren historia laburra* (Paulo Iztuetak apailatutako edizioa). Utriusque Vasconiae, 2002.
- Orixe (Nikolas Ormaetxea). *Euskaldunak*. Itxaropena, 1950.
- Ortiz Lopetegi, Agurtzane. *Manex Erdozaintzi-Etxart, herriaren poeta*. Elkar, 2010.
- Otamendi, Jose Luis. *Bakarrik bahago neguan*. Pamie-la, 1998.
- Otamendi, Jose Luis. *Egunsenti biluzia*. Ustela, 1980.
- Otamendi, Jose Luis. *Erlojuen mekanika*. Susa, 2007.
- Otamendi, Jose Luis. *Lur bat zure minari*. Susa, 1995.
- Otamendi, Jose Luis. *Poza eta gero*. Susa, 1990.
- Otamendi, Jose Luis. *Zainetan murrailak*. Susa, 1987.
- Oteiza, Jorge. *Quosque tandem*. Itxaropena, 1963.
- Pagola, Manex. *Bere kantagintza eta argibide zonbait*. Elkar, 2016.

- Peillen, Txomin. *Aldjezairia askatuta*. Hordago, 1982.
- Peruarena Ansa, Mikel. "Eskuinera zuzen". *Berria*, 2015-05-26.
- Retolaza, Iratxe / Sarriugarte, Danele. *Gizontzeko (an-dretzeko) garaia*. HEA, 2015.
- Sarasola, Beñat. *Bainaren belaunaldia*. Labayru fundazioa / Amorebieta-Etxanoko Udala, 2015.
- Sarasola, Beñat. *Kaxa huts bat*. Susa, 2007.
- Sarasola, Ibon. *Euskal literaturaren historia*. Lur, 1971.
- Sarasola, Ibon. *Gerraondoko euskal-poesiaren antologia*. Lur, 1973.
- Sarasola, Ibon. *Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza*. Kriseilu, 1975.
- Sarrionandia, Joseba. *Gartzelako poemak*. Susa, 1992.
- Sarrionandia, Joseba. *Hitzen ondoeza*. Txalaparta, 1997.
- Sarrionandia, Joseba. *Hnuy illa nyha majah yahoo*. Elkar, 1995.
- Sarrionandia, Joseba. *Izuen gordelekuetan barrena*. BAK, 1981.
- Sarrionandia, Joseba. *Marinel zaharrak*. Elkar, 1987.
- Sarrionandia, Joseba. *Ni ez naiz hemengoa*. Elkar, 1985.
- Tolosa, Andoni, *Morau*. "Agintera". *Gara*, 2016-08-04.

- Txillardegi. *Leturiaren egunkari ezkutua*. Euskaltzaindia, 1957.
- Uribe, Kirmen. *Bitartean heldu eskutik*. Susa, 2001.
- Urkizu, Patri. *Agosti Chahoren kantutegia*. Susa, 2006.
- Zelaieta, Angel. *Gabriel Aresti (biografia)*. Susa, 2000.
- Zelaieta, Edu. *Mugaldekoak*. Susa, 2004.

DISKO-LIBURUAK

- Atxaga, Bernardo / Iturralde, Joxemari / Ordorika, Ruper. *Henry Bengoa inventarium*. Pamie-la, 2012.
- Izagirre, Koldo / Tapia, Joseba. *Apoaren edertasuna*. Gaztelupeko Hotsak, 1998.
- Sarrionandia, Joseba. *Hau da ene ondasun guzia*. Esan Ozenki / Txalaparta, 1999.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

- Uribe, Imanol. *Ikuska 13. Euskal kantagintza*. Antxon Ezeiza / Luis Iriondo, 1984.

INTERNET

Armiarma euskal literaturaren ataria.

<https://armiarma.eus/>

(*Igela, Ustela, Oh! Euzkadi, Pott, Susa, Korrok*
aldizkariak

kontsultatzeko: *Literatur aldizkarien gordailua*,

<https://andima.armiarma.eus/>)

Badok euskal musikaren ataria.

<http://www.badok.eus/>

Izagirre, Koldo. *Errealitatearen arbola* hitzaldia (2000-06-30). <http://www.susa-literatura.eus/kaierak/aurkezpen1.htm>

Izagirre, Koldo. *Gure poeten malkoa* hitzaldia (2000-11-24). <http://www.susa-literatura.eus/kaierak/aurkezpen2.htm>

Izagirre, Koldo. *Uraren bideak* hitzaldia (2001-06-15). <http://www.susa-literatura.eus/kaierak/aurkezpen3.htm>

Izagirre, Koldo. *Gure poeten piztiak* hitzaldia (2002-10-04). <http://www.susa-literatura.eus/kaierak/aurkezpen4.htm>